

uste ez ditugun erabilkak bizirik diraute, edo berriz modan daude. Ezezko bat edo ez jakintasun bat guretzat jakingarri daiteke, gure gizaldiaren argazkia da, beharbada, denborarekin zimelduko, horituko, ezabatuko dena, baina jakiturien gurpilean berriz agertuko dira argazki hortan ikusi direnak, agian.

Itaunketa hortan agertzen ez zena ernalketa, seksu ihardunen aldekoak ziren; egileak hala nahiz, ala garaiak halanahiz: orduan erreza baitzen holako galdera egilea pekatari iriztea. Neroni ere ez zait, lehen berriemailearekin oroitu holako galderen egitea; gero sendabelarren erabileraz neronek egindako itaunketan, galdera horiek agertzen zirela eta berriemaileak - eliza gizon izan arren - albiste emaile argia izan bai nuen, bigarren berriemailearekin ez zitzaidan batere ahaztu egitea, bitartean egia esan, holako gauzak XVIII. mendeko euskal testuetan aurkitu bainituen ere.

Denetara ehun galde baino gehiago zeuden eta jendeen adinaren arauera, itaunketaren erditan atsedean apur bat hartu egin dugu; halere, ez dut sekulan, bi bider egin lana, lehen alditik saiatu naiz galdetzen, osoki galdetzen.

3. GALDEKETA GUZTIAK GRABATUZ EGIN DITUT.

Grabatzeak ez ditu berriemaileak oztopatu - mediku bat izan ezik - eta denek laister ahaztu egiten zuten "katxarroa". Bi berriemaileek beren erantzunak irakurri eta zuzendu dituzte, besteekin zen bezala ematea erabaki dut. Beste leku batean aipatuko ditut grafia arazoak, baina testuetan gakoan artean agertuko diren hitzak, euskara batuan dira, zubereazko testu apur bat argitzeko eta oharren ez metatzeko. Testuen aurretik doan "laburpen luzea" euskara batuan da, baina pazentzia apur batekin ondotik doan "corpus"a, zubererazkoa irakurri diteke.

Hona, beraz, lan honen metodologia mugak, baina balitzeko errotan ez bait da irinik edo urunik egiten, lan hau izan dadila besteen zirrikagarri.

Bilketa lekuak

Atarratze : Joanes LARREGLE, apotekaria
 Ligi : Rémy ACCOCEBERRY, sendagilea
 Allande ARTIGAU "Elixagarai"
 Maddalen CARRICABURU-AGUER "Dordorrage"
 Joanes CARRICABURU "Dordorrage"
 Maule : Leonia AGUERGARAI, zahar erizaintza ardura-duna
 Yvette ETCHECOPAR, zahar erizaintza idazkari
 Eliana HEGUIAPHAL, neskatila
 Larrabile : Martí DAVANT "Zabalain"

ETXE SENDATZAILEAK

Etxe-sendagintzaz itaunketa

Hortarako J. M. Apalategik euskaratu **J. M. Barandiaranen Etnografiako galdeketa baterako gidaliburu**a, Donostian 1985.an A.E.B. bilduman argitaratua oinarritzat hartu eta hartan agertzen direnei ginekologiako **galde-**

ra batzu gaineratuz zubereraz jarri dugu galdeketa hau.

1. Zoin ziren, zoin dira eritarzün ezagüenak?
2. Bilhoen koloreak zer salatzen dü osagarriaz? edo bilhoen koloretik ezagützen ahal dea norbait eri dela?
3. Begietan ezagützen ahal dea norbait eri dela?
4. eta bepürüetarik?
5. Zoin dira berez heltzen diren eritarzünak? edo Berhexten zirena kozüz, ustegabetarik, meskabüz eta berez heltzen ziren gaitzak?
6. Zoin dira jenteen tenperamentüak, jiten ahal dea eritarzüna jenteen tenperamentütik?
7. Zoin dira egünorozko bizi moldetik / bizitzeko maneratik horra direnak?
8. Zertarik horra dira ametsak? Eta ameskaistoak?
9. Zer sinesten da ürsainez? zer pentsatzen da?
10. Gaüzako aideaz zer dioie jenteek? (hobeago dela tzarrago dela, zer?)
11. Behar dea leihoa zabalik ützi gaüz kanberetan
12. Zoin dira osagarriaren alte edo etsai diren oihalak?
13. Zertarik horra dira eritarzünak?
14. Zoin dira osagarri marka diren minak?
15. Zoin dira janari osagarriari ogenegile direnak?
16. Zerk freskatzen dü barnea eta zerk berotzen?
17. Eritarzün bat heltzen delarik eta heltzen zelarik nori galtatzen abisü?
18. Jentea pixkortzen delarik zertarik ezagützen da?
19. Osagarriaren begiratzeko zer egin behar da? Eta eritarzünaren hürüntzeko zer?
20. Etxeetan, osagarriaren azkartzeko, sendotzeko zer etxekitzen zen eta zer badüzüe orai?
21. Señatzerik, odol idokitzerik egiten dea? egiten zena. Zuri egin zeizüena eta zerentako?
 Noiz egiten da señaitea? Zerekin?
22. Maiñürik eta hurtatzerik egiten düzüea? egiten zena? Non, noiz?
23. Godaletik (bentusarik) ezarten düzüea bularrean, bizkarrean? Nork ezarten dütü? Zuri egin deizüea?
24. Goitikaren lagüngarri zer erabilten da? Noiz egiten da, noiz bortxatzen goiti errandatzera?
25. Pürgatzen ziradea eta zerekin? Lehen pürgatzen zindena? Gibeletik ala aitzinetik?
26. Ezürria, hoin-ithoia zer den badakizüa? zertarik horra den?
27. Sinesten dea eritarzün bat maradikatzetik, begi gaistotik edo behargabetik jiten dela?
 Nola agitzen da eta zer egin behar da ordüan?
28. Contagion-ea nola erraiten da eüskaraz? Zer da? Zoin dira holako eritarzünak?
29. Sendotzeko hitzamaiten dea debozionetara joaitea eta norat?
30. Eritarzün zonbaiten sendotzeko keiñürik egiten dea eta orazio-nerik, basa otoiñzik?
31. Kabale ta jenteer - gaizkirik gabe - bena desiratzenegiz eritarzün bat emaiten ahal dea?
 Nola? Zerbait erraitez, so egitez, hunkitzez?
32. Lürpean zerbait sartüz, eritarzün bat galarazten ahal dea? Zoin eta nola?
33. Xahatüz eta fretatüz min bat galeraz ziniro? Zoin?
34. Zerbaiten petik igaraitez, edo gainetik egitez senda ditake?
35. Zerbait hürün urtikitzez, idortzera edo tzükatzera ützi sendotzen dea? Eta zertarik?

36. Eri den günea mesuratüz sendotzen dea? Egiten bada, zer egiten da mesura harekin?
37. Eritarzün batetik sendotzeko edo haren axolbean izateko, soinean egarten dea zerbait? Non ezartzen da?
38. Zoin egün hobe da, astean, erremediatze bakotxarentzat?
39. Zertarako izertarazten da eta nola?
40. Erremedio batekin, gantzügailü batekin fretatzeak egiten direa? Zerekin? Zertarako? Orai ala lehen?
41. Sükarra (fiebre) zertarik heltzen da?
Sükar süberterik badea? Zer sendagailü bada eta bazen?
42. Eztül eta züntzurreko minarentako zer erremediatze bada eta bazen? Beste marrantarik?
43. Nola erraiten düüe "coqueluche" eüskaraz?
44. Bularreko minari nola erraiten da? Zerk emaiten dü? Noiz, nola biiltzen da?
45. Zer egiten da hartaz sendotzeko?
46. Südürreko odol galtzeak, badüa izenik? Zer erremedio bada hortarako? Zer egiten da?
47. Zer emaiten da odol ahülezietan?
48. Odoleko zikinkerien galerazteko zer egiten da? (odola gastatürrik eta teiü delarik)
49. Estomaka nahasirik delarik zerek emaiten dü? Eta zer egiten da?
50. Beheitikoa nola deitzen da? Zer egiten zaio?
51. Zizariak zer ogen egiten düe, nontik jiten eta noiz? Nola ehaiten ziren?
52. Sabela gogortzen zelarik zer egiten zünüen?
53. Goitika egileer, egin ondoan, zer emaiten zaio barnearen ezitzeko?
54. Gibealeko eritarzünak zertarik horra dira?
55. Iktera nola deitzen da eta zerk emaiten dü?
56. Hotz hartzen delarik eta eztülez hasten, nola deitzen da destrenpü hori? Eta zer egiten?
57. Saihetseko pünta nontik horra da? Zer egin?
58. Bürüko mina zertarik jiten da? Zerk igaranarazten?
59. Bürhüngürüa zer da?
60. Bürü eta zain-ahülezien erremedirik badea? Zertarik jiten dira? Zer da depresioea?
61. Zer izen emaiten zaiebürütik nahasier? Zertarik horra dira eritarzün horik? Zer egiten da?
62. Nola erraiten da eüskaraz Danse de Saint Guy (San Vito) Nori jiten zaio?
63. Mozkorkeria nola senda?
64. Negüan haurren eta gazteen larrüa gorberatzen delarik nola erraiten da? Zerk emaiten dü? Zer egin behar da?
65. Epilepsia nola erran eüskaraz? Zer egin behar da gaitzaldi bat agitzen delarik?
66. Zertarik hona dira, eta nola sendotzen haurren helgaitz edo sükar ikarak?
67. Larrüko txori edo otsoak erraiten beita, zertarik horra dira eta zer egin behar zaie?
68. Katxak edo marrükak zertarik horra dira? Nola idokitzen? Nola igaranarazten?
69. Hoinetan jiten diren larrü kanika horier nola erraiten da? Zer egiten? Eta hoin-zoletan, aztalean (orpoan)?
70. Ekimosi bati nola erraiten zaio? Zer egin?
71. Begi ta lepo hankürentako zer egin?
72. Nola erraiten da herpes? Zertarik jiten da? Zer egin genezake?
73. Zoin dira ezagützen düütüzün larrü min motak? Nola igaranarazten düütüzü?
74. Bürüsoiltzea zertarik jiten da? Zer egin biloen ez galtzeko, haien begiratzeko? Eta berriz sorarazteko?
75. Biloaren berriz sortarazteko zer egin?
76. Biloaren üzürarazteko, karakoilarazteko? Zertarako?
77. Hoinetako izerdiaren galarazteko? Ala ez da galerazi behar? Urrina nola estal?
78. Zer erraiten da bizkar konkordünetzaz? Nola jiten da? Zer egin?
79. Erredüren, kiskillien galerazteko zer egiten da?
80. Zoin dira haur-denborako eritarzünak? Gertatzean zer egin behar litake?
81. Zer dira haurren urterminak?
82. Erreinetako mina zertarik horra da? Nola igaraiten da?
83. Ezürreia edo hoin itoia.. edo beste errematismo mota batekin agi bazinte zer egin zinro?
84. Haur opatü bat zer da? Zer egin behar zaio?
85. Gangrena zer da? Nola erremedia?
86. Zoin dira begietako minak? Nola erremediatzen dira?
87. Zikinkeria bat, errauts bat begitik kentzeko zer egin?
88. Nola deitzen da begia xüxen ez düana? Zertarik horra da? Zer egin behar da?
89. Utsü izateak zertarik jiten dirade? Nola düe izena?
90. Zoin dira beharrietako minak? Zer egiten da?
91. Zer da lepo-xerria? Zer egin behar galerazteko?
92. Haginetako minak? Haurrenak eta handienak bardin?
93. Nork hortzak idokitzen zütian eta nola?
94. Nola lagüntzen da haurren hagin egitea?
95. Hurrek ohean pixegin ez dezaen?
96. Elorri, iratzotz txistekin zer egin behar da?
97. Zertarik jiten da, mütü, gor ala motel izatea?
98. Zaurietan odola galtzen delarik, nola eküraraz?
99. Txakür usikiekin zer egin? Sügeekin, erle, ülli ta eltxo txisteekin zer?
100. Belaüneko ixurtea nola agitzen da? Zer egin? Nori agitzen da? Lehen zer egiten zen?
101. Ezür hautseren xüxentzea? Nork? Non eta zer egiten züen? Kario zena?
102. Zainhauzi, hoin-bühürtze, anbüratze, nola ezagüt? Zer egin?
103. Larrü karrantatü baten gaiñen zer ezar?
104. Itoarekin 105. Urkatü batekin zer egin?
106. Norbait bizirik ala hilik denez jakiteko zer seiñale bada?
107. Ustegabeko herioaz zer dio jenteak?
108. Pozoatü bati zer emaiten da? Ala zer ez emaiten? Zer egiten, zer eragiten zaio?
109. Iñhaziaren, tximistaren axolbean nola jar? Eta hunkirik denari zer agitzen zaio, zer egiten zaio?
110. Ekikolperen erremediorik badea?
111. Itsuski kolpatü batekin zer seiñale dü? Zer egin behar zaio?
112. Galantarzüna osagarri seiñale dea? Eta lodi izatea?
113. Mehatzeko, zer sentagailü erabil zenezake? Zer jan, zer edan zer egin behar zünüke?
114. Horietarik, orotarik, erran zaharrik, arraporik badüzüea?
115. Ibilten zindena, danatua, belagile, basa-bedezi ta jinko txipi horietarik? Badea, zombait besteak beno hobe?
116. Etxen ikasia aski zena destrenpü ta eritarzünen igaranarazteko? Eta noiz bortxatü zinden bedeziazen gana joaitera?
117. Zerentako ez ziren lehen ospitalean sartü nahi Ospitaletan eri zirelarik, eta orozgäin gizonak?
118. Zerentako, orai ere, populüan ez da hanbat Ospitalean sartzea gogoko, orozgäin jente zaharren artean?

Eranskin edo gehigarri gisa (Barandiaran-en galdekizunetan ez diren beste galdera batzu).

119. Emazteen helgaitz, astegaitzak
120. Emazteen lili xuriak
121. Emazteen odol pausü
122. Potikoen ixurteak gaüzaz
123. Nola haurra sortzen züen emazteek lehenago
124. Haurrak galerazten zütiena, emazte zonbaitek
125. Emagintsarik bazena?

4. Plangintzaren xehetasunak

Ondotik aurkituko duzue; berriemaile bakoitzarentzat

1. Biografia
2. Galdeketaren giroa
3. Laburpen mardula euskara batuan
4. Erantzunak (oharrekin edota gakoan arteko sinonimoekin euskara batuan)

Gure berriemaile nagusiak direlarik etxesendatzaileetan

1. Marti DAVANT "Zabalain"
2. Maddalen KARRIKABURU "Eiherezki"
3. Eliana HEGIAPHAL "Kalostraenea"
4. Joanes KARRIKABURU "Dordorragea"
5. Allande ARTIGAU "Elixagarai"

1. Marti DAVANT "Zabalain"

Larrabilen Zuberoan gaude, 1989.ko Ekainaren 10a.

Ordüan behar deizüt galthatü zure izen ta izen txi-piak?

Ni Marti DAVANT nüzü

Nola deitzen da etxe hau?

Zabalañ, Zabalaiñea

Noiz sortürrik?

1903.an Urrietaren 2.an. Lautanhoita sei urteak baditizat

Nun sortürrik?

Heben berean

Eritarzün handirik üken düzüia haur denboran

Bai, hamasei urteetan "fièvre paratyphoïde". Gero gazte denboran soldadokan, orkitak (beharondoelak), izigarrikoak hartarik landa, bronko-pneumonia "double", hartarik herexa gaixtoak baratü ziztatzün.

Jüsto soldadoka aipatü nahi neizün, nun egin zünian? eta noiz?

Bai, Mont de Marsan-en, 1925, bi gerlen artean.

Gerlarik egin züniana?

Ez, bena izan nüzü mobilisatürrik. Bi haur beinütin sei klasaz (kintaz) zahartzen nündüzün, ordüan doidoia Balonara

Eüskal herritik kanpo bizitü zira?

Heben baizik ez, soldado .Hürrünenik izan nüzü, zerean "au camp de Surges" perioda baten egiten; bost urterik behin egiten nizün hogeita bat egüen perioda hura düzü hürrünenik izan nizana.

Ez düzü lanean eraunsi etxerik kanpo Eüskal Herritik kanpo?

Ez.



Zabalain etxea.



Zabalain senar-emazteak.

Zer eskola egin zünian? Certificat-a igaran züniana?

Doi doia hamabi urtet'erditan.

Zonbat urte badü ezkontürrik zirela?

Berroitahamazpi urte (57) berhala.

Zonbat haur?

Laur.

Lanean?

Beti laborantxan, artzain.

Eraunsi düzüia besteen soañatzen (artatzen)?

Ez. Nihauren bürüa eta etxenkoak.

Aüzoan bazena txingola sendozale ta daunatuariak?

Ez (dudaz).

Ez zira kürütze gorriko zer horietan ibili edo "secourisme" egiten ?

Ez.

Irakurtzen düzüia?

Eüskaraz eta frantsesez

Española badakizüia?

Ez.

Biarnesa?

Amiñibat (apur bat), entelegatzen pürü bai

Bilketa giroa.

Zabalain baserrian gaude egongela-sukalde haundi batean; etxeko jaun zaharrak bere bazkal loa bukatu du eta etxekanderearekin batean atosten nau; aurretik, deitu dut eta euskaltzainkide dudana Jean Louis Davant-en gurasoak izanki, abegi onez hartu naute. Ordu bat et'erdiz gelditu gabe erantzun didate biok, txandaka, nahiz etxeko jauna gehien bat; magnetofoiaren aurrean. Erreztasun handia dute ez baita lehen aldia galdekatuak direla. Gero geldituko gara apur bat "arristiri askaritarako" esan nahi baita bostak aldean, kafe ardo, gazta ta ogirekin atsedendia dugula; gero beste ordu erdiz jarraituko dugu, hizketan, nire berri-maileek ez dute beti zerbait esatekorik, baina egiten dutenean oso jakingarria gertatuko da emango didatena.

Marti DAVANT "Zabalain"en ekarpena

Ekarpen hortan, bere andereak ere, bere puxka baliosak eman dituela esan behar da. Lekukotasun hori Gamerekoaren oso bestelakoa da, jendeen artean belaunaldi bat bitarte badagoelako: Zabalain-ek eta haren etxekandereak, mediku gabeko etxe-sendakuntza ezagutu baitute. Hona laburzki, eta berri-emalleek bizitasun, xehetasun ugariz apaindurik kontatzen dizkigutela, guztien gaintetik, berek bizitutakoak, eta ez hainbeste dakizkitenak, hona laburzki beren ekarpenaren mamia.

- Biziturikako aipatzen den lehen gaitza hamalaukeko gerla garaiko español gripa da, jendeak hil zituena (Gamereko etxekandere gazteagoak ere aipatu digu), lehen galdean.
- Kutsuzko ta ixtripuzko gaitzak aipatzean Baionako bi barbero ospetsuenak ematen ditu eta Olorue ta Maulen egon zen Lafitte ez hain gora edukitzen.5.en galdea.
- Doministikua (ursaina) aipatzean kontatzen du nola haren aita atsegin hartzen zuen, lagunei ohitu gabekoei tabakoa sudurretik hartueraziz, egin zezaten.9. galdea.
- Andereak dio, oihal hoberena osasunarentzat liñua dela, gero artilea baina kalamua oso txarra "zona" emallea.12.en galdea.
- Andereak dio, lehenago, gehienetan belarrekin sendatzen zirela emazte zahar batzuek baitzekiten erabilera.17.galdea.
- Etxeko jaunak dio gutitan deitzen zela medikua eta Heugas sendagilea haren aitarekin alferrikakoa izan zela ez baitzion paralsiaren sendoarazteko ezer egin. Neronek entzun ez nuen irtenbidearekin sendatu zen, alegia Xarrikotan Peillentarrek geneukan izebak burdin-artzaren emazteak,armadako sendagile ohi baten aholkua emanik.17.galdea.
- Gizon horrek diosku, hotzberoa, izerdia, lo gabezia direla eritasunaren (gaisotasunaren) bide egileak .19. galdea.
- Marti Zabalain-en osabak urtero sangratze bat eginarazten zuen,21. galdea.
- Zabalain-en ama urtero Akizeko (Dax-eko) hur eta lohietarra zoan, erreumeak sendatzeko edo eztitzeko behintzat.22. galdea.

- Marti Zabalainek kontatzen digu, nola soldautza garaian "bentosa" (godalet) ipintzen zebilen, eta nola beltzek pika-razten zituzten odolaren ateratzeko.23.galdea.
- Purga olioaz edo ur gaziarekin zen.25.en galdea.
- Sogaiztoaren (begizkoaren) axolbean jartzeko ezkoa, mezak eta medailak ziren erabiltzen: andereak.27. galdea.
- Gorrentzat Urdiñarbeko San Gregori-ra debozioa bazen. 30.en galdea.
- Etxeko jaunak dio garai bateko Ezpeize herriko erretora sendatzailea zela, janari-edari sistema bitxi batekin, aste batean ardo azkar (fuerte) edaneraziz, gerokoan ur hutsa, eta berdin - gaineratzen du etxekandereak hark sendatua izan baita beso erreumeaz - janari bat astean eta bere kontrarioa urrengoan. Dirudienaz apez manex hori, eüskaldünei frantsesez zuzentzen zen eta bere izena, frantses tankeran ahozkaratzen.
- Desira gaistoa, gehien bat abereekin, gertatzen da, etxeko jaunaren ustez, eta bere aitak ez zuen uzten Sohoetako Ezpeleta jauna bere behitegi arditegiatan sartzen, hark desiratu abereak hiltzen baitziren.31. galdea.
- Andereak kontatzen du bere senarrak nola txingola "zona" izan zuen eta etxekojaunak jarraitzen, bizkar guztia hartuta zeukala, Mintikile herrira joan zela, kasu hortan gizon sendatzaileak baratzeko lauki bati zazpi bider ingurua gurutzez eraginez, otoiña ahapetik esanaz, gaixoaren atzetik ibiliz esku bata sorbalduan, bestearekin oihal beltz bat inarrosiz, sendatu zuen.34. galdea (hori egiteko eguzki jaikitzean edota sartzean egin behar).
- Jaunak dio Larrabilen ama zenari ikusi diola olio ta arraultze unkontua erabiltzen, erretako azalaren larruaren gainean. Andereak berriz Altzai-n bere jaioterrian kare-ura. 38. galdera.
- Sukarraren galerazteko ohean beroki edukitzen zen manta (ohestalgi) askorekin edo belarrekin sendatzen: sasiosto, odolbelar ta malba tisaneeekin, dio andereak eta gaineratzen du haren amak, mihilua gonan josita edukitzen duela. 39.en galdea.
- Ardoa eta arraultze goringoa: anemiarentzat andereak.44.en galdea.
- Behetikoa, diarrea, ez da seriotan hartzen helduen (gehituen) artean, bi txiste ematen dizkigu hortaz etxeko nagusiak.47.en galdea.
- Haurrek, humeek zizariak lurra hukituz eta esku zikinekin biltzen zituztela bazekiten zaharrek, sendagileek esanda.49.en galdea.
- Idorreria (hesteetan) sabel gogortzearen sendatzeko haurrekin erabiltzen zen, Mongongo Azantzak 1692.an euskaraz idientzat ematen zuen "erabilka": porru bat ipurtzulotik sartzea, olioaz bustia, eta apur bat igurtziz.50.en galdea.
- Errezeta ezagunak ematen dira constipoaz eta goitkaz, baina gibeledu eritasunen artean, minhoria (iktera) gatzura-rekin sendatzen da.52.en galdea.
- Etxekojaunak luzaro azaltzen du nola aita gari ebakitzetik izerdi itzultzean eta arroparik aldatu gabean pleuresiatik gaixotu zen.
- Malenkonia hitza -aintziñako züberoeran depresioaren esan nahikoa zela, beti kexatzen denaren adierazteko erabiltzen da, baina jende etsituen itotzeaz eta urkatzeaz

- aipamen luzea dago etxejoaunak, askotan ulertezina dela, eta beste batzutan familia batetan kasu bat baino gehiago ematen dela gaineratzen andereak.58.en galdea.
 - Mozkorreria ezin da sendatu.60.en galdea
 - Etxekandereak kontatzen du - bere haurtzaroa - erorteko mina ikusirik.62.en galdea.
 - Etxekojoaunak dio marruka belarra badela, zaran belarra, zaranak galerazteko, eta uste du beharbada mikrobia badagoela odolean.65.en galdea.
 - Txitxa begia (hozpela) : Oin behatetako larru handitsu gogorra ur beroan malguerazten eta zatika moztu egiten da. 66.en galdea.
 - Mandoak (oin zirritu) erremediatzeko ezkoa (argizaia) urtu egiten da, ttantaka minaren gainean. Zabalaineko osabak hala zegian .70.en galdea.
 - Bursoiltzeak: Davant aian Zabalain-enean, aitona garbala zen, aita ere ta bi semeak gaur berdin odolean da, ez da eritasuna.71.en galdea.
 - Urte minak, min gizenak. Horietatik itsu gelditu zen etxejoaunaren arreba, hirur hilabetetan, baina ez semea beranduago izan baitzuten.77.en galdea.
 - Giltzurinetakoa. Ezin pixeginez. Zabalaineneko aitonari gertatu zitzaion zortzi egun igaro Ahuzkiko uretan, beti ezinez eta etxerako bidean askatu eta txisegin zuen.78.en galdea.
 - Tetanos-etik hildako bi gazteren kontakizunak, biak hamazortzi urteetan hilik, Mintikile ta Onize herrietan.80.en galdea.
 - Begietako minak. Etxekojoaunak kontatzen du nola begiko txuria izan zuen eta Ezpeize-ko Bonnat sendatzaileak, otoitz eta belarrez sendatu, usobelarrak erreaz, hirur bider, behin eguzki jeikitzean, bestean eguzki sartzean, azkenik gauaz. 81.en galdera.
 - Betokerra. Etxekojoaunak, iloba bati betaurrekoak erosi eta gero gurasoek ebakarazi zuten.83.en galdea.
 - Ezur zuzentzaileez, asko mintzatzen da, oraindik beren arrakasta daukatelako. Lehen andere bat izan zen Mintikile herrian hortan ziharduena, gero Maulen Izpurako Aguerre ospetsua, gero Sen Gladin eta Ezkoze-n ibiltzen den haren semea.
 - Azkenean esango digu askotan ibili dela hezurretako gaitzen eta okerduren gatik "daunatu" delakoaren ikusten, etxejoaunak.99.en galdea.
 - Osasun seiñalez ari garalarik, jende lodia, jende gaixoa dela dio eta Eito zenaren, bere burua hil zuenaren, esaldi bat aipatzen 111.en galdea.
 - Emagintsaz mintzo, etxejoaunak bapatean ohitura zahar bat edasten du alegia norbait ezin hilez zegoenean, norbait bidaltzen zela hirur elizalara, hirur ebanjelioren esanera, eta nola Ezpeizen zegoen apez sendatzailea, hirurgarrena izanki, Marti Davant-ez trufatu zen eta beti frantsesezko ateraldiarekin.114.en galdea.
 - Esaerarik ba ote denez osasunari buruz galdetzen diogularik, Marti Zabalainek, txistea kontatzen digu, gaixo batek aitortu zionean, azkenean zegoelarik "Jainko txikia", sendatzailea ikusi zuela, medikuak erantzun, orain "Jainko haundia" ren ikustera joango zara.112.en galdea.
 - Arreba itsuaz mintzo, bere eskonahizpaz hitzegile, etxekandereak dio, oroimen harrigarria zuela, herri auzoko jende askoren sorteguna, ezkonteguna, hileguna bazekizkiatela, baita behin entzun duen abotsetik norbait ezagut zezakeala ere.86.en galdea.
 - Dentista diplomadunak izan arte, herri bakoitzean "hagin-idokitzale" bat bazen ailkate txikiekin hortzak ateratzen zituenak.89.en galdera.
 - Elorri (arantz) ezin kenduz, urdai gatzgabea, koipe gatzgabea eta urdearen (txerriaren) gibel mina erabiltzen zituzten, Altzain ta Urrüstoin, Mintikileko gizon bati (Espil-i) entzun diot süge larru eta olio z gegin hersgailu batekin egiten zutela. 91.en galdera.
 - Zertatik datorren gortzea galdetzen diodalarik etxejoaunari, sendagileak garbituz bata zulatu diola, tinpano bata. 93.en galdera.
 - Odolaren geldiarazteko, Altzain, gatzura erabiltzen.95.en galdera.
 - Zakurraren ausigia edo ozka, ozpinez ta hurez garbitzen, - hortaz etxejoaunak anekdota bat kontatzen du - 96.en galdera.
 - Etxekojoaunak dio semea eduki duela berrogei liztorrek lepoa zistaturik, eta sendagileak salbaturik.98.en galdera.
 - Etxekojoaunak berari gertatua: elorri zuri hesi baten gainetik jauztean uste izan arantz zista zeukala, etxera sar eta, dolore handitan, sugearen bi hagin ozkeak ikusi, baina tetanosarena edukirik, eta bipera ez zen ezkerro, laster sendatu.97.en galdera.
 - Etxekandereak dio lehenago haurerditzeko garaian, emazteak oraindik lanean zeudelako ez zutela haurra etzanik sortzen, baina kokorikoz. Bere denboran jadanik, astebeite egoiten ziren etzanik, haurra eduki eta. Haurra sortu berrian, amak oilaki salda hartzen zuen eta niniak hustuketa egin ondoren, ur sukratua, bularra baino lehen.
 - Etxekojoaunak dio auzoko emagintsak, anderei ondokoak etortzen ez bazitzaie, ez bazituzten aski laster botatzen, egur-su baten hautsarekin egin tisana edanerazten zitelako. Gero erdiberrian andereak sabela "aizez handitua" "hanpatua" putzutuz baldin bazuen, botoila batekin sabela igurtzitzen zion amari, emagintsak.114.en galdea.
 - Beti bezala, aintzinako amaberrien eta ninien hiltze ugariak aipatzen dizkirate.122.en galdea.
- Marti Davant Urrüstoi Zabalain-eneko etxejo nagusiaren, galdeketa laburpena.
- Gaixotasun ezagunenak.** Lehenik gogoan ditu sentar-tean gertatutakoak, bronko-pneumonia, pleuresia, tuberkulosisia (baina ez du Basabürüko **probeniste** hitza ulertzen). Irudi zaio aintziña ez zela hainbeste bihotzeko min eta minbizirik. Gero XX.mendeko "planeta" edo epidemia handiena aipatzen du "español gripa" hiltzailea.(1.)
- Adinaren gortasunez, minak aipatzean, **kirurgilariez** erantzuten dit, Euskal Herriko klinika ospetsuenak eta ez beti hoberenak lerrotatuz. (5.)
- Ametsa,** gogoaren ezin gelditzearekin lotzen du baina batzuk esaten badute gezurra dela berak ez du hala uste. (8.)
- Ursainaz,** mintzo ez du bere sendagintza aspektuaren aipamenik egiten baina jende harremanetakoa, alegia "on

dagizula" esatea eta aita zenak tabakoa prisa eraziz, ohitura ez zutenei eragiten zieten, farre egiteko. (9.)

Gauazko aireaz bi iritzi azaltzen du, berea gauaz hotzik ez denean leihoa zabalik uzten duela eta besteek gauazko airea txarra dela. (10.11.)

Oihal eta soineko txarrak, txarrena kalamua, gero artilea, hoberena larruarentzat liñoa; ez dute nilona aipatzen. Liñoa ezin denean algoa (kotua) ez baitu txingolarik (zonarik) ematen. (12.)

Doloreak osasun señaile erreumea zahartuko dela marka omen, baina gazte-gaztetan ere ager daiteke. (14.)

Jateko kaltegarriak, denak gehiegi janaz.. eta orain argi (okel) eta alkohol gehiegikeriak. (15.)

Norbait gaixotzen zenean norengana joaiten?. Hortaz argi dago dirua zegoenean medikuaren gana joan ohi zela, baina Zabalaineneko etxekandereak - Altzaiko delarik jaiotzez - dio lehenik auzora eta sendabelarrak ezagutzen zituzten andre zahar batzuen ikustera zoatzela. Gero etxejoauna anekdota bidez erantzulea baita, kondatzen du nola Mauleko sendagileak kondenatu aitona sendotu zen nere izeba batek, Xarrikotapekoak, Armadako mediku baten ikustera bialduz. Badirudi hemiplegia mota bat egin zuela eta Armadako erdi-sendagileak eman purgak haina denborak sendatu zuela. (17.)

Gaitzen urruntzeko bideetan senar-emazteak ugari mintzatzen dira, hotzberoari ta izerdiari kontu eman ondo lo egiteari jaramon egitea. (19.)

Odolkentzeak, sangratzeak 1914. urtea baino lehen egiten ziren, eta martxoan egiten. (21.)

Zuberoako uren erabilera. Etxeko amona Gaskoinako Akizen (fr. Dax) (22.) eta aitona aitona Ahúzkin (78.)

Bentosak, berak praktikatu dituela armadan eta kentzean eskarifikatzen zituela. (23.)

Pürga: gatzur (urgazitu) eta olio

Aztikeriez (begizkoaz, behargabeaz, igar mezaz) ez dakite ezer (28.). Halere gaixotzen zelarik, lepoan medailak eta argizai benedikatua piztu egiten, dio etxekandereak. (28.)

Debozioak. Urdiñarbeko San Gregori, gor zirentzat. (30.)

Petrikillo bitxia. Ezpeize herriko abadea, Erdozaintzi izeneko be-nafartarrak gauza arraroak eginarazten zituen. Etxekandereak dio nola besoa gelditurik migimendua itzuli zion, aste betez, ardo sendo mozkozteraino eradanaz eta janari batzu kontseilatuz, geroko astean ura baizik eta alde-rantzizko janaria. (30.)

Inbidia txarra edo gehiegi desiratzeaz. Berriemaile etxeko jaunaren aitona ez zuen Ezpeleta bere artzain laguna arditegi, behitegietan sartzen uzten, ezen abere bat "inbidiatzen" bazitzaion eta ez saltzen, animalia hiltzen baitzen.

Bide kurutzetan paper batetan zerbaiten uztea minaren galerazteko oroitzen lausoa daukate. (32.)

Minaren albotik argizai piztua pasatuz senda ditakela esaten zen. (31.)

Txingola (zona) nola sendatu zion, berak edukitako batek, baratzaren, hortuaren ingurua zazpi bider eraginaz eta ibiliz gurutzea eginaz, marmar otoitz bat esanaz gizonaren atzetik, gaixoaren atzetik sendagileak sorbaldak eskuekin

hartuta, eta esku batean oihal beltz bat inarrosiz. (34.) Mintikile herri auzoan gertatu zen.

Eguna, orduak sendabidetarako. Ez da egunik baina goizean eguzkia jaiki baino lehen eta gauean sartu ondoren.

Ungentu edo gantzugailua. Erredurentzat amonak, edozeinentzat, auzoentzako ere egiten zuen arraultz gorringo, gehi olioarekin. Etxekanderearen etxean, gauza berdinentzat igeltsu ura olioarekin.(38.)

Sukarra zenean izerdierazteko. Odol belar edo malba osto tisanak (101.) eta ez edukizteko, mihilua baratzekoa (39.) gonan josita.

Tuberkulosiaren oroitzen etsitua daukate. Erremediorik eza, eta iraunaraztea ondo jatera emanaz. (42.)

Odol ahuleziaren gatik; ardo eta arraultz gorringo. (44.)

Odolaren garbitzeko: purgatzen. (45.). Goitikaren arrazoinak, gizonak: hotza, janaria; andereak: alkohola. (46.)

Behitikoaren zubererazko bi gaitzenez txisteak kontatzen. (47.)

Zizarientzat: erremedio zaharrik ez dute aipatzen (48.49.)

Este gogortuarentzat, gizonak haurrentzat ematen du XVIII. mendean zubereraz behientzako artamendatzen zena, alegia porru olioztatua ipurditik sartzea. Andereak malba aipatzen du.

Gibebeko gaitzak ezagutzen dituzte, minhoriaren sendatzeko gatzura (esnearena) erabili ohi zuten, gero zirots hori ez omen zen sendatzen. (52.)

Pleurita, nola aitak arrapatu zuen hozbero batekin anekdotaz kontatzen du. (54.)

Etsipen gaitza, depresioa, barneko gaitzak, senideko gaitza da (58.). Anekdotak kontatzen ditu.

Hazkordien euskal izena ez daki nahiz zaharra izan ezen frantziar tartean fabrika batean lan egiten zuelarik eduki baitzuten, oinetan hotzez. Labe batean oinak berotzen zituen eta gantzarekin igurtzi egiten.

Haurren sukarra beste zizareek emana, nahiz handitzeak piztua diteke. (63.)

Marrukak (verrugak, gariak, katxak). Gizonak dio belarra badela hortarako (*Chelidonia majus* L.) holako izerdi horia daukana, andereak uste du sinesteak, sendatuko delako sinismenak ere laguntzen duela.

Txita begia (Beatzartekoa) ur beroan malgutu eta moztu, doloretzua. (66.)

Herpes-a ezpainetara dator eta nekatuta dagoanari. (69.)

Mandoen, hotzak eragin minaren galerazteko argizai urtua gainetik ixuri, ttantaka. (70.)

Garsoiltzea, garbaltzea, aitona hala zeukan, bera berdin eta semeak ere (ikus J. L. Davant euskaltzaina) hori odolean, senidean daukatela diote. (71.)

Konkorrak, ez du erremediorik sortzekoa da, jendeen trufaz diote "bizkarrean opil" bat daukatela

Urterminak, haurrari, humeari lehen urtean buruko larruan agertzen zaizkion gaitzak. Zabalain etxe hortan etxeko nagusiak zeukan arreba bati hiru hilabetean gertatu zitzaion eta hortik itsu geratu. (77.) Urrunago esaten du sasi-sendagile batek mina kentzeko ordez sarrerazi ziola.

Erreinetako minetan, bereizten du, bizkarrekoa eta bestea giltzurrintakoa, azken kasuan nekez txis egiten baita. (78.)

Tetanosaren bildur zaharra aipatzen du. (80.)

Begi sendatzaile petrikilloa. Onizepe herriko Bonnat sendatzaileak begiko txuria galerazi zion etxekandereari. **Urzobelarra (Lotus corniculatus L.)** Belar harekin sorta batzu erre arazten zituen, gaixoa belauniko edukiz, gurutzearena egin, argizaia piztu, erretako loreen eta ostoen errautsa begietan ipintzen. Hirur bider joan zen, aldi bakoitzean, eguzkia jaiki baino lehen eta gabeen eguzkia sartu ondoren. Belar hortan, arraia txuri eta arraia belzdunak badira, batak gizonentzat besteak andereentzat..gero otoitza esaten zuen. (81.)

Etxeko itsuaz, arrebaz, diote nola abotsetik ezagutzen zituen jendeak eta harrigarriko oroimena zeukala, noiz non jaioak, ezkonduak hilak ziren auzo herrietako jende askoen oroimena. (84.)

Etxekojaun eta etxekoanderea oroitzen dira nola aintziña ez zen dentistarik eta hola sasi-haginkentzaile bat bazela herri gehienetan, haundientzat, eta haurrentzat etxetan egiten zela (88.89.)

Hagina irteten laguntzeko. Lino oihal busti batekin igurtzi egiten. (88.)

Arantz eta ira zotzak ateratzeko larrutik, azaletik urdai gatzik gabekoa gainetik ipintzen. Urdearen, txerriaren mina, gaitzaren gainean ipintzen ikusi du jaunak. (91.) Ez didate herri auzoko Mintikileko Espil, Donostiako Baionara autobus gidariak esana aipatu, ez dute ezagutzen alegia suge larrua oloiz bustita erabiltzea, arantza sakonegi denean.

Gorra. Zabalain-eneko nagusiak dio erdigortu egin duela sendagile batek belarria garbituz. (93.) **Motela** gehiegi edanaz edota bildurrez daitekela.(94.)

Odolaren geldierazteko etxekandereak urgazituan leku zauritua sartzea on dela dio (95.)

Zakur ausigia, ozka, ur eta ozpinez garbitzea. (96.)

Sugearena. Berari gertatua kontatzen du, salto bat egitean ustez eta arantza izista zeukala etxera sartu, mina ohi baino haundiago, eta bi haginaren markak ikusi, baina **bipera ez** izanki, eduki zuen tetanos indizio berriarekin ez zuen arazorik eduki. (97.)

Erlearen esperua, eztena kentzen eta ozpina nahi-nahikoa baina liztorrekin ez: sendagilera eroan zuten semea, behin liztor kabia bat makinaz ebaki zuenean. (98.)

Ezur zuzentzaileak. Herri auzoko (Mintikileko) anderen bat aipatzen du, gero Agerre ospetsua, Izurakoa. (99.)

Itoarekin ez dakite zer egin, **urkatuarekin** baieta ondo. (103.104.)

Pozoatua, benenoa goitikaz botarazi, baina esnerik ez eman. (107.)

Loditasuna, ez da osasun seinale (hitzegiten duten senar-emazteak ez dira honela)

Petrikilloa gaitzizenez "Jainko Txikia" baita behin gaixo batek mediku bati holako baten gana ibili zela aitortu zion eta harek erantzun "orain Jainko Haundiaren" gana joango zara. (116.)

Emagintsa errezeta bi. Ondokoak ez zetozenean suko hauts eta urez egindako tisana eradan, eta sabel azala botola batekin oratu."aizeen kentzeko" (114.)

Gaitz txikiekin, ez zen medikua behartzen, ez ikusten, bakarrik ixtripu larri eta kutsu gaixotasun haundietan. (115.)

Andreen menopausia. Emakumea odolgelditu ondoren ez zen zaharra moduan ikusia, lanerako behintzat beti gazte, gero naski aurpegi gorridurak, flakeziak bazituzten eta badi-tuzte. (119.)

Humeen jaiotza, erditzea. Ez ziren aintziña lanetik gelditzen eta lanean, larrean, basoan, behitegian belauniko jartzen egiteko. Gero astebete etzanda egon eta aurretik ondokoak (plazentak) ateratzen zirenez begiratzen. Haur jaio berrian oilo salda kanpo ez zuen ezer jaten amak. Ninia ur epelean garbitzen, hestu-hestua troxatzen eta barrua, esteak hustu arte ur asukratu ematen, gero azkenik amaren bularra. Aintziña andre asko hiltzen zen, haurrak ilortzen, eta ez zen oraingo moduan emaztea garbiki edukitzen, atsedean hartzen uzten, ez eta errespetatzen alegia gaztea zela. (122.)

Haurrak galeratzen ziren. Baina ez zebiltzan leku gutzietan goratik kontatzen. (123.) Orohar Zabalain-enean bildu ditugunak sendakuntza zaharreko gauzak dirak, fakultate medikuntzaz kanpokoak eta segurantzarik (sécurité sociale) delakorik ez zen garaikoak. Garai haietan, orduan, sendagileek ere ez zeukaten sendagailu askorik, eta herri-sendakuntza, etxe-sendagintzarekin batean, gehienetan, ballapideak ziren.

Zer egiten zen lehen, bedezia jinerazten ez zelarik eta ezpeitzen "Sécurité sociale"ik

Marti DAVANT "Zabalain"i

1. Zoin ziren eritarzün ezagüenak, bronxita, marranta sühartüak, aita üken züan "pleurésie" bat, nik hemeretzü hogeï urte nütilarik (1), anaie gazteagoak hamabost urte ama egon züzün aitaren kantüan, gük bedaka egin (2)

(Probenistea bazena heben gainti?)

Nola. (3)

(Potrinaide bazena? (4))

Aitaren arrebaren senharra hala züzün, eta arrebak hartzaman gazterik hil, aita egon züzün dütor, haur heentako haurrak minür beitziren (5), ni pottiko nüdüzün ordüan. Hemen funtsak beranak bezala joanarazi, beitzütien etxetiarrak (6) aita orotaz oküpatzen.

(Nola ezagützen da? Eztüla..)

Sabeleko minik bazena?

Idorreria, eta lasterreria.

(Errabiarik bazena? (7))

Txaküurretan ümen züzün (8), jenteetan eta kabaletan (9) ezti ikusi.

(Min bizia?)

Bakant eli batentako aipatzen zizüen, lehen. Haleikere ene gazte denboran ezti ikusi orai bezala jente gazteak, berrogei urtetara gabe; ene denboran hirutanhogeï urteez goiti zütüzün hiltzen, hazartaz kanpo (10)

(Bihotzeko minak?)
 Etzitizüen orai bezala aipatzen. Aita 83 urteetan eta ama lautanhogeita bederatzitan, hil ziren.
 (Griparen lotsa zirena jenteak (11)? Beldür zirena?)
 Gripa itsusia izan zen hamalauko gerla denboran (Etxebarre Zunharretan eta herrian ezkinizün izan. Aspaldian ez düzü izan.: amdereak)

2. Bilhoen koloretik ezagüten ahal dea norbait eri dela?

(Bedeziek gük beno kasü haboro egiten dizüe: anderea)
 (Larrüan ageriago düzü, larrüa kolore xuri, zurpail düzü potrinaideak)
 Bilhoa gazterik xuritzen delarik zer marka da?
 Eni erori zitazün, aita ere hala nizün. Odolean düzü (12)

3. Begietan ezagützen ahal dea norbait eri dela?

Eritarzünik gabe begia bera eritzen düzü, bestelan ezta-
 kit.

4. Bepürüetarik?

5. Berhexten zirena lehen kozüz, ustegabetarik, meskabüz, berez heltzen ziren gaitzak?

Zonbait aldiz operatü behar zelarik, zer zen ezpeikenakien. (13) Baionan bi xirurgien (14) famatü badütüzü, Delay eta Lafourcade, bi izenak ene gazte denboratik ezagütüak. Geroztik Olorueko Lafitte hori bena etzen hainti (15)

6. Jiten ahal dea eritarzüna jenteen temperamentütik?

(bai: andereak)

7. Eta bizitzeko maneratik?

Lehen ez hanbat jatekotik arraroago beitziren.

8. Zertarik horra dira ametsak?

Gogoa beti ari düzü lanean. Hanitxetan egünaz agitü zerbait...bena ametsa gezürra dela erraiten dizüe, nahiz eta zonbait aldiz ez...

Amets gaitzoak egiten direlarik, zertarik?

Ez dakit ez...

Ametsetan ez zira beti dantzan eta poztariotan (16) amets gaitzoak ere badütüzü.

9. Norbaitek ürxein egiten düalarik (17) zer pentsatzen da?

Lehen hon daizüla erraiten zizüen eta frantsesek ziozüe ez dela deus erran behar hortaz ez ohartarazi. Aita zenak tabakoa prisatzen zizün (18) eta tabakera izigarrizkoa bazi-
 zün, "s'il vous plait", eta gero jenteak haidürü (19) zirelarik eliza aitzinean eskentzen ziezün zera eta hartzen hanitxek, ta ez züelarik üsantxarik (20) prisatzeko ürxeinez hasten ziren eta hura erriz, erriak iraüllirik (21).

10. Zer erraiten düe jenteak gaüzko aideaz, aizeaz, hobeago dela, txarrago dela? Zer?

Horietan ere bada jente, batak pentsatzen beitüe batala eta besteek bestiala. Hortxe beitüzü Anixet Irabarne,

Gamereko seme bat eta harekin aiharitan (22) nündüzün hunen anaiaeren etxen, bestaliar, ülhüna (23) hüllantzen ari (23) salan beiginen, leihoa zerratzen dizü: baiezi (24) gaizto zela.

11. Behardea leihoa zabalik ützi gaüzaz kanberetan?

Zonbait zabalik ützen ditizüe, aidearen kurriazteko (25) hon baizik ez düzü. Gurea üsü zabalik düzü

Eta egünaz?

Zü, zuri zer üdüri zaizü (nik ez dit deus erran behar Tx. P.) zabalik?

12. Badea oihal edo arropa süerte, osagarriaren etsai direnak? Althe eta hon direnak?

(Lehen erraiten zizüen lía hanitx hon zela, (26) ilhea ez hain: andereak. Khamüa tzar ..zindrea emaiten.

Eta zindrea zer da?

Zindrea (27) erraiten dizügü gük: harentako erraiten dizüe kotu arropa behar dela (28) larrüan, ilherik ez . Zük diozü txingola . Guretako txingola "dekorazione" ari erraiten dizügü ez eritarzünari.

13. Zertarik horra dira eritarzünak?

Paralisia bat horra delarik ere, erraiten dizüe, edaten züa-
 la, bena batere edan gabe zonbait horra ziezü (29).

Kuzka batek zerbait egiten ahal düa?

.....

Kozüa zer da?

Batetik bestealako hori (30)

14. Badea dolorerik osagarri seinale dena?

Lehen errematima zahartzeko marka zela erraiten zizüen, bena gazteetan ere agitzen düzü. Ez, ez bestelan. (31)

15. Zer jatekok ogen egin dezake (32)?

Diozüe bedeziek, jateko oroek ogen egiten düela sobera hartzen bada.. edari sobera kalte düzü..aragia bardin kalte..sobera gaüza orotan.

16. Badea jatekorik barnea freskatzen düenak edo barnea berotzen?

Ardo honak bai, gero aragiak ere berotzen. Freskatzeko erraiten dizüe "glace"a (33).

17. Norbait eritzen zelarik lehen noren gana joaiten ziren aholküka?

Sosa bazelarik bedeziaren gana. (34)

Eta ez zelarik?

(Aitzain ja ene herrian bazütüzun emazte zaharrak (35) tisanak egiten bazakienak eta aüzoala baguntütüzün (36); andereak).

Gero eritarzüna serioz zelarik ez züzün sos eskaz izanik ere so egiten (37). Nik aita üken nizün, 72. urteetan paralisa-
 tü züzün, eskuineko aldetik gero eta.... bedezia jinerazi, eka-
 rrazi Heugas (38) soeñatü (39) eta harek ez zela deuse egite-
 rik, eta joan nündüzün arotzeala (40) behi ferraraztera eta Ligiko züzün arotzaren emaztea, Lestelle senharra..

(Bai ene izeba Maddi Carricaburu zena züzün, Tx. Peillenek).

Erran zitazün aita nola zen eta bedeziak ützi züala ez zela arra jiterik (41) harek bazela armadako bedezi ohi bat erre-tretan (42) hanitx hon zena, zertarako ez dük ekarrerazten erraiten ditazüt arotzak. Ekarrerazi nizün La Molinerie bedezi hura, ez dakit zer erremedio eman zion, bena lehen bazüzün labamentü: pintu hur bat herakiarazirik, zerekin, egin eta sendoarazi zizün. Utzirik zerak Heugas-ek (43), Maddia arotza-ren emaztea, heben izan düzü emazte hura peskatze txotx-kan, enpeltü egiteko, izigarriko enpeltü egile (44) züzün emazte hura. Emaztea, gure etxekanderea behien ferratzera ibili züzün eta emaztea etxera ondoko (45) sübitoki hil züzün arotza.

18. Jentea hobekitzen delarik zertarik ezagützen da ari dela sendotzen?

Alageratzen, begitarteko kolorea, so egiteko manera jateko inbeia (46).

19. Eritarzünaren hürrüntzeko zer egin behar lite?

Hotzberoari kasü egin behar. Izerdi zirelarik khanbiatü, hanixko gaüza.

(Ontsa berotü delarik ez hur hotzik edan batetan: andreak). Loa ere badüzü, bena badütüzü beren nahiz lotzen (47) ez direnak eta logabezia. Eztakit ez.

20. Osagarriaren azkartzeko zer begiratzzen zen etxeetan, edari, erremedio, jateko? Erreserbak?

(Eztit orhit, (48) badüzügü bai, gure gisako farmazia txipi bat, oraiko zerekin: andreak)

21. Egiten zena odolidokitzerik seiñatzerik (49)?

Amaren anaia Sahores, bena urte oroz seiñatzen zen Martxoan, hamalauko gerla aitzinean züzün.

22. Lehen maiñürük eta hurtatzerik egiten zena (50)?

Bai, bai

Ebili zira hurtatzen eta maiñatzen?

Ez, ez ama ibiltzen züzün bai Akizera (51), zernahi ikusten beitzüen larrazkenean errematismeeekin hanko maiñüetan egoiten züzün, ordüan, eta ez zizün hala sofritzen.

23. Lehen ezarten zirena godaletak (52)?

Bizkarrean, eta etxekandereak egiten, bena nik ere erauntsi dit, armadan, zerbütüan lagun hanitxek erraiten zitazüen "Martin tu nous mets les ventouses" uata mitxa bat egiten zünüen, pizten (53) eta hartan barnen ezarten (54) klask pausatzen larrüaren gainen harek odola tiratzen zizün larrüala, beltz beltza jarten.. gero godalet jelkitzean, idokitzean hala hala ützen, bena ikusi dit soldado beltzer, pikoñi baten egiten odolaren jelkarazteko (55), "ventouses scarifiées" deitzen zitizüen horik. (56)

24. Goiti arrandatzeko minez delarik zer egin? Goitika-ekin zer?

Zonbaitek erhiekin gíngila hunkitzen (57) bena ez dit ezagütü edari emaiterik hortarako.

Zerentako bortxatzen da hola egitera?

Zerbait kontre hartürük eta haren urtukitzeko. (58)

25. Lehen pürgatzen zinden? Gibeletik ala aitzinetik? (59)

Zonbait aldiz, gatzurarekin eta "huile de ricin" (60) olioarekin. Ez bazinen trenpüan (61) hartzen zünüan (62) pürga.

26. Badakizüa zer den "hoin-ithoia"? (63)

Ez dit ikusi, entzün bai (behin ikusi dit bat, ez zitazüt ohartzten (64) nun: andreak). Bekan beitzen (65) "flebita" bai entzütea badit, txainkeria (66) emaiten dizü harek ere.

Belaüneko ixurtea? (sinobia)

Ez dit ikusi, ez dakit zer den (ez nik ere: andreak)

27. Sinesten dea eritarzün bat begi gaiztotik jin ditekela? edo maradikatzetik?

Lehen uste zizüen bai, (andreak). Zonbaitek erraiten zizüen

So gaiztoaren egiteko zer egin behar da? (67)

Lehen bazüzün holako, nik ez dit ikusi ez zitazüt agitü: andreak.

Eta eihar meza zer da? (68)

Aipatzen zizüen bai, lehenago.

Behargabea? (69)

Entzün bai, bena ez dakit zer den: andreak.

Bazena erremediorik so gaiztoari?

Lehen hanitxek meza erranerazten zizüen. Medaila ezarten ginizün (70) ama zenak ezko benedikatüa har (71) eta zerbait egiten eta erraiten zizün: andreak.

28. "Contagion" nola erraiten da eüskaraz?

Kozüa (biak)

Zertarik jiten da kozüa?

Aidean eta hurean. Aidean düzü beharondoela (72). Paratifoida, elkarren ondotik üken ginizün arrebarekin . Gero debetatzen ziküzüen edatea sükkararekin (73).

29. Sendotzeko hitzamaiten dea debozinez joaita eta norat?

Zoin eritarzünarentako ez dakit, Urdiñarben San Gregori bazüzün; andreak. Gorrentako: jaunak. Sarrantzen izan nüzü debozinez bena ez eritarzün batentako.

Erdozaintzi apezaren entzütea badüzüia? Ezpeizen apez egon zena, haren iloba Manex Erdozaintzi fraidea eztizü aspaldi gazterik hil dela, osabak sendorazten zitizün eriak (74), droleki, errejima emaiten zizün (75). Aljeriako ardua emaiten zeizün inbeia züniana oro, ez zünian besterik edan behar ez hur koterarik (76) ere bortxatü zinen edatera, aste batez, bederen, eta haboro (77) gero hura kentzen eta (h)ur (eta oillabar tisana edanerazten: andreak).

Besoa eküratü zitazün (78) eta erran zitazün eñherik (79) nintzala, pausa nendin; beti ber gaüza ez pürki eküratürük (80) eta ez deusetarako baliatzen. Joan nüdüzün harengana. Errigei izaten ahal zinen, (81) mozkortzen beitziren sekülan edan ez züenak. Jatekoan ere egün batetik besteala, kontrarioak egin behar züntian: andreak.

30. Keinü eta jesto eta oroitzak bazirena sendotzeko?

Bai, lehen, bai: andereak. Ahazten beitira, hunkirik (82) denak ez, bena gük bai.

31. Desiratzenegiak eritzen ahal düa? Kabale ala jente?

Bai desira gaiztoak bai. Entzütea badit, kabaleekin eta jenteekin: andereak.

Bai, Ezpeleta beita ene olha-lagüna, harekin erosi (83) dit olhaltea, haren aitaña ala arraitaña (84) ezagütü dit txipi nintzalarik, bena ene aita zenak ez zizün nahi gizon hura gure barrükian sartzera ützi, kabale bat inbeiatzen bazeion eta ez bazeion saltzen, hiltzen züzün. Inbidia gaiztoa zela erraiten zizüen (85).

32. Galerazten ahal dea zerbait lurpean ehorztez, (86) urtukitzez, min bat)

Bide kürütxe-ünetan paper batetan zerbait ezar eta süperstizioa züzün... intenzioa bazizüen pürü (87) (marrükentako entzün dit holako zerbait: **andereak**) (88).

33. Xahatüz eta fretatüz min bat galeraz ziniro? Zoin?

Bai, erraiten zizüen eskoa piztürrik, potere züala (90).

34. Zerbaiten petik igaraitez ala gainetik egitez senda daitekea?

Lehen bazütüzün, ni haur nintzalarik, ehia zerbaiten gaiñetik igaran arazten züenak, sendorazteko: andereak (89).

35. Zerbait hürrun urtikitzez, idortzera edo tzükatzera ützi?

Jaunak: ez dakit. Andereak: bai asünak bere fleita badi-zü, aitzinetik erran behar neizün (ik. 33. galdera). Jaunak, bai orai orhitzen zitazüt (30. galderari erantzungo du)

Jente zonbaitek sendotzeko potere eta orazione badizüe so'izü ene begiko xuria sendorazi züanak: Jaunak. (Andereak jarraitzen du): senhar horrek üken dizü düala biz-pahirur urte "zindrea" bizkarrean; ez genakizün zer zen, mina züala baizik eta oro arakeitürrik (91) bezala zizün (senharrak: ezpeinüan ikusten, bizkarra oro gerriko-alarino hala nizün, hunaxeartino - keinu eginaz -). Gero erran niozün biga bazi-rela bata Undürainen beste bat Mintikilen eta nahi zeneala joan zedin, erran niozün.

Eta nola egin zeizün Marti?

Otoitzeak erran, baratzeko taula bati üngürü. Aitzinean jarri nindizün eta haren esküak soinean (92) nitizün (93). Eskü batean oihal beltz bat etxekitzen zizün. Baratzean xenda eli bat baitziren kürütxe (94), taula baten üngürüa eginarazi zitazün, zazpi aldiz, bera ondotik, gibelatik eta oihal beltz bat beitzüan esküan hura iharrausten zizün. Otoitzez ari züzün, ahapetik, ez dakit zer mintzajetan (nik ere ükenik dit (95)..ez düzü ezagün: andereak) gero aldi bakotx ekürazten (geldiarazten), eta berriz abiarazten. Itsusi nizün..gero eta..sendorazi.

36. Eri den günea mesüratzez sendotzen dea?

Ez dit entzün holakorik.

37. Soinean egarten dea zerbait sendotzeko?

Ez dakit

38. Zoin da egünik hoberena astean erremediatzeko?

Ekhi jelkitzean edo eki sartzean behar zela (96) ziozün Mintikileko harek, bena ez zizün eta ez dizü harek erremediarik emaiten. Ez düzü egünik, egün oroz behar delarik: **andereak**.

39. Zertarako izertarazten da? Eta nola?

Ohean etzan eta ohestalgi sobera ezar eta (bere bronko-pneumoniaren ondoajekin, negüak oro igaraiten zitizün eri eta ordüan izertarazten nizün ezpeitzen orako erremediarik: andereak)

Eta zerentako ?

Sükarraren erorazteko: jaunak.

40. Bazena ünküte eta gantzügailürrik, larrüa fretatzez (97) sendorazteko?

Ikusi dit nik ama zenari, norbait erratzen zelarik eta hantzen, egiten zizün arraultze gorrinko ta olioarekin holako pomada bat eta sendorazteko: jaunak.

Nik ezagütü dit latsün hura olioarekin: andereak (98).

Sükarra zertarik jiten da? (99)

Eritazüna abiatü ondoan jiten zaizü, zombait aldiz, mikroba odolean beita hala düzü, odola düzü berotzen.

41. Sükarra bazelarik zer egiten zen?

Izertarazten. Eta bedezia ekarrerazten zelarik kaxet (100) handiak..bestelan tisana..marrantarentako kaparraosto tisana: **andereak** (101)...odolbelarra eta malba ere: andereak. Ama zenak kotaren aspilküran ezarten zizün malba osto idor; andereak: ez, ez züzün malba baratzeko mühüllüa (102) züzün; jaunak: a bai arrazu düzü. Ez zitazün agrada ürrin hura ez eta Ricard alkolarena ere ez. Kolonietarik eltxotarik biltzen zitizüen zonbaitek sükarrak: jaunak.

43. Nola erraiten da eüskaraz "coqueluche" (103) ?

Ez dakit kokalüxa.

44. Eta probenistea zer da?

Haur nintzalarik uste dit potrinaideentako erraiten zizüen.

45. Zer egiten ahal da probenistetik sendotzeko?

Deuse, etzizüen egiten..üzten hiltzera..eta zonbaitek lüzazago etxekitzeko ontsa jaten (104).

46. Südürretik odola galtzen zelarik zer egiten zen?

Ni haur nintzalarik etzütüzün hanitx arrenküratzen; etzizüen deus egiten.

(andereak: semeak bokanasak odolez betatzen zitizün üsü) (105).

(Jaunak Heugas bedezi horren aitak ziozün "bürüa altxa eta hortik tinkal!" Zerbait hotz lepoan ezar harri, giltz zer nahi).

47. Zer emaiten da odola ahül delarik?

Ardua ta arraultze gorrinko.

48. Odola gastatürrik eta teiü zelarik?

Zombait üsü pürgatzen düütüzü estakürü horrekin (106).

49. Estomaka nahasirik delarik?

Jatekoak nahasirik, goitika jiten. Hanixetan hotza destrenpü baten ondotik:andereak. Alkolak: jaunak.

50. Nola erraiten da beheitikoa, lasterreria?

Gük elkitea. Behin emazte bat joan züzün bedeziala ta erran ziozün

"Elkitearekin nüzü (107)

"Egon zite barnen" harek (108).

eta beste batek

"Lasterreriarekin hizala?

Ebil hadi baratx ((108)

51. Zer ogen, zer kalte egiten deie haurer xixariek (109)?

Zonbait aldiz goitikako zera ere, estomaka nahasten... (eta enheatzen: andereak.)

Eta zer egiten zen heen galerazteko?

Ene haur denboran, bunbu xehañi eli bat (110) paperetan barnen zütüzün hurak, bena etzüzün etxe erremediorik. (Lehen bedeziek erraiten ziküzien haurrek lürra hunki artino ez züela xixaririk, lürreko zikinkeriarekin biltzen zitizüen: andereak).

52. Idorreria zelarik, sabela gogortürik, zer egiten zen (111)?

Lehen olioan porrü bat trenpa eta haurer gibeletik ezarten (112)...: **jaunak**. Malba ere bazüzün hortako: **andereak**.

53. Barnearen ezitzeko goitikaren ondotik zer egiten?

Zonbaitek deuse ezitzüe nahi: jaunak, Tillul (ezki) tisana: andereak.

54. Gibeledko eritarzünak, gibelaren gaitzak zertarik jiten dira?

Gibel mina elkitzen dizüe? Alkola arauz.

Iloba bati gatxura emaiten ziezün minholliarekin (113): andereak

Zirosa ere badüzü edale hanix ehaiten düanak (114) eta orai lehen beno haboro...ez düzü hurarekin agitzen üsü.

55. Iktera?

Eztakit zer den.

56. Hozten delarik eta eztülez hasten nola deitzen da destrenpü hori? Eta zer egiten?

Hotzberoa. Salda eta tisana beroa.

57. Eta saihets pünta? Zer egin? (115)

Lasterka zalegi eabiliz ..Baratx egon eta pausatü behar dizü ez (116) düzü besterik. Badüzü beste pünta bat bizkarean jiten dena, aitak üken zizün "pleurésie"a, eta badakizüa nola agitü zeion: Lehen ogia (garía) mozten züelarik üngürü üngürüka hasten beitziren, joan züzün orai bezalako bero animal batekin arrestiritan, daillüarekin aisa ari beitzen ibide (117) moztera; eta mozten ari zelarik erretora agitü etxeetan ebilten beitzen haintxe-hortxe, ontsa berotürük jin harekin etxera, züzülüan - hortxe beitzen züzülüa - jarri eta batere

kanbiatü gabe izerdi animal harekin egon ta ordüan pleuresia hatzaman (118) hortik.

58. Bürüko mina zertarik jiten da?

Emazteari galtezaiozü izigarria sofritzen dizü eta üsü, bedeziak erraiten diozü ez diola deus emanen (mingrana dela bera igaraiten dela:**andereak**). Etzanik egoiten baniz igaraiten zitazüt, igaran astean (119) orano agitü zitazüt.

59. Bürhüngürü izatea zertarik horra da?

Hanix gaüzetarik, ezpeitakit. Zonbaiti bürüa nahasten ziezü goregi direlarik hütsaren alde ganean.. (Ez senharrari ez: andereak)

60. Zainetako minen erremediorik bazena? Deprezio-ne malenkonia?

Orai, malenkonia deitzen dizüe norbait beti eri dela plañitzen (120) delarik "Hori oro malenkonia dük hori,!"

Jente etsitüa?

Bizpalaur segidan agitü düzü herri aüzoan Undürainen, beren bürüak eho beütütie (121). Barkoxen Safores bi anaiak, Mintikilen Althabe Sohütan haren emaztearen anaiak tiro batez, Althabe bere bürüa ürkatü, txilintxautü (122).

Eritarzüna düzü. Eztakit erremediorik badenez, malerus heentako (123) bena so'izü, hortxe Undürainen, banizün Davant kosí lehen bat (124) eta Karrikako nausi zen, Arñoren emaztearen ahizpa txerkatü ziezün (125) emazteetako, eta bera gerlako "mutilé" (126) bat züzün, gizona ezkontarazi nahí zizüen. Egün batez Undürainera jin arrebari erraiteko ezkontzen zela, eta etxen ofizialeak bazitizün berritzapenkan, heen bazkaria eta oro prestik ützirik, harginentako, fristafris-ta Uhaitzeala (127)joan eta bere bürüa urtuki eta ito zizün, gizona, ene kosia kontrariamentüz? Beste bat ere, gizon serio bat Bitál harek bere bürüa ito txapeletak esküan (128) Horiek barneko gaitz bat badizüe (andereak: anaia ere ez zena hala hil?)

61. Zer izen emaiten zaie bürütik nahasier?

O gaixoa, erhoak, ertzoak. Eta zertarik horra dira eritarzün horik? Bagenekí, nur nahiri agitzen ahal ziozün, lotseria batetik, xangri bateti nurk daki? Eta erremediorik eztit uste badenik.

62. Nola erraiten da eüskaraz la Danse de Saint Guy (129)?

Ezpeitüt entzün

63. Mozkorkeria nola senda?

Bai, ezpada alkolik, bai, bena alkol deno, sekülan. Soeñatzen artatzen, ebilten dütüzü eta berriz hasten. Eztüzü hoberik. Nik ere badit küñata, hala, motiko azkarra, beste bi anaiak ere ber familian.

64. Negüan haurren eta gazteen larrüa (azala) gorritzen, erdiratzen delarik nola erraiten da, "engulures"?

Anjelürak (130) (andereak: ez hazkordinak) Aita zenak zernahi ikusten zizün hotzetik - ni lüzaz Maulen egon nüzü

apendiz eta ezpeitzen berotzen etxeetan ez lanean, zankoe-tan üken nizün eta "fourneau"an (labe) beroan ezar eta arra jin (andereak: gero urinak hon egiten dizü gisala).

65. Erorteko mina, agitzen delarik zer egin behar da? Zertarik jiten da?

Amak Behin agitü zitazüt. Ni haur nündüzün (131) orano zer nüan 13 urthe, behi eramaitea banindoazün (132) han, Altzai-n züzün (133) beste neskatila bat banizün lagün behien eradateko; hura behiekin aitzinaxago (134). Haintxe berean bidean erori zitazün: harritü nündüzün, bahütsa (135) ahotik ixurten zizün. Lagüngoia txerka joan eta zapartakatzen zelarik, kasü egin ginizün mankha ez zedin eta aüzoek etzanik ützi zizüen arra jin artino (136).

66. Haurren sükharra?

Amak Zonbaitek uste dizüe "fièvre" a delarik, bethi xixariak direla, besteek ez

Aitak Haurrak handitzen direlarik ere halakutzen 'tützü ez tützü ontsa, tenperamentüa berotzen ziezü (137).

67. Larrüko txoriak eta otsoak.

Aitak Ardietan ikusten 'titzügü ardietan maxelan edo lepoan, materia (138) ere egiten ziezü, marrüka bat beno handiago dütützü hurak (139).

Amak phünta batekin zilatü behar dizüe (140).

68. Katxak, marrükak zertarik horra dira?

Zonbaitek esküak oro beterik dítizüe (odolak xahatü (141) behar ilkezü, **andereak**). Aña Abadie neskatila lagün bati furrustez jin ziotzün (142). Lehen müü zaharretan bazüzün belar bat hortarako (orai ere badüzü baratzeetan, **andereak**) belar harek badüzü sapa hollü bat (142) eta hori marrükaren gaiñetik igaraitez, galerazten dizü. Ene ustez odoletik horra dela (143) ageri düzü, badüzü nun ere beita mikroba.

(andereak: aski sinhesten bada eta belhar harez fretatzen uste dit berak eihartzen direla (144)), (jaunak: kabaletan ere horra beita (146) behin sabelpetan ikusi diet).

69. Larrüko txori edo otsoak erraiten beita..(145)

Gük **txitxa begia** deitzen dizügü. Debrüa erakutsi ditazüt düala bi urte txitxa begia jinik; aztaparkaz eta karrakatzez hur beroan ezartez (147) azkenean idokitzen, bai, hur beroan ützi, lüzaz mardotzen züzün(148) eta ordüan zati zati kentzen, gal artino, gero nola min egiten zeitan harek!

70. Ekimosi bati nola erraiten zaio? Zer egin?

Gük odolorika edo odolotü erraiten dizügü. Zer egiten? Deuse ez. Bera ez dea galtzen hura? (149)

71. Begi ta lepo hankürentako (150) zer egin?

Hala agi balekit, hotza, erabil nirozü (151)

72. Nola erraiten da herpes? Zertarik jiten da? Zer egin genezake?

Herpesa uste dit basasüia deitzen dela: asünak bezala errerik düzü jentea, ezpainetara jiten düzü..eztüzü eijer... (152) bena izan behar dizü akidüratik (153) horra den. (andereak)

73. Zoin dira ezagützen dütüzün beste larrümin motak? Nola galerazten dütüzü?

Hoiñetan negü hotzetan, bekan agitzen züzün: osaba Pette-k ezkoa hurterazten, berorik txorta bat gainen ixur arazten zizün eta gero txorta txorta aitzina, ezko epelarekin. Hurak **mandoak** zütüzün, esküetan uste dit **hazkordina** dela.

74. Bürüsoiltzea zertarik jiten da? Zer egin biloen ez galtzeko? eta berriz sortarazteko?

Aita, bürü pelat (155) nizün, nihaur hala nüzü, eta bi semeak hola hola, odolean izan behar dizügü, bena ezpeita eritarzün handia, hala hala ützen dizügü. Bürütik hotzpera-xeago gütüzü (156).

75. Biloen arra jinaraztea?

Entzün dit aipatzen. E'nüzü seküla hortzaz arrenküratü (157)

76. Biloen karakoilaraztea señalet?

Eztakit

77. Hoinetako izerdia?

Zonbaiter izertzen diren aldikal hoinetara ürrin (158) tzar bat jiten ziezü, eni ez (ez eni ere, andereak); zankoak xahü etxeki behar litiketzüe, agian (159)

78. Konkorra. Zer erraiten da konkorrez?

Andereak: Undüreifien (160) beitzen, Kharrika etxe horren kantüan Mahintzenea, neskatila bat bazüzün han holako, eta ziozüen bizkarrean opil bat bazüala.

Jaunak: Sortzaroz jiten düzü (161). Beste bat ere badüzü Mehatzeko konkorra. Eztizü erremediorik, ezin dizüe operatzen.

79. Erredürak eta kiskiliak? Galerazteko zer egiten da?

Aipatü deizüdan ama zenak egiten züala zer bat, poma-da arraultze gorrinko zer batekin, horrekin zertzen erraküra sendotzen; jiten zütüzün amagana (162).

80. Zoin dira haurren eritarzünak? Zer egin haurren zurrunpe, beharrondoela, barizela eta kokaluxa eritarzünekin?

Beroan, beropean etxeki (163) ahal bada ohean eta ez eskolara igorri besteak koza ez detzeen.

81. Zer dira haurren urteminak?

Arrebak hirur hilabeteetan üken zitizün eta hartarik ützü baratü (165). Lehen urtean agertzen dütüzü Dominikak, gure semeak, üken zitizün (Andereak: hura handiago züzün, ordükoz).

82. Erreinetako mina zertarik horra da? Nola sendotzen?

Erreinetako min süberte bat badüzü, akidüratik jiten dena, bena hori bizkarreko mina düzü; beste bat düzü gil-tzürrinetarik horra dena jenteeke ordüan nekez pixegiten

dizüe. Aitañiri (167) eta aitari entzün niezün erraiten, behin Ahuzkin - hanko hurek giltzürriña garbitzen beitüe - . Hara joanik, zer nahi ikusten beitzüan ezin libratüz, zortzi egüen bürüan, gaüherditan hantik, hoñiez abiatü zütüzün eta etxera heltü beno lehentxagoñi (168) libratü eta pixegin.

84. Haur opatü bat zer da? Nekez handitzen den bat?

Eztakit ez. Bena eztügüa gük "haur ükatüa" erraiten (169).

Zer egin haur ükatü batekin?

(Erremedio bazüzün: andereak) Norktxaki (170). Entzün dit bai, marlüz olio, (171) heben ez ginüzün beharrik. Nik paratifoidea üken nüalarik, lehenik jin ziozün Hastaran-en emazteari, Omizepekoari, gero eztit beste eritarzün hanitik ikusi aitaren eta amarenak.

85. Gangrena zer da? Nola erremedia?

Tetanosa dea? (Ez, tetanosa, delarik hatsa baratzen zaizü eta aragiak gogortzen, gangrena membre baten txüstaztea, hiroztea düzü (172) (Tx. P.) Motiko eli bati agitü ziezün brabantarekin (173) piko bat egin eta ez kasürik egin: **andereak**. Hamazortzi urteetan hil züzün tetanosetik motiko gazte hura Mintikile-n beste bat ber adinean Onize-n (174) hamazortzira urteetan: **Jaunak**. Orai pikatzen (175) ditizüe: **andereak**. Gangrena zer den ez dakit.

86. Zoin dira begietako minak?

Betezpalean **betarroa: andereak**.

Tzarrago düzü begian berean horra delarik **begiko xuria**: hura üken nizün. Bedeziak ezarrerazten zitzazün txorta eli bat (176) bena ez zitazün igaraiten (177); norbaitek erran gizon zahar batek zertzen züala, sendorazten Onizepean, Bonnat, eta harek sendoarazi: ürzobelarra beita (178), biltzen zitizün floka txipi zombait (179). Ni joaiten nintzalarik, prest zitizün han herrokan ni jarten eta hura belhaüko ene aitzinean, seiñatü ezkoa piztü, belar buket bat (180) har eta berozten zizün, hauts hartarik har eta ez dakit zombait buket. Hirur aldiz behar nizün joan, ekia sartü ondoan (182) gaüan, eta goizan ekia jeiki gabe, sendoarazi. Eta ürzo belar heetan badütüzü arrel xuri eta (183) besteak arrel beltza düenak ostoetan, batak emazteen eta besteak gizonentako düütüzü. Ez nüzü orhit zoin (184) haütatzen züan. Ez zitazün erakutsi egiten eta gero joan zenean, Pribat bedeziaren kosia Larrorin, mithila igorri zitazün ezinbestean beitzen ustez sendoarazten ahal nüan, bena etzitazün erakutsi eni nola egiten zen: ikusten bai, bena otoitzeak eta horik ez.

87. Begietako zikinkerien jelkitzeko zer egiten da?

Oihal busti xahü batekin. Bi ezpalak erabilkatzen: **andereak**.

88. Nola deitzen da begia xüxen ez düana? Zertarik horra da?

Begioker: Manexek erraiten dizüe "begi bakotxa"-rentako eztakit arrazu düenez. Sortzaroz düzü. lloba bat banizün hola etzizüen ikusi, nik lunetak (185) eroserazi nizkiotzün eta gero operatü zizüen. **Andereak**: alabadere itsusi zizün begia ere üngüratzen ziozün (186).

89. Utsü izatea zertarik horra da?

Arreba gehiena hala nizün, hiru hilabeteetan min gizona begitartean jin ziozün eta emazte batek sendoarazten beitzütüan, oro sarerazi mina eta haurra ütsütü eta lautanhogeitabost urteetan etxe hontan hil bere denbora oro ütsü igarainik: aita ta ama eta aurrideak (187) ez gintitzün ikusi. Esküekin hunkitzen gintitzün eta ezagützen. Botzetik edo. **Andereak**: dohain bat bazüzün behin entzün jentea mintzotik ezagützen zizün. Bai Mintikile-n nahiz Urrüstoi-n jenteak oro, erraiten zeizün holakoa noiz sortürik zen, zer adin züan, oro bazakitzen nor hilik, norekin ezkontürik).

90. Zoin dira beharritako minak?

Otita edo beharritako mina.

91. Zer da lepoko xerria, lepo handia?

Zure osaba Irabarnek bazüzün..bazüan.

Zer egiten galerazteko?

Behin hala zirenak etzirena hala egoiten?. Gordatzen Gure denboran bazakiena operatzen ere?

92. Haginetako minak bardin dira haurrentako ta handientako?

Haurer horra zaiea üsü? (**Andereak** bai bai sortzen direlarik haginak. **Jaunak**: gero hagina gaisto zirelarik ikusi dit hari baten ezarten eta tiratzen)

Eta minaren igarinerazteko?

Andereak: Haurer oihal busti batekin jentziba (188) fretatzen (189) hantzen zaielarik, "compresse"a gisa, li-oihalarekin egiten ginüzün. **Jaunak**: ez züzün agitzen, etxen zortzi aurride güntützün. **Andereak**: bai bena etzinen haur txipiez arrenküratzen zü (190).

93. Nork hortzak idokitzen zütüan?

Bazüzün bai basa-dentista horietarik, bat hilarazi gabe, heben bazüzün Bergeot (Altzai-n baginizün bat: **andereak**). Ahoa zabal eta klask, aligeta txipiekin (191). (Entzün dit bai, haria borta bati estekirik (192) eta borta danbaz zerratzen, eta hari bati txilintxau (193) ilinti batekin eteiten eta holako (194).

94. Nola lagüntzen da haurren hagin egitea?

Ez takit

95. Haurrek ohean pixegiten düelarik zer egin behar da?

Gure pottikoak orai hamahirur urte ditizü, lüzaz egin dizü, ohean. Nik gaüaz jeikiarazi nahi nizün eta bedeziak ez zela behar, eta bedeziak ez ziozün deus ez eman: **andereak**. Zer nahi düzü ametsetarik turrustaz egiten dizüe.

96. Elorri eta iratzotz txistekin zer egin?

Txarpa busti batekin hersi eta elorria barnen baratzen balin bazen (195), materia (196) egiten züzün eta harekin jelkitzen barnegi zena: **andereak**.

Anaie gehiena üsü zerbaitekin beitzen ikusi dit bai urdea ehaiten züelarik (197) txinkorra (198) gatz gabe begiratzen zizüen, oihal batetan mantetxean ützen eta beharra zelarik

hura ezarten (199). Nik aldiz ikusi dit urde mina (200) begiratzen eta elorria zen günean ezarten jelkiarazteko: **jaunak**. Anale gehiena beti txütxükan (201) ari beitzen, begiratzen zizüen gatzgabeko urina ere: **andereak**.

Eta süge larrüa?

Ez dit entzün (nik Mintikile Espileko semeari Uthurralt-i entzün diot, Baionatik Donostiara autobusa gidatzen düana-ri Tx. P.).

97. Zertarik jiten da mütü eta gor izatea?

Ni gor nüzü, esküineko beharriaz; behin beharri bata burrunbaz ari beitzeitan, bedeziaren gana joan eta harek xahatü eta tinpana zilatü.

Moteltzea?

Sortzez edo txipitik pürü...mozkortü ondoan ere bai lotseriaz (202)

98. Nola ekürarazten züen (203) odola, zauri batetarik isurten zelarik eta galtzen delarik nola?

Gatzurean ezarten zizüen gure etxen pikoa, zauria, gatz prunki (204) ezar eta hartan trenpatzen (205) gero oihal batekin hersatzen, tinkatzen.

99. Txakür usikia (206)? Süge, erle, ülli ta eltxo txistekin?

Aüzoan bazizüen txakür bat izigarri gaiztoa, arreba bat banizün ni beno bi urteez zaharrago, hura manatü (207) zizüen, etxe hartara, eta lotsa zela txakurraren (208); nik to, ez nintzala lotsa (209) eta banoazü. Asünak beitziren etxearen aitzinean, heen pean gorderik züzün gorderik lo txakürra eta heu! zankotik zer usiki egin zeitan. Mina xahatü, hurez - ez dit orhit - bena segürrago binagrez (210).

Süge usikiarekilan zer?

Üken dit hura. Ez süge pipera, ez (211). Antitetanika egnik nündüzün, eta aski nizün. Uste üken nizün elorri (212) txista bat nuala, ez nündüzün berhala aperzebitü sügea (213) zela. Izigarriko mina üken nizün: seme gehiena - txipi enekin - baguntützün (214) xahal eli baten eramaitera soroala, sorotala jauzi xahala (215) lekü kontreal, eta ni ondotik jauzi eta arrolla bat beitzen elorri zerrailü (216) bat moztürük uste üken nizün heen txista nuala, sügearena nizün, segür mankatü nizü; aitzinara joan eta zer mina!. Bi hortz herexa banititizün, denboarekin igaran züzün (217) aitzina joan nündüzün, tetanos-arena ükenik nündüzün.

Eltxe, ülli, lozer, erleen txistak (218)?

Semea abantxü beretü zizüen (219) lozebiek (220) ari zelarik belar epaiten sorhoan, motürrarekin habia moztü (221), berrogei usiki. Emazteak bedeziara arrunt (222) eraman, han etxeki (223) pikürak egin ondoan etzanik, Etchebarre bedeziak erran.

"heureusement que tu étais fort" (224)

Iepoan txistatürük izan züzün, eta emazteak berhala eraman beitzüan, iruski (225). Ni joanik nündüzün daillearekin (226) beste soro batetara zer baiten moztera, beinakien ari zela epaiten (227). Ez dit ihur ere ikusten eta soroa patar (228) beitzen ikusten dit moto-faucheuse-a bürüz piko (229) ebiltzen, behera bürüz. Etxera sartü züzün mekanika piztürük ützi-rik; ixtant baten bürüko (230) ikusten dit autoan abiatzen, gero itsusi züzün.

Andereak: ageri balin bada esperua elkitzen (231) gero binagrez.

Jaunak: erleak ez dizü pozo hanitx (232).

100. Belaüneko ixurtea nola agitzen da? Zer egin? Nori agitzen da. Lehen, zer egiten zen?

Hortaz deus eztakit.

101. Ezür hautseren züzentzea

Lehen emazte bat bazüzün Mendibile-n (233) . Bai Majika izengoitia zizün, ezkontürük eta bederatzi seme bazitizün. (Bohamesa?) Ez eüskaldüntsa bat. Emazte hura aspaldian hilik düzü: ni, haur nintzalarik 1914-eko gerla aitzinean (234) bi gerlen artean hil züzün; bai eüskaldüntsa züzün, eztakit frantsesez bazakianez ere. Gero gizon horik daunatuak bazütüzün; lehen (235). Izurako hori Hotel Bidegain hortara merkhatü egünez jiten zena eta gero haren semea Sengladin bizi dena - ingoiti zahartürük hura ere - horiek bai ezürak xüxentü dizkützüe. Hanitxetan ebili nitzozü (kario (236) zena). E'nüzü orhit, bena segürrik ospitalea beno merkeago bai.

102. Zainhauzia (237).

Hori ükenik nüzü, barnen aragiak ürratzen zaitzü, "déchi-rure musculaire" a üken dit, segür (238) sofritzen beita. Membrea bühürtü nizün (239).

Hoin eskü anbüratüa (240)

Hori ere bai. Erhi behatza (241) zankokoa anbüratürük üken dit. Zer sofrimena! Sengladiko horren ikusten ebili nündüzün.

103. Larrü karruntatü. Zer ezari behar zaio? Sendotzen da (242)?

Allande Lamothe ogiegilea, txainkü baratü (243) züzün hartarik. Ezagützen düzü gizon hura. Ez nakikezü zer egin.

104. Itoa

Ez dakit ez zitazüt agitü, e'nüzü agitü ito batekin

105. Jente ürkatü batekin zer egin?

Ahal bezain laster korda moztü eta laxatü. Bi jente balin bada batek eraiki, petik etxeki, besteak (244) moztü. Hats ondar bat balin badü, "bouche à bouche" (245) ahoan harekin hatsartü.

106. Norbait bizirik ala hilik denez jakiteko zer seiñale bada?

Hatsetik düzü lehendanik ezagün jentea bizirik denez, gero beharria ezarten badiozü bularrean bihotzaren heotsetik, eta gero foltsüa hartzen delarik ez düzü borogatzen (246).

107. Ustegabeko herioaz zer erraiten da?

Gaüza hanitx bena bedeziek (247) berek eztakizie üsüan zertarik hiltzen den jente bat.

108. Pozoatü bati zer emaiten da ala zer ez da emaiten?

Ahal bezain beste, iretsi düana, goiti ekarrarazi ahoz behera ezartez eta ahosabai gingila gilikatüz. Eznerik ez likezü, ahalaz, edanarazi behar.

**109. Txilimistaren axolbean jarteko zer egin? eta hun-
kirik denari zer egin (248)?**

Ez dizü ez aize arte batetan, ez zuhainpe batetan, (249) ez etxeko "courant d'air"(250) batetan egon behar. Leihoak zerratü. Gero txilimistak hunkia hilik düzü, ondotik arropetan süia lotzen ahal ziozü, eta jentea erratzen. Sü hori ehaiten (251) ahal düzü.

110. Ekikolperen erremediorik badea (252)?

Iltzalean jarri, bürüan hur hotz bokanas (253) batekin.

**111. Itsuski kolpatüak zer seiñale dü? Zer egin behar
zaio?**

Ez dit koma-rik üsü ikusi, bena barnen kolpatüa zaparta-
katzen düzü.

**112. Galantartzüna, anpletartzüna osagarri seiñale dea
(254)?**

Galanteetan, besteetan bezala osagarri hon eta gaixtodü-
nak batützü, arnegateetan (255) bezala. Haleikere lodi izatea
ez düzü batere osagarri marka. Eito ezagütü düzü, lehen
magasi handi bat beitzüan (256), eta bere bürüa lito beitzüan.
Bere bürüa lodiegia hatzamaiten zizün (257) eta erraiten

"Je vois des paysans maigres c'est ça la santé" (258)

**113. Mehatzeko zer sendagailü erabilten da. Zer jaten,
zer edaten zer egiten?**

Zonbait gütiekin gizentzen dützü eta besteak hanix
janik ere mehe baratzen. Arrozpide Lexosekoak erraiten zita-
zün:

"Sobera jaten dük - apetitü handia beinüan - eta beti pika
bezain mehe hiz" (259)

114. Horiatarik oroetarik erran zaharrik badüzüia?

Aüzo batek erran zizün "Jinko txiapiaren" gana (260) dau-
natuaren gana izanik, bedeziarengana ützüli zela eta hau
ützirik berriz jinko txiapiaren ikustera, ordüan gaizkitü eta
bedeziari aitorü

"Jinko txiapiaren ikusten ebili nüzü."

eta harek arrapostü

"Orai Jinko Handiaren ikustera joanen zira". (261)

**115. Ibiltzen zindena daunatua, belagile, basa-bedezi
ta Jinko txipi horien gana? Badea zonbait besteak
beno hobe.**

Bai, larrümin horientako - zindre ta besteentako honik
bazüzün eta aüzoko etxekandere batek ere tisana sendoraz-
leen egiten bazakizün. Hürrun joan gabe bagintitzün.

Daunatuaren ikusten ebiltzen güntüzün üsü - berhala egi-
ten beitzüen egitekoa eta kausitzen, bena egia düzü gük ere
horrenbeste egiten bagenakiala kabalekin eta gero ez zizün
harek Jinko Txipien gisa eritarzün ororen sendotzeko bürü-
perik.

**116. Etxen ikasia aski zena destrenpü eta eritarzünen
igaranarazteko? Eta noiz bortxatü zinden bede-
ziaren gana joaitera?**

Destrenpü txipientako etxen baginizün behar zena ardu
berotü, tisana, jateko (arhan malatü), beropean egoiten gü-

tüzün kanpoan lan sobera ez zelarik, pausatzen eta emeki
sendotzen. Gero ahal bezain bekan ebiltzen güntüzün bede-
ziaren gana. Aitarentako bularreko "pleurésie" a üken züalarik
eta gero paralisatü zelarik; amarentako operatü (ebaki) behar
izan zelarik, bestelan ez. Ez orai bezala esdeuskeria baten
gatik salak oro jenteez beterik...bai ertohainik (erdi duan) bei-
ta.

**117. Zerentako ez ziren lehen ospitalean sartü nahi eri
zirelarik eta orozgain gizonak?**

Ene ustez ospitalean ez zizüen etxeko bizimoldea eta
goxotartzüna hatzamaiten eta üdüri ziezün etxen hobeki eta
zaleago sendotüko zirela. Arrazu zizüen.

**118. Zerentako, orai ere, popülüan ez da hanbat Ospi-
talean sartzea gogoko, orozgain jente zaharren
artean, zahartxeetan.**

Lehen ez züzün sosik eta ez züzün zahar-etxerik "xaha-
rrak" ospitalean erretiratzen zirelarik, familiarik ez züelako
züzün; orai familia düelarik ere gazteek ospitaleala igorten
dititzüe, zeren berak irus eta ezbeitira zahar-begiratze arren-
küra...nun ez dütian hortarako gobernüak pakatzen. Berak
ez dira zahartüko? Arauz hurrek ikusia, ikasia eginen deie...
merexi beitué.

Gehigarri edo eranskin gisa

119. Emazteen helgaitz eta astegaitzak.

Zer nahi düzü, aitzina lanean aritzen zütüzün. Beren tisa-
nak bazitizüen minaren eztitzeko, agian, nahiz ez düdan ez
ikusi ez entzün aipatzen. Lehen dolorekilan etzaten zütüzün.
Orai erremedioak, drogak baditizüe.

120. Emazteen lili xuriak.

Ez züzün erremediorik. Zonbait xahatzen (271) zütüzün
arreheinki, besteak batere. Ezagutzen dütüdan emazteetan
bekan agitü düzü (272).

121. Emazteen odol pausü.

"Retour d'äge" hori penus düzü, odol builtak (273) gorri-
dürak beitrade eta osagarriz gaizki beikira (274) bena jente-
ek ez zizüen uste emazte batek haurrik ükeitiko adinetik
kanpo igaraiten zelarik, zahar bat zela; lanealako pürü, beti
gazte züzün (275).

122. Pottikoen ixurteak gaüz.

Mihiseak teützen ditizüe, ustegabetarik (276) bena ez
giniezün deus erraiten; badakit hiritan izigarriko ixtoriak egi-
ten deitzela, alegia kostüma tzar hartzen ari direla, gure kan-
pañä horietan, ez güntüzün potiko ta gizonen afera horietaz
arrenküratzenegi.

Eta apezek?

Ez dakit apezek zer erraiten zeien, bena nunere beita,
gük bezala ez zizüen esklatik egiten (277).

123. Nola haurra sortzen züen emazteek lehenago?

Lehen emazte gazteak ez zütüzün lanetik ekhüratzen
(278) eta üsü etxetik kanpo erditzen zütüzün, ordüan belha-
riko jarten (279) behitegian, larrean, oihanean, lanak hatza-
man zütian leküan.

Ordüan ez zütüzün etzaten.

Ama gurea astebete etzanik egon züzün, aüzoko emagintsas goiz oroz ikusten ibiltzen ziozün, xahatzen. Ondokoak jelkitzen (280) ezpaziren sühartzen (281) ahal ziozün eta fievre-a jiten (282). Gero haurra sortü berrian oillaki salda bat berorik emaiten ziezün. Ninia xahatzen (283) hur epelean egiten, gero troxatzen, etzaten. Barnea hüstü (284) artino haurrari hur sükratü eman, gero amaren bularra.

Lehenago emazte hanitx hiltzen züzün haur ükeitetik, haurra gaixki erditzen, edo nekez eta gero haurra hilik sabelean ilhortzen, eta sabel txipia pozoatzen nik dakita zer gangrena edo tetanos-etik. Haurrak ber gaüza, lehen emazte bakotxak, txipian, haur bat edo biga galdü zükian. Gero egia erran, emazte izorrari ez zizüen oraiko errespetüa, ez oraiko xahütarzüna, eta haur hanitx ükeitez, lanean leher egitez, üsü ez zütüzün (285) osagarri hoberenean.

124. Haurrak galerazten zütiena, emazte zonbaitek?

Bai eta segür ere bena ez zütüzün orai bezala ebiltzen bazterretan kontatzen ez eta noiznahi hala jarten.

125. Emagintsarik bazena (262)?

Lehen baginizün aüzoan etxekandere bat emagintsas eta emazte gazteek haurra sortü züelarik ondokorik begira (263) ez zezeen hori egiten zizün:

"sütondoko hautsetik hirakiaraz (264), tisana hartarik emaiten ziezün edatera eta aidea ezin joanez hantzen bazen erdiberri hura, botilla (265) hüts bat har eta sabeleko larrüa orhatzen ziozün (266) harekin; hura zizün erremedioa eta hala libratzen zitizün. Gure etxekandere gazteari hola egin ziozün, düala hogeibat urte. Emazte hura hiltzeko püntüan,

ezin hilez beitzen haren semeak igorri nindizün, hirur elizetako, hirur apezer ebanjelioa erranaraztera: hiltzeko ordüan, aisago hilarazteko. Erdozaintzi beitzen hirurgerren errotera (eta bera sendatzaile bera tx. p.) harek erran zitazün (267)

"Qu'est ce qu'elle a cette femme, elle a une hernie étranglée" (268)

Eta karkazaz hasi züzün (269)

Etendürarekin gük ere 75 urteetan ama operarazi behar üken günian - gerrikoa bazizün - bena amari idoki ziezün eta sendotü züzün.

- (1) nütülarik: nituelarik.
- (2) bedaka egin: belarrak egin.
- (3) probenista izena Basaburuan erabiltzen dena ez du Bettiarreko gizon horrek ulertzen, tuberkulosis da.
- (4) potrinaide: tuberkulosis dun (hitza gaskoinetik dator).
- (5) minür: adina egiteko, adingabeko.
- (6) etxetiarrak: maisterrak.
- (7) errabia: amorrua.
- (8) züzün: zen (zuka).
- (9) kabale: abere.
- (10) hazartaz kanpo: ustegabeaz kanpo.
- (11) kasü haboro: kontu gehiago.
- (12) zitazün: zidan (zuka) nizün: nuen (zuka).
- (13) ezpeinakien: ez bai genekien.

- (14) xirurgien: barberu, kirurgilari.
- (15) hainti: oso ona.
- (16) poztariotan: boztariotan, pozez.
- (17) ürxain: usin, doministikun.
- (18) zizün: zuen (zuka).
- (19) haidürü: zain, igurikatzen, itxadoten.
- (20) üsantxarik: ohidurarik.
- (21) erriak iraüllirik: parrez iraulia, eroria.
- (22) aiharitan: afaitan, afaltzen nündüzün: nintzen.
- (23) ülhüna hüllantzen: iluna hurbiltzen.
- (24) baiezi: alegia.
- (25) aidea: airea.
- (26) zizüen: zuten (zuka).
- (27) zindrea: txingola (Basaburuan), zona.
- (28) kotu arropa: algodoi jantzia.
- (29) horra ziezü: etortzen zaie (zuka).
- (30) kozü: kutsu.
- (31) errematisma: erreumia ...agitzen: gertatzen.
- (32) ogen: kalte.
- (33) glace-a: frantses hitza, heladua, izotza.
- (34) sosa: dirua bedeziaren: medikuaren.
- (35) bazütüzün: baziren (zuka).
- (36) baguntütüzün: baginoazen (zuka).
- (37) so egiten: begiratzen, kontutan hartzen esan nahiz.
- (38) Heugas: mediku horren izena aipatu digu, hezur zuzentzaileak - Aguerrek - aitari hauzia egin baitzion eta hemen ere ez da, oso on (hainti) bezala agertzen.
- (39) soena: arta.
- (40) joan nündüzün arotzeala: joan egin nintzan (zuka) burdin arotzaren gana (perratzailearen gana).
- (41) arra jiterik: berriro itzultzerik alegia sendatzerik.
- (42) erretretan: jubilatua.
- (43) Heugas ütirik: jendeen fidantza txipia zeukan sendagile haizilari horrek merezi ote du Maulen kalea, kondairari irain eginik. "Zuberoako zumardiari" bere izena ederra ta zaharra kenduz.
- (44) enpeltü: enpeltre, txerto (txertoegile nire izeba). (Tx. p.)
- (45) gure osaba Arño zenaren heriotza kondatzen dit. (Tx.p.)
- (46) inbeia: ganorea, ganoa.
- (47) lotzen: lo egiten. (Pettiarren lo egin ta lotu egin nahasten dituztelako txisteak badira).
- (48) orhit: oroitzen.
- (49) seiñatzerik: odol idokitzerik, sangratzerik.
- (50) hurtatze: ur edate.
- (51) Akize: frantsesez Dax, Gaskonian.
- (52) godalet: bentosa.
- (53) pizten: piztu egiten.
- (54) barnen ezarten: barruan ipintzen.
- (55) pikoñi: ebakiño jelkarazteko: aterarazteko.
- (56) ventouses scarifiées: bentosa zarramikatua.
- (57) erhiekin gingila hunkitzen: atzekin gangaila ikuitzen.
- (58) urtukitzeko: jaurtigitzeko, kanpora botatzeko.
- (59) gibelatik ala aitzinetik: atzetik ala aurretik.
- (60) huile de ricin: errizinu olio.

- (61) trenpūan: bere onean.
- (62) zūnūan: zenuen.
- (63) hoin-ithoia: gota.
- (64) ohartzen: oroitzen (Zūberotar askok oroitu ta ohartu nahastu egiten dituzte, nahiz lehena **orhitū** eta bigarrena, **ohartū** izan; hori dator ohartū-ren izenkide den gaskoinetikako **erremarki** hedatzen baita.
- (65) bekan beitzen: bakan baitzen, gitxitan baitzen.
- (66) txainkeria: kojukeria.
- (67) so gaiztoa, begi gaiztoa: begizkoa.
- (68) eihar meza: igar meza (norbaiten gaixoerazteko edo hilarazteko esanarazten den meza, Basaburuan oso ezaguna).
- (69) Behargabea: debruak jabeturik.
- (70) ginizūn: genuen (zuka).
- (71) ezko: argizari.
- (72) beharrondoela: parotiditis.
- (73) zikūzūen: ziguten (zuka).
- (74) eriak: gaixoak.
- (75) droleki, errejima emaiten zizūn: bitxiki, dieta ematen zuen (zuka).
- (76) hur koterarik: hur txortarik (Basaburuan), ur tantarik.
- (77) bederen eta haboro: behintzat eta gehiago.
- (78) ekūratū zitazūn: gelditu zitzaidan (zuka).
- (79) enherik: nekaturik.
- (80) ez pūrki ekūratūrik: ez osoki gelditurik.
- (81) Errigei...: parregarri, farregai.
- (82) Ahazten beitira, hunkirik...: ahaztu egiten direlako ikuiturik.
- (83) olha-lagūna artzainolako laguna.
- (84) aitaña ala arraitaña: aitona ala biraitona.
- (85) inbidia gaiztoa: . gurari txarra.
- (86) lurpean ehorztez: . lurpean emanaz.
- (87) intenzionea bazizūen pūrū: xedea bazuten (zuka) behintzat.
- (88) marrūkentako: garatxentzat, (**marrūka**, latinezko **verruca**)
- (89) andere horri ez zaio oroitzen besteek esan didatena zehazkiago, zuhaitz erdibitu baten gainetik igaroaraztea.
- (90) ezkoa: argizaria.
- (91) oro arakeitūrik: dena aragi ustel bilakaturik.
- (92) soinean: sorbaldan.
- (93) nitizūn: nituen (zuka).
- (94) xendak kūrūtxe: xendak, bidezigorak gurutze izateak kristautasunarekin zer ikusia luke, baldin kristau ez diren munduko beste lurraldeetan berdin egin ez baledi beste gaitz edo xede-engatik.
- (95) ūkenik dit: eduki dut (zuka).
- (96) ekhi jelkhitzean..edo eki sartzean: eguzki jaikitzean edo eguzki sartzean.
- (97) fretatzez: igurtziz.
- (98) latsūn hura: gisu hura, kare ura.
- (99) zertarik jiten da: ..zertatik dator.
- (100) kaxet: sendagailu ale.
- (101) marrantarentako kaparrosto: katarruarentzat sasi ostu.
- (102) mūhūillūa: mihura.
- (103) coqueluche: zakureztul, kukurruku.
- (104) etxekitzeko ontsa jaten: eusteko ondo jaten.
- (105) bokanasak : eskuzapiak.
- (106) estakūrū : aitzaki.
- (107) elkitea : berazkoa, zirina, lasterreria...
- (108) **elkite** hitzak **ateratze**, **urtete**, esan nahi duen ezkerko medikuak txistea dagi, **egon zaite barruan** erantzunaz. Gaitzaren beste izena **lasterreria** bait da hor ere trufaz **ebil hadi baratx**: ibil adi geldiro, bare.
- (109) xixariak : sabeleko zizariak.
- (110) bunbu xeheñi eli bat : goxoki txikiño batzu.
- (111) idorreria : gogorreria (esteetakoa).
- (112) gibeletik ezarten: atzetik ipintzen.
- (113) minholliarekin : minhoriarekin, ikerarekin.
- (114) Zirosa ehaiten dūana: Zirosisa hiltzen duenak.
- (115) saihets pūnta : sahetesko min.
- (116) Baratx egon eta pausatū behar dizū: geldiro egon eta deskantsatu behar da (zuka).
- (117) bero animal batekin arrestiritan daillūarekin aisa ari beitzen ibide moztera: bero izugarri batekin arratsaldean segarekin erraz ari zela ta, bazter ebakitza.
- (118) hatzaman: arrapatu.
- (119) igaran astean: joandako astean, igaro astean.
- (120) plañitzen: kexatzen.
- (121) beren būrūak eho beit dūtie: beren buruak hil bait dituzte.
- (122) txilintxautū: dilindatu, zintzilkatu.
- (123) malerus heentako: zorikabeko haientzat.
- (124) kosi lehen bat: lehengusu bat.
- (125) txerkatū ziezūn: bilatu zieten (zuka).
- (126) mutilé: mutilatu, elbarritu.
- (127) Uhaitzeala..Uhaitzera (Uhaitza Zuberoako "ibai" nagusia eta hobeki esan "urgaitza").
- (128) txapeletak eskūan: errosarioa eskuan.
- (129) danse de Saint Guy: konbultsioak, San Vitoren dantza.
- (130) anjelūrak: frantsesezko engelu-tik (hazkordiañak Basaburuan).
- (131) Nihaur nūndūzūn: nerau, neron nintzen (zuka) ..bakarrik zegoela esan nahi du.
- (132) banindoazūn: banindoan (zuka).
- (133) zūzūn: zen (zuka).
- (134) aitzinaxago: aurreraxago.
- (135) bahūtsa: elderra.
- (136) mankha ez zedin: kolpa ez zedin arra jin artino : itzul arteraino.
- (137) temperamentūa: tenperatura.
- (138) materia: sorne.
- (139) marrūka: verruca (lat.) hurak: (hura-ren plurala).
- (140) zilātū: zulatu.
- (141) xahatū: garbitu.
- (142) furrustez jin ziotzūn: bapatean etorri zitzaizkion.
- (142) sapa holli bat: zumu hori bat.
- (143) horra dela: datorrela.
- (144) eihartzen: igartzen.
- (145) txitxa begia: behatzartekoa.

- (146) horra beita: baitator.
- (147) hur beroan ezartez: ur beroan ipiñiz.
- (148) mardotzen züzün: malgutzen zen (zuka).
- (149) odoluri: ospel, odolbatu.
- (150) hankürak: haundituak.
- (151) nirozü: nezakezu
- (152) eztüzü eijer: ez da (zuka) pollita.
- (153) akidüratik: nekaduratik.
- (154) txorta txorta aitzina, ezko epelarekin: tanta tanta aurrera, argizai epelarekin.
- (155) bürü pelat : burusoil.
- (156) hotzperaxago gütüzü : hozberaxeago gara (zuka).
- (157) arrenküratü : kezkatu.
- (158) hoinetara ürrin tzar bat jiten ziezü: oinetara usain txar bat etortzen zaie (zuka).
- (159) xahü etxeki behar litikezüe, agian : garbi eduki behar lituzkete, agian.
- (160) Undüreïn: Ürrüstoi-ren herri auzoa, ibar aldetik.
- (161) sortzaroz jiten düzü : jaiotzez etortzen da.
- (162) jiten zütüzün amagana: etortzen ziren (zuka) amagana.
- (163) etxeki : eduki.
- (164) urterminak haurren buruko zakarra.
- (165) ütsü baratü : itsu gelditu, paratu.
- (166) erreinetako min : bizkarreko min.
- (167) aitañiri : aitonari.
- (168) lehentxagoñi : apur bat lehen.
- (169) haur opatü Basabürüko hitzez : haur ükatü Pettiarreko "raqü-tico" da.
- (170) norctxaki : nork daki.
- (171) marlüz olioa : bakalau olioa.
- (172) hirotzea düzü: usteltzea da.
- (173) brabantarekin : "brabanta" gurpildun golde mota bat da.
- (174) Mintikile (frantsesez Moncayolle) .Onize (frantsesez Abense).
- (175) pikatzen : bakunatzen.
- (176) Bedeziak ezarrerazten zitzazün txorta eli bat: Medikuak ipiniazten zizkidan (zuka) tanta batzu. (dirudienez kolirak ez zuen ondoriorik eman) .
- (177) bena etzitzazün igaraiten : baina ez zitzaidan (zuka) igarotzen, sendatzen.
- (178) ürzobelarra: **Lotus corniculatus** L. (**Mendiko usobelar** UZEI).
- (179) floka txipi zonbait : sorta txiki batzu.
- (180) belar buket bat : belar sorta bat.
- (182) ekia sartü ondoan : eguzkia sartu ondoren (txingolarekin bezala, hirur bider erremediatu behar da, behin eguzkia jeiki gabean, bestean eguzkia sartu ondoren eta gauaz).
- (183) arrel : arraia, marra (Basabürüan **farranga** diote).
- (184) orhit : orhoitzen.
- (185) lünetak : betaurrekoak.
- (186) alabadere itsusi : izugarritan itsusi.
- (187) aurrideak : senideak, anaiarrebak.
- (188) jentziba : hortzobia.
- (189) fretatzen : igurtzitzen.
- (190) ginizün : genuen(zuka) güntütüzün: ginen (zuka).
- (191) aligeta txipiekin : alikate txikiekin.
- (192) borta bati estekirik : ate bati loturik.
- (193) txilintxau : zilintzan, dilindan.
- (194) ilinti batekin eteiten : itxindi batekin eteiten.
- (195) elorria barnen baratzen balin bazen : arantza barruan gelditzen baldin bazen.
- (196) materia : zorne.
- (197) urdea ehaiten züelarik : txerria hiltzen zutelarik.
- (198) txinkorra : urdaia.
- (199) mantetxean : mantelean (tximiniarena) .. hura ezarten: hura ipintzen.
- (200) urde mina : txerri behaztuna.
- (201) txütükän : zurra lantzen.
- (202) lotseriaz : bildurrez, izuz.
- (203) ekürarazten züen : geldiarazten zuten.
- (204) gatz prunki : gatz nasaiki, ugariki.
- (205) trenpatzen : bustitzero uzten.
- (206) usikia : ozka.
- (207) manatü : mandatu, bialdu.
- (208) lotsa zela tzakürren : zakurren bildur zela.
- (209) lotsa : bildur.
- (210) binagrez : ozpinez.
- (211) süge pipera : suge gorria.
- (212) elorri : arantz.
- (213) aperzebitü : konturatu.
- (214) baguntütüzün: bagindoazen (zuka).
- (215) soroala jauzi xahala: belardira salto egin txahala.
- (216) arroilla bat beitzen elorri zerrailü: bat baitzen elorri hesi...
- (217) herexa banititzün: marka banituen (zuka) igaran züzün: igarozen (zuka).
- (218) ülli: euli, lozer: liztor.
- (219) zizüen: zuten (zuka).
- (220) lozebi: Pettiarreko hitza, Basabürüan **lozer** (liztor).
- (221) motürrarekin habia moztü: moto-segarekin kabia moztu.
- (222) bedeziala arrunt: medikuarengana berealaxe.
- (223) etxeki: eduki.
- (224) heureusement que tu étais fort: zorionez sendoa baihintzen (medikuen belaunaldi berriak ez du euskaraz hitzegiten gaixoeekin).
- (225) iruski: zorionez.
- (226) joanik nüdüzün daillearekin: joanda nintzen (zuka) segarekin.
- (227) epaiten: ebakitzen.
- (228) soroa patar: belardia aldapatsu.
- (229) bürüz piko : buruz behera.
- (230) ixtant baten bürüko : une baten buruan.
- (231) esperua elkitzen : eztena ateratzen.
- (232) pozo hanitx : eden, edo beneno asko.
- (233) ezür hautseren : hezur hautsien, apurtuen....
- (234) gerla aitzinean : gerraurrean.
- (235) daunatua : hezur zuzentzaillea.
- (236) hanitxetan ebili nitzozü : askotan ibili natzaiozu..

- (237) zainhauzi : zaintiratu.
- (238) déchirure musculaire : giharre ürradüra, haragi urraketa.
- (239) menbrea bühürtü nizün : menbroa bihurtu, okertu nuen (zuka).
- (240) anbüratüa : ezurra bere juntatik irtenda.
- (241) erhi behatza : atz nagusia, atz handia.
- (242) karruntatü : izoztu.
- (243) txainkü baratü : erren geratu.
- (244) petik etxeki...: azpitik eutsi.
- (245) bouche à bouche : ahotik ahora arnasa eragin.
- (246) bihotzaren heotsetik: bihotzaren hotsetik taupadatik....foltsüa
....borogatzen: poltsua nabaritzen.
- (247) bedeziek: sendagileek.
- (248) txilimistaren axolbean: tximistaren aterpean, aixolbean.
- (249) zühainpe batetan: zuhaitzpe batetan.
- (250) "courant d'air": aize korronte.
- (251) ehaiten: amatatzen, hiltzen, litzaltzen (sua).
- (252) ekikolperen: eguzki ukaldien.
- (253) bokanas: sudurzapi.
- (254) galantarzüna: norbaiten eztitasuna.
- (255) arnegatetan: gaiztoetan.
- (256) magasi handi bat: almazen handi bat.
- (257) hatzamaiteen zizün: aurkitzen zuen (zuka).
- (258) "je vois des paysans maigres, c'est ça la santé": ikusten ditut nekazari meharrik, argalak, horixe da osasuna (aberatsa den ezkerero Eito-k frantsesez hitzegiten du).
- (259) pika bezain mehe hiz: mika haina mehea haiz.
- (260) Jinko txipia: petrikilloa (Jainko txikia).
- (261) Oasunaz txistea da, gaixoak aitortzen dio medikuari, hararte, Jinko txipiaren eskutan ipiñi duela bere osasuna, ta medikuak erantzuten, "orain Jainko Handiaren ikustera joango zara".
- (262) emagintsu : zuberotarrek femininuan ipintzen dute eta badakigu aintziña gizonezkoak ere bazirela XVIII. mendetik goiti, andereen erakasle zirenak.
- (263) begira : gorde.
- (264) hautsetik herakiaraz : hautsetik hirakiaraziz.
- (265) botilla : botoila.
- (266) orhatzen ziozün : oratzen zion (zuka).
- (267) erran zitazün : esan zidan (zuka).
- (268) "Qu'est ce qu'elle a cette femme, elle a une hernie étranglée" ? Zer du andere hunek, etendura urkatua al du? (hemen ere abadea frantsesez zuzentzen da nekazariei, ez da harrigarri Undürein-en ez bada haur euskaldunik, gehiago).
- (269) karkazaz hasi züzün: eta farre algaraz hasi zen (zuka).
- (270) lbilten zindena...: lbiltzen al zintaten?.
- (271) xahatzen zütüzün arraheinki : garbitzen ziren (zuka) artoski.
- (272) bekan agitü düzü : bakan gertatu da (zuka).
- (273) "retour d'âge" : odol pauzu (sendagileak ez direlarik Pettiarrean euskaraz mintzatzen gehienak, euskaraz gaitzen izenak galtzen dabilta).
- (273) penus : ürri, akigarri, nekagarri.
- (273) odol builtak : odolgorritzeak aurpegian.
- (274) beikira : baikara.

- (275) lanealako pürü, beti gazte züzün : lanerako behintzat beti gaztea zen (zuka).
- (276) teützen : zikintzen.
- (277) nun ere beita : duda gabeesklatik eskandalurik.
- (278) lanetik eküratzen : lanetik gelditzen.
- (279) belhariko jarten : belaunikatzen.
- (280) elkitzen : ateratzen.
- (281) ezpaziren sühartzen : ez baziren handitu.
- (282) fievre-a jiten : sükarra jiten, sukarra etortzen.
- (283) ninia xahatzen : ninia garbitzen.
- (284) barnea hüstü artino : barrua (hesteak) hustu arte.
- (285) üsü ez zütüzün : askotan ez ziren (zuka).

2. Maddalen CARRICABURU-AGUER "Eiherezkiko" etxekanderea.

Ordüan behar deizüt galthatü zure izena.

Badakik, Maddalen KARRIKABURU nizala sortzez eta AGER ezkontzez.

Nola deitzen da zure sortetxea?

Dordorragea.

Non eta noiz sortürrik?

Ligin, etxe hartan, 1927.an.

Eritarzün handirik üken düzüa haur denboran?

Ez diat uste ez.

Eüskal Herritik kanpo bizitü zira?

Ez. Bidajeaz ebili nük Italian, Espanian, Bulgarian eta Alemanian, bena bestelan beti Ziberoan egon nük.

Lanean?

Atarratzen ikasi nüa(n) Jauregui bedeziaren etxen kozi-natzen eta hamar bat urteez han egon; gero gazte denboran etxen laborantxan. Gero ezkontüz geroz ostatü eta jatekoa emaiten diat Gamere Agerre edo "Eiherezki" etxe zahar hon-tan.

Zer eskola egin zünüan?

Ontsa agitü nündian Andozeko eskolaren urte hoberene-tan eta zazpi urteren bürüan "certificat" delakoa kausitü nüan.

Ezkontü zinen?

Bai eta ez gazteegi...senharra ere Prusian egonik zün bost urteez alemanen preso.

Eta zenbat haur?

Gaxoa! sei: hiru motiko, hiru neskatila.

Zer ikasi zünüan soenatzen? Kürütxe gorriarekin?

Ez, bater eta bester behatzez, irakurtzez eta bedeziaren etxen lanean ari nintzalarik.

Zer mintzaje badakizü?

Hebenko eüskara, frantsesa, eta español amiñi bat.

Eüskaraz irakurten eta izkiribatzen?

Irakurten bai katexima hala ikasi beinüan, bena izkiriba-tzen ez izigarri.



"Eiherezkia" Maddalen CARRICABURU-AGUER-en etxea, Gameren. (J. M. Barandiaran herbestetuaren Zuberoako bizi leku izana)



Maddalen CARRICABURU "Dordorraga", "Eiherezkian" ezkondua 67. urtean 1992

Bilketaren giroa (1987.9.6.a)

Elkarhizketaren edo "kumersaren" lekua.

Andere hori Ligikoa izanki eta gure aitaren etxondoan jaioa, Gamere Agerreko bainuetan ezkondu zen. Egun hartan haren etxera heltzen naiz hirurak et'erditan bostetaraino iraungo duen galdeketa egitera. Berak ostatua eta jate-txea dauka. Etxe hortan egon zen urtebetez J. M. Barandiaran arrotz, eta euskaldun askok ezagutzen dute etxe hau. Orain, ez du lehen bezainbeste egiten, jubilatua dago. Beraz semeari baserria utzita bera sukalgintzaz arduratzen da bakarrik.

Etxera heltzen garenean, enterpresa bateko langilekin euskaraz hitzegiten ari da; gizonek bazkaria bukatu berri dute eta ez dirudi arratsaldean lanik egingo dutenik goizik. Halere badoatza; Beste etxeko alaba, nausia eta beste sukaldera doatzala Maddalen-ekin geratzen naiz, kazeta batean, haren galdeketa hartzeko, supazterrean esertzen gara ez da pizturik naski, Maiatzean gaude eta ez da hotzik.

Badu ordu erdi elkarrekin hitzegin dugula gure berriak emanaz eta galdeketa prestatuz. Naski elkar ezagutzen dugu, aspaldian, berrogeita hamar urte badu lehen aldikotz aitaren etxondora lehengusuen ikustera ibili nintzela. Orain, lanak higatutako anderea da, XVII.mendeko etxe haundi baten buru laguntza gutxiarekin, humeak kanpoan bizi dira ta.

Nahiz ez diodan, hortaz debekurik egin, etxekandere horrek ez dit sendakuntza zaharrek erremedio arrarorik eman, bere jakituria, halere, oso jakingarria da ezen, bere garaia bitarteko bat izan dela erakusten baitigu, alegia, Zabalain jaunak ematen digun sendakuntza herrikoiaren, eta gaurko ezjakintasun handiaren artekoa. Bai XX. mende hasiera honetan Europa guztian medikuak ibili zaizkigu, herria, herri xehea sendakuntzan eskolatu beharrez, zeren bitarteko garai hortan, sendakuntza aurreratua ba zen ere, jendeak ez bait ziren noiznahi eta nolannahi sendagileen gana joaiten.

Bai arrazoin zeukan 1660. urte inguruan Jakes Belakoak zionean

"Hobe da gaitzari oztopo ta eragozpen egiteko aurrea hartu, ezen ez etorriko denean erremedio bat itxarotzea, gaitzaren sendatzeko."

(Zuberoako foruari iruzkina-eskuidazkia)

Mende hasiera honetan eskolatan eta bereziki Alogen serorek zeukaten eskolan, Zuberoako etxekanderegai guztiei higieenea erakusten zieten, baina etxe sendakuntzaren neurri errezenak, eta hori da Maddalen gure lehengusinak, ematen dizkigun albiste zuzenak, argiki ikasi eta aplikatu dituenak. Horiakin batean, etxean, amarekin ikasi beste jakitate batzu badira, baina gure amonarekin hasita, Dordorrako andereek eskola hori izan zuten, eta inkesta honetan XIX. mendeko, sendaketa batzu ere agertu zaizkigu, hala nola odolhus-teak, purgatzeak eta abar, ondotik emango dugun haukerazko laburpenean.

Erantzun horien kalitatea nabarmen da, andere horrek **aintziñako gaitzen** zerrenda ona baitagi, tuberculosis (probenistea) diarrhea (elkhitea), tetanos, cancer (minbizia), apoplexia (odolkolpü) (ik. lehen galdera).

Gaitzen señaileak ondo ezagutzen ditu, larru, begi, ile-tatikakoak dakizki. Bizimodutik datozen gaitzak ederki sailkatzen dizkigu, jatekoak, ezaxolak, hozberoak, ixtripuek eta denen gainetik, lanetik datozen gaixotasunak ta elbarritasunak aipatzen ditu, bidegintzako, nekazaritzako makinekin, automobilekin, baita poluziozkoak, zuberotarrek meatzetan eta kautxugintzan bildutako gaitzak ere aipatzen ditu (6.7.8. erantzunak). Galdera horietatik goiti, guk ezer esan gabe, lehenik aitziniñakoaz eta gero gaurkoaz egingo ditu oharak.

Etxe barruko aire hobetzeaz, ideiak garbi ditu, alegia leihoen zabaltzeak, edo artekatzeak on egiten duela, baita eguzkiak ere, geletan sartzea ta ohekoak eguzkitara ipintzeak ere (11. erantzun). Dio gauazko airea on izan ditekela errauts gutxiago daukalako, baina gauazko freskura (zerena) kaltegarria dela (10. erantzuna).

Erantzun zehatza dator ere **gaixotasunen iturriak** zein diren aipatzean "Gaitzak lehenengoz kutsutik eta jendeek ez baitute konturik egiten jatekoari, edo hotz-beroari, gero ixtripu batzuen ondorioz, edo jendea higatua, zahartua baita; bestelan ere - batzutan sortzetik, jaiotzatik, barrua ez bait dabila ondo" (13. erantzuna). Ederki azaltzen du bere gazte garaitik honera diru izaitearekin nola erosotasunaren gaitz berriak sortu diren (15. erantzuna).

Nori zuzentzen aintziña norbait gaixotzen zenean; diru gabez etxeko edo auzoko jende zahar bati galdetzen, herri-sendatzaile eta hezur-zuzentzaileengana joaiten, azken

mugan baizik ez zen sendagilea ikusten asegurantzarik ez zen garai haietan(17. erantzuna).

Etxeko erremedioen lerro ederra ematen digu Maddalenek, baratzekoak, basoetakoak, erleek eman ezti eta ezko (argizai), milgorra, pattarrak.; gero purga bentosak, kataplasmak eta labamentuak (geronek Parisen garai berean ezagutu etxe-erremedioak dira). Aintziñakotik gaurkora pasatuz, hur oxijenatu, alkohol suge serum eta abar. Gero azkargarri bezala ematen ditu bakalau olioia, kinkina, eta ardo asukratua (21. erantzuna).

Maddalenek badaki XIX. mendean "attattaren denboran" udaberrian (bedatsean) **odol idokitzea** (sangratzea) egiten zela eta berak berriz, bere aitari (gure osabari) izainak ipintzen zizkiola bizkarrean, pneumonia edo marranta sūhartū zaukalarik (22. erantzuna). **Urentzat** bazen moda bat duela hamar urteraino, gizonezko zaharrek udaren azkenean, irailan, bi aste pasatzen zituzten "hurstatzen" edo hobeki esan ondo jan eta edan, atsedeten gero urrian, gizonak joan eta etxekandere zaharrak etortzen ziren, gizonezkoak "barrua freskatuta" ihizera baitzoazin (24. erantzuna). **Bentosen** erabilera luzaro aipatzen digu, baita zarramikatzu egiten zirenak ere (25. erantzuna).

Osasunari buruzko sinesteetan sartzen garenean berealaxe nabaritzen da, ez dela alde, baina leheneko sinesteek eta erabilerek jarraitzen dutela badakiala ere; laburzki aipatzen ditu eskapulario ta debozioak begizkoa ta sasiotoitzak. Berak erabili ez dituen arren (30. erantzuna). Min baten igurtzeaz aipatzen diodanean masaiak eta sofre erremedioak ditu gogoan, baina ez aztikeriazko igurzetak (33. erantzuna).

Izerdiaz galdetzen diogularik, aintziña eta oraina ondo bereizten ditu; lehenago sukarra galerazteko tisana, ohestalgi (manta) beroak erabiltzen zirela; orain erremedioak dauden ezkerro, lan torpe gutxiago, lasterka (aitxintxinka) ta bizikleta argaltzeko erabili ohi direla, mainu beroak ez hainbeste, Zuberoan behintzat saunaren moda ez baita sartu (39. erantzuna).

Eztularentzat, aintziñako menta, sasiosto berri, txarpoil, ezki ta ezti erabilera; gatz urarekin zintzuraren gargaltzea, eta gaurko xarabera pasatuz (43. erantzuna). Gero **birikeriaz** luzaro erantzuten du (45. erantzuna).

"**Odolaren garbitzeko**" bereizten ditu aintziñako odol kentzeak eta berak oraindik darabiltzan purgak hilabetero; ez du uste andereen odolgaltzeek, emakumeen barrua garbitzen dutenik (48. erantzuna). Sei haur eduki dituen ezkerro, **sudurretik odolgaltzeen** aldeko "xixtema" ugari badaki (46. erantzuna). **Odolgaltze handietan**, okela eta kinkina erabil litekela dio, gaixoaren gotortzeko; baina dio anemiak haur asko hiltzen omen zituela aintziña, garaiko sendagileen arauera, behintzat (47. erantzuna).

Disenteriaz (beheitikoaz, elkhiteaz, lasterreriak) zer esana badu, gaizki jatetik datorrela, gosetik ere bai eta bildurgarriena ñiniek gertatzen zen "elkhite berdea" dela, haur asko hiltzen zituena, haurrek ur zikina edan ondoren (50. erantzuna).

Sabelgogortzeak ez zuen holako izurik ematen: baratzean nahikoa gauza zegoen hesteak sendatzeko (piper, tomate, entsalada, ilar) eta hori nahikoa ez bazen "aranpasa"(arhanmalatū), udare ta kanela (51. erantzuna).

Heste zizareak, haurren esku zikinen gaitza da eta animalien kutsuz har daitekena. Haurrak "zaiñak aidean (nerbio-so) ipintzen ditu". Aintziña, sudurpean ipintzen zen zizariaren akasatzeko gero baratxuri tisana, ogi koskorrak baratxuriz igurtzirik..eta Zizari belarra erabiliz. Ardi eta jendeek bil dezaketeten **tatxaa** aipatzen du, lat. **Fasciola hepatica**, gibelean bizi dena eta urean (53. erantzuna).

Gibeleko gaitzeen jatorriaz Maddalenek badu bere ideia, mediku zahar batzuen ez zena, alegia ez dela piper eta txerriki gehiegi jatetik etortzen zeren, ustekeria horrekin gure izeba bat galdu baitugu, eta osaba galzorian eduki, alegia biek gibeleko mina zeukatela. Berak uste du, minhoria bereiziki erremedioek eman dezaketela edota beste pozoin batek (55.56. erantzunak).

Gure berriemaileak ondo bereizten ditu **saihets punta** bi, bata korrika egitean saihetsezur artean agertzen dena, bestea, baremin batekin, birrikako gaitz batekin (pneumoniarekin) gertatzen dena (57. erantzuna).

Buruko minen kausen artean gaitz kutsudun bat (gripe), eguzki ukaldia, mozkorreria, meningitis, eta sabeleko minak (58. erantzuna). Depresioaz, lehen azterketa batean dio "Batzuek ez dituzte bizitzaren gorabeherak, kontrariaketa eta kezak onartzen eta mundua ez bait da berek nahi luketen moduan ibiltzen, hits bilakatzen dira, "zainhiltzen" (mantsotzen), ezin jeikiz, jateko gogorik ez, indarrik gabe, jartzen". Gaineratzen du - lehen ez dakiat - baina gaur askok beren buruak hiltzen dituztela. Zertatik datorren? "Odolean" dagoela, leinu batzuetan agertzenago besteetan baino; gero ama erdiberritan agertzen dela, eta zaharretan. Gazteetan anorexia kasuak ematen dira ez da berdin (60. erantzuna). Hori aipatzen du, neskatila lagun baten alaba gogoan.

Eroez, nahasiez hitzegiten dugularik, dio, askotan beharrik gabe eroetxeetan sartzen dituztela, aintzina etxeetan edukitzen zirenak, eta ero-etxeetan erotzenago direla (62. erantzuna).

Mozkorkeria ez dela sendagarri dio (63. erantzuna).

Erorteko mina. Berriemaileak bereizten ditu, haurrei gertatzen zaizkietenak eta adinarekin galtzen eta besteak. Uste du, nerbioen, burmuinaren ezin bat eginaz, gertatzen dela krisia, tximistaren moduko elektrika ukaldi batez. Badaki zer egin kasu horietan eta azaltzen du.

Larruko gogordura guztientzat lerrokatzen ditu batzuen sinesteak (gatz eta gari aleekin igurtzea) ebakitzea, kimikagai batez erretzea, eta uste du batzutan berez gal ditezkeela txikianak (65-68. erantzunak).

Ubelak, ekimosiak, berriemailearen ustez, ukaldi batez etor daiteke edo berez jende oso zaharren azalean zainak etenaz (69. erantzuna). Larru gaitzen artean **hazteria** ikusi du eta sofreakin da sendatua, hori azken gerla garaian. Badaki **txingola** sendatzaileak badirela, **ekzema** edo **legena** gaurko sukalde kimikagaiek eman dezaketela eskularruen erabilera ezinbesteko eginaz (70-73. erantzunak).

Burusoitze edo garbaltzeaz, dio odolean dela baina buruko larrua ondo artatuz luzatu ditekela ille izatea; gaineratzen du aintziña, andereak bazirela garbaltzen zirenak eta beti "burutik beherako" bat buruan ibiltzen zirenak (73. erantzuna).

Oinetako izerdiaz dio gaurko amerikar tankerako oinetakoek ematen dutela handizkiago, oinak ur gazian bainatzea da sendagailu.

Humeen, haurren gaitzak ama familiako bezala ederkiduz egazutzen ditu: baztanga (pikota beltza) bildurgarria beharrrondoelak, elgorriak (tzürrünpiak), barizela.

Bizkarrezur ta bizkar minak, gaurko bizimoldeek aldatu dituztela dio eta ohe gogorrean lo egiteak txarragotzen laguntzen duela (73-79. erantzunak). Gazteen artrita zaharragoen artrosia, gota ere (**hoinitoia**) ikustenago dira jendea zahartzenago baita. Errakitikoak ez hala, ordea (79-92. erantzunak). Irisapela eta gangrena konparatzen ditu (83. erantzunean).

Begigorri, begiko errautsez erremedio arruntak eta onak (ur irakituua uata), bakarrik betarroarentzat parreño batekin dio alarguntsa baten erraztunaz igurtzi behar dela. Begiko ilundura (katarakta) eta xuria (corneita) ebakitzen ziren, begi okerrentzat betaurrekoak, eta gaur ebakuntza (azken gaitz hau "odolean legoke") (87. erantzuna).

Lepo-xerria, Zuberoako mendietan ematen da, hain zuzen gure berriemaileari, hiperfunktio batekin gertatu zitzaion eta gure beste lehengusina bati hipofunktioz (89. erantzuna).

Haginetako mina, txikietan erregaliza janaz, handietan baratxuriagaz, ezlitzen da (90. erantzuna). Bere haur garaian, herri bakoitzean basa-dentista bazegoen "hagin-idokizale" alikate edo kurrikekin hortzak ateratzen zituztenak (91. erantzuna).

Zakur, suge, erle, euli eta besteen ozkak, garbitu behar dira, ozpin, alkohol, hipoklorita erabiliz eta alergien kontua badaki berriemaileak.

Ezurhautsientzat, aintziñakoaren aipamen luzea egiten du, etxean anaiari gertatua gogoan, eta ama gureari ere. Membroa geldid egonarazteko ezpalak eta lepokoak, zaurituen jaistea "hagetan" menditik, petrikillo ezurzuzentzaile baten gana joaitea Maulera eta dirua zenean Oloroneko klinika ospe txarrekorra. Azkenik herriko kana, txanka, makullu egileak gogoratzen (98. erantzuna).

Larruaren hormatzea, gutxi gertatzen zela, artzainen bati behin edo beste, baina luzaro kontatzen du nola Frantziako jendarmeriaren astokeriaz elur-ekaitz batean Nafar-euskaldun soldadoak atzera bidali zituzten eta hil ziren lauzpabost.

Badaki zer egin etxekandere horrek itoarekin, urkatuarekin, eta pozoindatuari ez dio esnerik ematen noski (100-105. erantzunak).

Tximista (iñhazia) aipatzen dugularik, badaki zuhaitz azpitan eta mendidiz bizkarretan ez dela egon behar eta leku ezagunak badirela tximistaren erortoki ("Olalarrü, maxelako" hilaren, kolpatuaren eta geroago etxe errearen gertaldia ematen du) (106. erantzuna).

Eguzkiaren kalteak, larru erretze, sukar emate eta horien sendotzeko, itzala, ur otza bekokian, ur apur bat erandana, buruzbeheraxka etzan (107. erantzuna).

Txokeyaren azalpen osoa ematen du (108. erantzuna); "arnasa oso nekez hartzen, poltsua flaku, azkar, arpegi txuri, ezpainak hestututa, ez hitzegiten eta kordea galdurik ez". Gaur helikopteroa, aintziña, heriotza (108. erantzuna).

Argalak eta lodiak, meheak eta gizenak. Batzutan jaioduraz, askotan gehiegi edanaz, gehiegi janaz, geroago eta indarketazko lanak galtzen direlarik (110. erantzuna).

1. Zoin dira eritarzün ezagüenenak?

Lehen **probenistea** bazian, bularreko min hura ta hartarik jente paketa hiltzen zia(n) eta ezbeitzen sendotzen jenteak harriturik etxekitzen zitlean - geroxago minbiziaz eta zer horrek orain, Sida-k (Hies-ak) bezala -. Gero jenteek nola nahi jaten beitzüen eta ezaski: **elkitek** - salbü eta hi - kakeriak bazütian. Gero, lehenago eta orano gure denboran, haurren eta gazteen artean **tetanos**-ak lotsarazten zia(n): zamal gorotza esküekin hunkirik hatzamatzen ümen zia(n) eta ez zia(n) ez orako erremedio, ez vaccin-ik. **Errematizma**, ba prefosta: ikusten hüntian zahar horik bizkarrezürta ta anak doloz plegaturik büüz behera ibiltzen ..hala zia(n) amama gurea, hik ere ikusi dük hola?. Gero **minbizia** ez zia(n) hala ezagüturik, agian gütiago zia(n), bena abil hi ez beitzütien orako jakitateak leheneko bedeziek?. **Odol kolpütik** ere hiltzen zirenak bazütia(n). Gero beste haur eritarzün eta hola-koak ere bazütia(n) bena jentek ez zia(n) holako beldürrik her.

2. Zoin dira eritarzün señalearak?

Gaixoa! üsü bakoak bereala ezagützen dik, korpitzaren güne bat ez zaik ontsa ebiltzen, min egiten beiteik, fiebra (sükarra) beitük; gero besteek ere ikus lירוie ebilteko manerlaneko eta elestako trenpüan, begitartean.

3. Bürüko biloen koloreak zer salatzen dü?

Hor ez dakiat ez, salbü eta eritarzün handi batek, lotseria (beldur) batek xuriarazten ahal dütia. Gero ez dakiat zombaitek zombaiti biloa leün edo latz, azkar edo erorkor denez soegitearekin, osagarri hona lehenetan eta flaküa bigarrenean ezagützen düe.

4. Begien koloretarik zer ezagützen düzü?

Ageri dük bai norbait eri dela begiak hil badütü edo gorri balin badütü. Azken horietan badütük begi gorri direnak errautsa edo begiko zikinkeria baten ogenez, eta beste zombait odola begitarteala jinik sobera jan eta sobera edan ondoan.

5. Bepürüetarik ezagützen düzüa zerbait?

Ez, ez.

6. Zoin dira, ustegabetarik eta berez heltzen diren eritarzünak.

Batak destorbüz (ixtripuz) agitzen "tük, zerbait hautserik menbretan, bizkar eta büü ezürretan, zerbait bortxaturik, norapait kuzka bat, kaska bat bildürrik; gero hotz edo bustiak eriarazten dik; bena berez ez dük eritarzün bat jiten, kanpoko zerbaitek, norbaitek egiten deik, salbü eta xahartzeak ekarten düan higadüra, hura lükek etzekoz berez jiten den "eritarzün".

7. Zoin dira egünorozko bizi moldetik horra direnak?

Egünoroz ber lanean ari bahiz, ber jestoa egitez korpitza okertzen, higatzen ahal zaik alde batetik; gero lan hortan taigabe, goizetik arratsera aritzen bahiz ez dük kasürük egiten eta etxe hontan (jatetxea) bortak (ateak) beti zabalik ütze,

hozten hiz; gero hire bürüa, sükaltean zerbaitekin erratzen, haur batek behar ez den gaiza iresten deik. Kanpoan hanbat gaixkiago, lan torpe horietan, bekanika horiekin hiltzen dük jente. So'ik, hortxe hil bat Santa Grazin ur-barrajean eta, beste biga Larraineko bide egitean.

Ofizio tzarrak ba'tük. Lehen gure gazte denboran moti-koak talk minetara joaiten zütia(n), eta gazte hanitx gibe-lerriak errerik **silikosarekin** etxera ützültzen; gero lanean hatzaman züela eritarzuna ez ziea(n) ezagütü nahi eta gerla-ren kontü ezar eta pentsioneak üken zitiea(n).

Gero hebengainti langile hanitx badük **kautxu** lanean, latex errautsean ümen 'tük eta ez badüe kasü egiten ez dik izan behar osagarriarentako haitü den. Gero ez dakiat orai gazte horik beti **traktür** eta bekaniketari igainik beitarade eta auto-etan jarririk, nola dükien bizkarra gure adiniala heltü bai-ko (iritxi ordüko).

Ofizio bakotxak izan behar dik bere eritarzuna düan; so'egik ene zankoer, salatzen düe bai, hainbeste urteez **xutik egon** nizala, eta sükalteko **beroan, odolzainak** ontsa ageri 'tiatzat, ez ditie txerkatü beharrik. Gero zombaitek eritarzünak oro biltzen ditie, besteek deusere ez eta nik zon-bait.

8. Zertarik horra dira ametsak?

Gaixoa! Sobera jan-edatetik horra'tük, üsü, gaixtoak ja, gero egünean agitü zaitzanak ere orhitzen zaitzak.. Zerertarik? bestelan...kontrariamentü, arrenküra eta holako griña horietarik, bai.

9. Zer sinesten da ürsainaz?

Zioie osagarri marka dela, zahartüren hizala eta erraiten deie "Hon deiala" edo beste gisaz eta ejerkiago

"Ehün urteez!

Eta hik ihardesten

"Ba eta zü kontazale!"

10. Gaüzako aireaz zer dioie jenteek?

Zonbait aldiz gaiazko aidea egünekoa beno sanoago dük, errautsak pausatzen beitarade gero ülüntzean "zerenari" kasü handia egin behar dik, osagarriari ogen egiten beittio. Badük errana "argizagi kolpea" (ilargi ukaldia) bena hori trüfatzeko, gai-mozkorrez erri egiteko, zia(n). Gero erran delako zerenari kasü egiteko - eriarazten beittü - soinean ile bateki(n), trikot batekin, behar dik ebili.

11. Kanberetako aidearen hobetzeko zer egiten düzüe?

Gaixoa, leihoak ahal oroz zabaltzen eta zabal zabalik etxekitzen egüna eder delarik, bestelan leihoak artekatürrik aski dük hotzegi edo bustiegi balin bada. Ekiak (eguzkiak), bai, aideaz kanpo, hon egiten dik. Lehen ohekoak oro leiho-tan hedatzen gintian aidestatzerari. Gero gazte horietan zombaiten intsentsü eta ez dakiat zer butiga errerazten düen; gük ez, eririk ez bada izan, phürü.

12. Zoin dira osagarriaren alte edo etsai diren arropak?

Badütük jenteak ez beittüe ilea egarten larrüren gainen. Egia dük ile latzak badirela eta gero nilon horik ere nahiz atorapeko, nahiz galtzetan, arropapeko orotan ez dütü hainti,

orozgain izertzen den günetan ez beittüe izerdia igaraitera ützen.

13. Zertarik horra dira eritarzünak?

Eritarzünak lehenik kozütik, eta jenteek ez beittüe kasü egiten jatekoari, edo hotz-beroari, gero destorbü zombaiten ondolik edo jentea higatürrik, xahartürrik beita ta barnea ez ontsa ebiltzen.

14. Zoin dira osagarri marka diren minak?

Eta adesara (oxtion) aipatü ürxaina, gero izertzea, bena üsüan mina ez dük osagarri marka; gero badütük neke honak, eñhe honak, sobera leheregiten ez bada, bederen.

15. Zoin dira janari ogenegileak?

Ogen handienetan gizenak egin dük, kolesterol emaiten beittü eta gero odolzaiñak gogortzen, tapatzen, eta hurak azkanean lehertzen. Lehenago ez ziea(n) holako zapartatze-ko arrikkü handirik, jenteak bortxaz lerden zütia(n); orai iru-segi bizi gütü eta jentea arrainaren gisa ahotik joaiten dük, frantzimantek hola zioie "on creuse sa tombe avec ses dents". Hilgeiak bere ziloa haginekin egiten beittü; gero orai, huntto eta bixkotx jaten düe jenteek bai otsez ogiak düala gizentarazten eta sükrea ez dük hainti, ez, jatenegei delarik.

16. Zerk freskatzen dü barnea eta zerk berotzen?

Ene ustez barnearen freskatzeko **hura** dük lehen lehena gero frütak ez badira sükratürrikegi, eta berdürak, entsaladak.

Berotzeko prefosta ardoa ditade galtatzen, nahiz eta salda beroak berotzenago düan, ogenegin gabe.

17. Eritarzün bat heltzen zelarik eta heltzen delarik nori galtatzen da abisü?

Lehen beti aüzoko zaharrenek eta eri egon zen norbaiti, sosik ez zelarik ezpeikinen ez harapataka bedeziren gana joaiten, orai bezala eta gero hihaurk badakik nola zen, bai hire aita zenarekidan edo gure ama zenarekidan ez ziean azken püntilartino bedezia ikusi nahi eta gütiago ospitaleala joan; geroago sosa ükenik ere herabe hori baziean, hanitxek.

Orai ere badütük sendozale, donatua eta holakoen peski-zan ebiltzen direnak, ospitaleak lotsarazirik. Nik uste diat, haurren eritarzünentako, emazte gazteek zaharragoer galtatzen düela, bena oraiko bizian "asürantzekin" (Gizarte segu-rantzekin), zombaitek eztül batentako bedezia etxera jinartzatzen düe.

18. Jentea pixkortzen delarik, zertarik ezagützen da?

Hobekitzen delarik gosea arra jiten zio, begitartea ejer-tzen, matelak egiten, koloreak berriz jiten, fiebra (sükarra) erorten.

19. Osagarriaren begiratzeko zer egin behar da?

Badakiagü zer egin, bena ez diagü aski entelegü hortara-ko; gero ustegabekoak badütük eginahalen hausteko. Soberakinak dik ogen egiten eta eriarazten jatenegei, edate-negi eta lan sobera egiten delarik.

20. Eta eritarzünaren hürrüntzeko zer?

Orai baditiagü lehen ez ziren "vaccin" eta antibiotikak, bena eritarzünari ihes egiteko, korpitzaren xahütarzuna behar likek etxeki eta kasü haboro egin flakü delarik, pausatsez.

21. Etxetan, osagarriaren azkartzeko ta sendotzeko zer etxekitzen zen eta zer badüzüe, orai?

Lehen eta orai üsü, baratzean, txarpoila, menta, kamomilla, hurak zütian gure erremedioak; gero zühainetan tillür (ezki) biltzen ginia(n), bestelan erremedioen egiteko milgorra, ezlia, ezkoa bagintian eta aigardenta ere minen xahatzeko. Destrenpüentako "menta-alkola" baginian, sükre batekin hartzeko. Gero bentusak (bentosak), kataplasmak, bazütian etxeetan eta labamentü emaiteko, ontzia, tuiota (hodia) eta tüta. Aitzinala ere zonbaitek pürga etxekitzen ziea(n), eta badüe - nik ja bai - zaharrek hortako gatza erabilten ziea(n) eta baratxuri hanitx zerbützatzen.

Orai badütiagü "merkurokroma gorria", alkola, zonbait aldiz hur oxijenatü, minen xahatzeko, gero beti aspirina. Zonbaitek üdan ja süge pozoaren seruma jarraikiarazten düe, bena etxe orotan badük zer nahi erremedio erdi zerbützatü direnak, zahartürikegi, noizpait zerbaitetarako erabilirik, uste diat horik lanjerus direla. Gük ja, beti goratzen ditiagü, hau- rrek hatzaman ez detzen.

Gero azkartzeko, jatekoa bezalakorik deus ez zia(n), aragi ahal bazen emaiten haurrer; zer horik ere bazütian haur- rentako, marlüz gibel olio, eta gehitüentako kinkina, bena etxeetan hanitxek alegia hon egiten züala, ardo sükratü emaiten ziea(n) eta harek pefosta, berotzen, eta mementü hartan azkartzen hündian.

22. Seiñatzerik, odol idokitzerik egiten dea? (egiten zena). Zuri egin zeizüena eta zerentako?

Ez dük ez egiten haboro, nik dakidanez. Lehen, üsü, bai jenteak seiñatzen zitean aittitta gurearen denboran gisala. Ez diat ikusi egiten, eta ez ditade egin, bena ene üdüriz ez zia(n) hon handirik egin behar, eriak beharra zian odolaren idoki- tzez.

23. Noiz egiten?

Badakiat bedatsean zela egiten, bena aitaren denborako besterik zia(n): nik aitari ezari nitzoan zizeñak (izainak), biz- karrean eta, ordüan, hurak odolez hantzen zütia(n) itsuski; gero elkitzen, idokitzen (kentzen) hüntian eta urtukitzen (aur- tikitzen), bena gero larrü gorbeltz hura xuriago zia(n); hori egiten ginioan aitari bularra marrantaz sühartüak hartürük züalarik.

24. Maiñürük eta hurtatzerik egiten züniena, eta egiten düzieia?

Bai, eta ezkontü beinüz ostatü eta maiñü den Gamere Agerre hontan. Zer errana banikek, bena lüzeegi lükek eta beste behinko ützioko diagü ez?

Llabürki aipatzeko lehen, jente gehitü eta ooren gainetik adinekoak jiten zizkean, üdaren azken asteetan eta belarrak (bedakak) egin ondoan larrazkenean emazte zonbait ere, gizonak zonbat nahi zahar izanik ihizeen. Ahüzkin, hur eda- ten ziea(n) - arauz sobera ardu iretsirik - eta gültzürinen xahatzeko; heben aldiz Gamere, mainüak zütia(n), dolorenta- ko eta Barkoxeko Petillu famatü hura urte oroz jiten zikean eta jente igorten; kartieleko azken basa-bedezia (petrikillua) zia(n) hura, kabalentako emaiten zitean erremedioak, bena jententako aholkü zonbait. Ez dakiat jenteek ez zütienez kabalen sentagailü horik berek hartzen. Lehen bedeziaren gana joaitea kario zia(n).

25. Godaletik (bentosarik) ezarten düzieia bularrean edo bizkarrean? Nork ezarten dütü? Zuri egin dei- züeia?

Godaletak besteer ezari ditiatzat. Aita zena bularretik izi- garri minbera beitzen, ordüan bizkarrean ezarten nitzoa(n), bena aitzinetik lantzeta txipi batekin larrüa zarramiketzen nioa(n), ahalik eta godaletaren barnen larrüa hantzen eta gorritzen zelarik, odol gal zezan. Gero txükutzen nitzoa(n) zarramika hurak. Eni ez ditade behin ere egin.

26. Goitikaren lagungarri zer erabilten da? Noiz egiten da, noiz bortxatzen goitirandatzera?

Barnea nahasirik eta goitika düalarik norbaitek behar zio- ker bait epel edanerazi, edo hur bero bestelan eriak gingila- lartino sartzen deitzok, eta berala egiten dik.

27. Sinesten dea eritarzün maradikatetik, begi gais- totik, behargabetik jiten ahal dela? Nola agitzen da? Zer egin behar da horien axolbean izateko?

Begi gaixtoa (begizkoa) eta maradikazioneak ..bai, lehen oroek horietan sinesten ziean. Bazütia(n) eihar-meza batetik eritü zirenak famatzen beitzüen..Bai badakik zer xedetako erranarazten den meza, aitortüko gabe, bahoia eta gogoan hartzen dük eriarazi edo hilarazi behar düala norbait eta ezkoa errerazten meza denboran.. Horik lehenagoko gaizak zütian. Gero erraiten ziea(n) norbaiten nahi gaixtotik eritarzün bat, flakezia bat jiten ahal zela. Orano zonbaitek sinesten düe hortan.

Eritarzünetik begiratzeko lehen haurrer eskapularioak ezarten zitiean, holakoen axolbean izateko.

28. Contagion-ea nola erraiten da eüskaraz? Zer da? Zoiñ dira holako eritarzünak?

Kozü erraiten diagü eüskaraz eta mikrobek emaiten düe. Horietan ene ustez tetanos-a, krupa, probenistea eta lehe- nago gohenezürriak kolera eta gripa tzar horik orai.

Gero gerla aitzinean español gripa hiltzale bat izan zia(n), familiak osorik eho zitean - bena ez Ligin hainbeste - Lehenago entzütea badiat, garmua (lupua) eta üzürria bazi- rela. Horik ez ditiagü jenteetan ezagütü. Kabaletan izan dük, bai.

29. Sendotzeko hitzamaiten dea debozionetara joai- tea? eta norat?

Hitzamaiten dük bai, beti, eta orai ere gaizki hizalarik, hihauk edo askaziek nahi beihaie sendotzen ikusi. Hortarako lehen Andere Santa Grazi ta Andere Dena Maria Sarran- tzeakoaren gana, hitzaman eta joaiten zütia(n). Orai Lurda dük moda, han jenteen biltzen jakin beitzüe. Uste diat herriko eli- zan orazioneak ontsa egitez horrenbeste balio düala.

30. Eritarzün zonbaiten sendotzeko, keiñürük egiten dea? eta basa-otoitzik.

Zonbaitek holako basa-otoitz eli bat badakitze. Ez ditiat- zat ezagützen. Sinisten düanari koraje emaiten diok. Ligin Arjel zahar zenak bazakitza holakoak eta jentea bizkarrean kargatürük baratzearen üngürüa egiten zia(n) zerbait murmu- zikatzez. Jestoz edo eskü keiñuz ez diat ikusi egiten. Heltübada kürütze bat egitez eta aitaren ta semearen errai- tez, egiten düe. Gaiza horietan ez'nük batere jakintsü.

31. Kabale ta jenteer - gaizkirik gabe - sobera desiratz ez eritarzün bat emaiten ahal dea? Nola? Zerbait erraitez, so'egitez? Hunkitzez?

Zonbaitek zioie zerbaiten gütizia handiak, ogen egiten ahal deiola, eta norbaiti ere, jente bati, kabale bati. Zonbaitek ez ditüe haurrak edo kabaleak giñatzen ahal, aipatzen ahal..eriarazi gabe. Hola zioie.

32. Lürpean zerbait sartüz, eritarzün bat galarazten ahal dea? Zoin eta nola?

Ez diat behin ere entzün ez eta ikusi holakorik egiten. Ez diat ezagützen ez.

33. Xahatzez eta fretatezez (garbituz eta igurtziz) min bat galarazten ahal dea? Zoin?

Bazia(n) bai lehen zera **hazteria** eta min hori sofreez fretatzez igaranarazten ziea(n). Gero larrüa fretatzez koloreak arra jinarazten dütük, eta hur hotzarekilan, oihal busti batekin hatsa arra partiarazten. Gero dolerentako masajeak, bai.

34. Zerbaiten petik igaraitez, edo gainetik igaraitez sendotzen ahal dea?

Ez diat orit, bena ez diat egiten ikusi ere, holakorik.

35. Zerbait hürrün urtikitzez, idortzera edo txükatzera ütüz sendotzen ahal dea? Eta zer?

Urtukitzez, idorrazteaz ez diat hebengainti entzün holakorik. Pe horietan frantzimantek, gisala, sakolan pattako bat edo gaztaña ezarten düe errümatismen doloreak igaranarazteko: hura idorr'eta sendo dütük.

36. Eri den günea mesüratüz sendotzen ahal dea? Zer egiten da mesüra harekin, egiten bada?

Ez diat sekülan holakorik entzün.

37. Eritarzün batetik sendotzeko edo haren axolbean izateko soinean egarten dea zerbait? Non ezarten da.

Adesara aipatü beituügü, lehenago jenteak kiristi beitziren eskapülarioak bazütian, orai "moderne" gütük eta pagano, kobre ezarten düe doloreen hürrüntzeko. Sorik Joanese (semeak) ükaraian badik kobrezko tinkagailü hori.

38. Zoiñ egün hobe da astean erremediatze bakotxarentako?

Erremedioak egün oroz hartzen dütük, gero xixarientako erraiten ziean, argizagi kanbio (ilargi aldaketa) egünean hobe zela.

39. Zertarako izertarazten da eta nola?

Prefosta fiebra (sükarra) delarik eginarazten dük, bena hantik aitzina ez dik balio sobera izertaraztea ondotik hozten bada eritzen beita, ez dik balio non ez den mehatzeko.

Lehen izertarazteko ohestalgietan troxatürük ezarten hindedieian eta tisana bero emaiten edatera, eri hintzanean. Eta jangabe ützen. Mehatzeko delarik, orai ez beita hainbeste lan torperik egiten - zonbaitek bizikleta eta lasterka egiten düe eta maiñü beroak hartzen. Gü moda zaharreko gütük; ez gütük mehazale horien biltzeko aski gazte, eta itsasoa behar ginikek talasoterapia egiteko.

40. Erremedio batekin fretatzeak zer gantzügailü edo ünkünte sübertekin egiten zen, eta egiten da?

Uste diat lehen etzeko milgorra erabilten zela hazkordinentako. Ez diat ontsa ezagützen..Orai pomada eta horik badütük. Lehen ere zonbaitek "vaseline" erosten ziea(n).

41. Sükarra zertarik heltzen da?

Süharra? (Ez sükarra, fiebra). Ene uste üsüan kozü batearik xüxenka odolean sartzen beita edo zauri batetan den süharra, azkenean barnerat barreatzen beita.

42. Sükar süberteak? Zer sendagailü bazen?

Ez diat orit süberterik badenez. Gero entzün diat bai, kolonietan egon diren horier, paludisimea ekarten düela...noixipehin fiebra builta bat badüe eta gisala süberteak badütük. Nik ez dakiat.

(Ez düzü entzün irakurtzen diren , **herena, laurdena** aipatzen, ziberotar zaharrek hala beitzioien?)

Ez, ez diat holakorik entzün, bena bazütian tisanak bataak besteak beno hobe fiebraren galarazteko, bena ez dakiat zoin? Orai, prefosta berala antibiotika batekin fiebra jaitsarazi nahi deie, eta horpitz oroek ez düe ontsa hartzen erremedioa.

43. Eztül eta züntzürreko minarentako zer erremediatze bazen?

Gaixoa, lehen kaparrosto berria (sasiostoa) menta, txarpoila hon zütia(n), tillüra ere bai (ezkia) eztiarekilan hartzez.

Züntzürreko minarentako, gatz hurareki(n) gargarisatzen güntia(n) eta lepo üngürüan ile bero bat ezarten. Orai zernahi sirop (xarabe) butiga badük. Ahoarentako hon dütük, züntzürren ez dakiat ez?.

44. Nola erraiten düzüe "coqueluche" eüskaraz? Bada erremediorik?

To ahatze zitadak, ezpeita üsü agitzen (Zakür eztüla?)

Ez dük hori ez diat uste. Bena badakiat lehen bortiala igorten zütüla, pottikoak ja!

45. Bularreko minari nola erraiten da? Zerk emaiten dü? Noiz nola biltzen da? Zer egiten da sendotzeko?.

Badük süerte, **marranta sühartü** hura gaitzena dük, hortarik berala hil litek norbait: hotzean eta bustian sobera egon denak tinkatürük - artzaiñak bazütian hola bortüan elürte batek hatzamanik - azkarrenek etxekitzen ziean.

Gero, zera **probenistea** (birikeria) badük eta harek jenteak harritürük etxekiten zütiean ez beitzen erremediorik eta barnetik errerik bezala joaiten baitziren, sofrimentü handitan hiltzen. Nahiz ez den hori askazkünte batetan sartzen - salbü eta emazte izorrari agitzen bazeion - bai familia eli batetan flakeziak badütük, aisago hartzen düe eritarzün hori: hala nola Lorraine Ligetxeko zaharrek, oro hunkirik izan beitziren, Luis koblakaria hil, Frantxoa ontsaxko eritü, besteak sendotü azkarrago beitziren.

Lehen ez zia(n) erremediorik, beropean etxekitzen zütiean; zonbait berez sendotzen, besteak lüzaz eri egoiten eta azkenak sübitoki hiltzen.

Gero flakezia hortarik kanpo, ere, lan süberteak ere (lürpeko lanak) - jateko gaixtoak, tunbala lagüntzen zütiean, eremüts sortü ziren langile hanitx.

45. Sūdūrreko odol galtzeak, badüa izenik? Zer erre-medio bada hortarako?

Ez dik izenik "sūdūrreko odola" zia(n) ez besterik. Laxüki, haurr aski üsü agitzen ziek kaska bat sūdūrrean hartürik, beren bürüari emanik edo norbaiten ganik eraikirik; bena badütük odoltsüago diren jenteak eta bilaxkatü gabe üdan Ekikolpe batekin odola bürüala jiten ziek, eta sūdürretik ixurten düe. Zonbait aldiz bürüa gorriegi balin bada hon egiten dik, odol galtze horrek.

Eküarazteko bürüa gibel etxeki behar dik, lepo gibelean hur hotz edo giltz bat ezari. Eta üsüan itzalean egoitez eta jarririk igaraiten zaik; gero zonbaitek sūdür ziloak kotuz (algo-dioez) tapatzen ditie, bena ez diat uste hon den.

Gero gizonen bilaxka handi horietan, behar dik ikusi bai, sūdürre ez denez hautserik bedeziaren gana joaitez.

46. Zer emaiten da odol ahüleziatan, anemietan?

A gaixoa zonbait aldiz ez zia(n) erremediorik, bena ahal zelarik, norbaitek odol hanitx galdü balin bazüan, aragi emaiten jatera eta kinkina eta holako; bena bazütia(n) sendotzen ez ziren odol flakeziak, abantxü "leucémie" horren gisakoak haurrak aidez eramaiten zütianak, bedezien arabera.

48. Odoleko zikinkerien galerazteko zer egiten da?

Zonbaitek dioie emazteen hilabeteko odolek barnea zahatzen düela. Nik ez diat uste, lehenik ez beitakigü galtzen dügün odola hon ala gaixto den, eta odola pausatzen delarik ez beita horregatik, emaztea pozoatürik hiltzen.

Lehenago odoleko zikinkerien galerazteko jenteek beren bürüak bedatsean seinarazten (zainebakitzen) züen, geroxago beren bürüak pürgatzen eta nik ere azken horien gisa egiten diat, hilabete oroz, ahal badüt, nere bürüa pürgatzen.

49. Estomaka nahasirik delarik zerek egiten dü? eta zer egiten da?

Badakiagü bai nontik horra den, badik hogeitahamar urte igaranik ostalera nizala. Asekariak ikusi ditiatzat, üsü; bena agitzen dük aserik izan gabe eritzen dena, estomakean larrüdüra bat, erradüra bat düanak, edo bidajutzen delarik, aidez, itsasoz edo bidez nahasten beita jente franko. Badütük gero zainak aidean (nerbioso) direnak eta estomaketik eritzen direnak, gaitziturik beitrade.

Zer egin behar den. To! Ez ardorik edan, ez barnea berotzen düanik, barur amiñi bat, dieta, kamomila azkar bat edo beste; kanpoan ebiltea haitü (onena), barnetan egoitez eritzenago beita..gero pausatü, eta menta honik edan minaren ezititzeko.

50. Beheitikoa nola deitzen da? Zer egiten zaio?

Gaixoa! horri **elkitea** erran behar dik, bena trüfatzeko **lasterreria** entzütien dük eta ele-lariz **kakeria** hori itsusi dük.

Nola nahi erranik jente gorotza hurzü delarik agitzen dük eta zonbait aldiz harekin sabeleko mina badük, **kolika**. Hori jiten dük sabelaren gañen hotz hartürik, früta berde sobera janik (aranek eta gereziek oroz gain), zerbait pozu iretsirik agitzen zia(n), gero **kolera** eta **zirineria** hots disenteriarekin seriosago dük; ber gaüza izigarri lanjeros (arrixkutsu) zian haur txipien **elkite berdea**: lehen hartarik hiltzen zian hanitx - hur zikin edanik, urdankeria zerbait janik eta hola - ber den-

boran goiti errandutzen ziea(n) eta eihartürik bezala hiltzen. (toxicósis mota)

Usü agitzen zia(n) hura, lehen, haurretan erdi - gose - jan-kin beitziren, zernahi jaten edo batetan jatenegei beitzüen. Ordüan ez hüan hurik eman behar edatera nun ez zen erri (arroz) hura eta erri janerazten giniean. Horiekin oroekin zonbait aldiz ez zia(n) aski eta ez zia(n) oraiko erremedio bortitz horietarik.



Larru-godaleten erabilpena
(Gura elxeokak, 1935 ekkoak)

51. Zizariak zer egiten düe? Nondik horra dira? Nola galerazten?

Haurr ogen egiten düe sabeleko xizariak. Haurrek eskü zikinekin biltzen zitiean, tzakür kaka eta holakoekin kozatzen. Haur txipiak zaiñak aidean (nerbioso) jarten zitiean. Gure haur denboran xizarien ohiltzeko olio jinebre (hego-orre olio) sūdürpean ezarten zikiean. Uste diat sügeen hürrüntzeko eta ardien hazteriantako haboro balio düan. Gero, hik ere, hori ezagütü dükek: baratxuri tisana egiten zikiean..edanarazten..gero entsalada hanitxetan ogi koskorrak baratxuriz fretatürik ezarten. **Xizari belarra** ere badük bena ez dakiat zoin den. Oraí ez dük hanbat agitzen.

Zera bai **tenia** edo "xizari lüzea" jiten dük, harek hik jan ahalak oro jaten deitzak eta jentea meharazten; ez dük aisa haren galeraztea.

52. Sabela gogortzen zelarik zer egiten zünüen?

Agitzen zia(n) eta agitzen dük oraí üsüago hori; zioie ez delarik aski berdüra - (baratzeko) jaten eta aragi sobera. Prefosta, ez bahintzan gogortürik baratü nahí, aski hüan entsalada, tomate, piper, ilar jatea, bena agitzen zelarik - eta apaidü handi ororen ondotik eta hik ezagütü dük hori aran-malatü (aranpasa) pera eta kanela jaten giniean hunkeria bezala.

53. Goitika egileari, goiti errandazale bati zer emaiten zaio, egin ondoan, barnearen ezititzeko?

Ez zioik jatera eman behar, ez alkolik - nahiz zonbaitek "alcoool de menthe" eman - ez minagrerik, bena bai tisana, menta tisana batek estomakeko mina anpletzen ahal dik.

54. Gibelesko eritarzünak zertarik horra dira?


Horik gaizki jatetik horra dütük, üsüan, bena zonbait aldiz kozütik ere, hala nola **minhollia** eta oraino **hepatita** porke-ria horik; pozoatzetik nahiz erremediatzetik ere jiten ahal dütük. Gero kartieleko (Zuberoako) bedeziek sobera erraiten diküie, xerrikiak, piperrak eta ardi-gazna bortitzak emaiten dütiela. Nik ez diat sinestenegei hortan, agitzen beita piperrik ez xerrikirik jaten ez düenen arten. So'ik gure familian hire eta gure tanta (izeba) zen Luisa, hainbeste urteez gibelarentako erremediatü beituë, azkenean hümontzian minbizia züalarik.

Gero lehen eta orai zonbait aldiz tatxaa bazian, gibelesko xixari süberte: hura arresek aisa hatzamaiten ziea(n) eta ardikentetik jenteala igaraiten ere, ardien ber ütürrian edaten bahüan. Hura ez zia(n) aisa sendotzen, jente gehitüer ere agitzen ziea(n) hori, ontsa eritzen eta sekülan ez ontsa sendotzen, gibeletik beti minbera baratzen, hoberenean. Gibelesko min horietan nahasten 'tük bedeziak. Ber gaüza agitü zioan gure osaba Sengrat-i, alegia gibela eri züala eta bürhünean kiste bat eginik züalarik. Oro ez zütian, lehenago gibelesko minak, orai bai segürrago ene ustez, lehen beno haboro badük, jenteek jatenegei eta edatenegi beituë - ez nitek erran behar hortarik bizi beiniz - bena haleikere bizi nitek ez baleze hain gaizki jan eta edan. Gero nik ez dieat deus erraiten, bedeziak ez badütie sinesten nola ni?

55. Iktera nola erraiten da eüskaraz eta zerk emaiten dü?

Minhollia erraiten dük eta horra dük gibela-mina (behaztuna) ezbeitzaik ontsa ebiltan. Ordüan aisa dük ezagützen jenteek larrüa holli (hori) beituë eta begiko xuria halaber. Lehen jenteak pausatzerä ützen zitiean eta ohean jangabe etxekitzen, orai prefosta erremedioak badütük.

Aiuta-untzia (1935- ingurukoa)



56. Hozten delarik eta eztülez hasten nola deitzen da eta zer egiten?

Hotz bustiarekin marrantatzen hiz. Zonbaitek erraiten düe gripatzen direla, bena ez dük egia - gripatürik hizalarik fiebra (sukarra) badük eta jüntüretan holako lazdüra bat senditzen eta bizkarrean ere. Hebenko eritarzüna dük marranta, ez beitakigü behar den bezala, behar denean beitzitzen, aizeak zale kanbiatzen beitirade eta arropa bustiak - izerdiz ala ebiz egirik - ezpeitütügü aski altatzen.

Aitzinetik ere züntzürraz mintzo erran diagü zer tisana süberte hartzen ahal den, gero tisana horietarik kanpo, ahalaz beropean egon behar likek eta arropa tzükü (ziku) beroak jauntsi.

57. Saihetseko pünta nontik horra da? Zer egin?

Jenteek hola zioie bena badük bi süberte, biak hatsar-tzearekin zerikusteko düenek. Lehenik lasterka ebiltan hizalarik gibelerraitean (biriketari) jiten zaik, hor sabel telaren jünta, tinkatüerik. Min hori pausatzez igaraiten dük, behala. Zonbait aldiz lasterka ebili gabe igaraiten ez den saihets pünta bat jiten ahal zaik, aita zenak üken züan hura **marranta sühartü** hortarik jiten dük hura. Ordüan larrüa xiratzen (kauterisatzen) ziean zonbaitek eta besteek süharra elkitzen orratz batekin txistatzez.

58. Bürüko mina zertarik jiten da? Zerk sendotzen?

Gripa baten hatsarrea izaten ahal dük. **Eki kolpe** (eguzki kolpe) batek emanik, emazte bati hilabeteko **sabelesko minareki**(n) beita, **kozü** eritarzün baten señaleara, gero ez dakiat üsüan ez denez norbait bürhühandi delarik **mozkor** biharamenez eta ordüan gibela kexü. Iraütenegei badü ez dük horietarik jiten eta hobe dük bedezi bat (sendagile bat) ikusi, zeren eta bürhüneria edo **meningita** izaten ahal beita edo gure osaba haren gisa bürhüneko kista. Ez zioik bürüko minari fidatüegi behar, oroz gainetik üsüegi jiten bada arrazurik gabe. Lehen aspirinarik ez zelarik, ützen ziean bera igaraitera edo oihal busti bat ezarten borontean (bekokian).

59. Bürhüngürüa zer da?

Hori ardietan jiten dük (Eta jenteetan ez?). Jenteetan ez dük ber gaiza, ardietan kozü bat dük, har bat, jenteetan, aldiz, zonbaitek jiten ziek, aidean goraxka direlatik zübien püntan edo mendü gain batetan behera so egiteak nahasirik, eta hori eri ez izanik ere, bai osagarri düelarik. Gero norbait flakü edo eri delarik ohetik jeikitzean, oro üngürüka hasten ziotzak, ezbeitü, arauz, aski tentsione.

Azkenik ere badütük mozkor arrail direnak, hordi direnak bazterrak oro üngürükan hasten direlarik, behaztapotzen eta erorten direnak. Gero, gisala astronauta horik lürriala arra jitean halakatzen dütük, eta beharri barnea eri direnek.

60. Bürü eta zain ahüeziaren erremediarik badea? Zertarik jiten da depresioea?

Hori aspaldiko gaiza dük. Zonbaitek ez ditie biziaren gorabeherak, kontrariamentü eta arrenküra hunhartzen; mündüa ez beita berek nahi düen gisa ebiltan, triste jarten dütük, zainhiltzen, eta gero ohetik ezin jeikiz, jateko gogorik ez, eta indarrik gabe jarten dütük.

Ez dakiat ontsa zertarik jiten den, üdüri likek familia zonbaitetan "odolean" düela zainen ahüezia hori, eta heetan ere

zonbait besteak beno flaküago; gero nik uste diat haurra nola hazirik izan den ikusi behar dela, zeren eta orai gazteetan aski üsü agitzen beita holako. Orai, hanitxek beren bürüaz beste egiten düe, lehen ez dakiat - ez züena lehen holako hiltzea gordatzen ez beitzütien ilherritan sartzera ützen, ez ehortzatarik egiten. Gero eritarzün hori agitzen ahal dük haurra sortü berri düan ama batetan, agian, korpitzaren kanbioz eta bürüko arrenküren indarraz jiten zio: emazte hanitxek ezagützen düe beltzaldi hori, bena haboroenean (gehienetan) berala igaraiten ziek. Entzün diat ere erremedio zonbaitek eman lliroiela depresioeana.

Erremedioak ümen dütüük triste builtak, ülündurak igaranarazteko, bena ez diat uste eritarzün hori sendotzen den. Hala hala, orai ikusten den neskatilen anorexia hori, ez diat entzün lehen bazela orai, ja, depresione süberte bat dük hori

61. Zer izen emaiten zaie bürütik nahasier? Zertarik horra da eritarzün hori?

Bürütik nahasia erraiten ahal dük eta bürütik mensa eta ertzoa, ere, erran hiro. (Erhoa ez?)

Ez hori manexa dük. Bazüan holako herri orotan, zonbait - lanjeros baziren - ertzotegietara igorten zitiea(n) eta besteak etxeetan egoiten. Gero gerla ondoan, ahalak oro ertzotegietan sartü ditie beharrik gabe, üsüan eta gisala moda arra jiten dük, bürütik nahasi direnak jenteen artean eta etxen biziartzeko. Egia dük beren artean egoitez eritzenago baizik ez direla.

62. Nola erraiten da eüskaraz Danse de Saint Guy?

Haurretan agitzen zia(n) hura, burkeiñü, basa-jesto eli bat egiten zitiean, eta üsüan kozü batek emanik ziean hura. Jentea lotsarazten zia(n) harek bena sendotzen zia(n).

63. Mozkorkeria nola senda?

Ez dük erremediorik egiazko edalea hiltzearekin sendotzen dük. Hebenko emazte batek erran zitada(n) "Senarra edale ta andrekarri balin badüzü, lehen bizioa ez ziozü sekülan igaranen, bigerrena adinarekilan galdüko dizü". Arrazu zia(n) emazte harek, egün oroz ikusten diat.

64. Haurren eta gazteen larrüa gorberatzen delarik nola erraiten da? Zerk emaiten? Zer egin?

Hazkordiña erraiten dük; gük ez diagü üken holakorik (gük bai Parisen gerla denboran). Bai hori zia(n) negüan jiten dük jatekotik eta hotzetik. (Bai Parisen mehe jan üken dizügü). Bai eta milgorra igaraitez igaranarazten, ümen zitiea(n).

65. Epilepsia nola da eüskaraz? Zer egin behar da gaitzaldi bat agitzen delarik?

Eta epilepsia **erorteko mina** dük. Haur hanitxek bazitiea(n) holako builtak, ikare johadak bazitiean etxenken lotsarazteko aski, bena üsüenean adinarekilan igaraiten zütia(n).

Badakiat bürüa ez beita ontsa ebiltzen hala jiten zaiela, bürüa eta zaiñak ezbeitira alkarreki(n) ontsa jiten, bena entelegü normal dütüük; izan behar dik korpitzean beitzügü elektrizitate, erorteko mina, holako iñazi bat (tximista) dela.

Ez dakiat erremediorik badenez orozbatko (behin betiko) sendotzeko, lehen ez zia(n) ja. Gaitzaldi bat agitzen delarik badakiat bai, zer egin behar den, erorten diren günean deu-

se lanjerosik ez bada hobe, bestelan gaizak baztertü mankatü (zauritu) gabe zapartaka dadin; ez dük ez tinkatü ez jarrazki behar, etzanik eta laxoan ützi behar dik; behar zitzok arropak laxatü, atorra lepoan eta ükaraian, gerrikoa gerrian, bular-sabeleko sustengüak, hoinetan oskiak eta egürüki igaran dakion. Hatsa ontsa har dezan, jenteak baztertü.

66. Zertarik hona dira eta nola sendotzen haurren "fièvre"ak?

Gaixoa handitzeak emaiten ditzek, eta ohean etxekiz jin bezala joaiten dütüük.

67. Larrüko txori edo otsoak erraiten beita zertarik horra dira eta zer egin behar zaie?

Gaixoa, ez dakiat zerk emaiten dütian, zonbaitek baditie ederrak, gerezi baten heinekoak abantxü; izan behar dik jentente zonbait hortarik erizaleago diren. Erraiten düe bai hobe dela loditzen badirade edo beltzatzen elkiaraztea, bestelan minbizi bat eman lliroiela (lezaketela). (Eta moztez) Ez diat entzün egiten zela, begitartean behar beita kasü egin, eta harek izan behar dik herroa barna düan, bedezi baten helgian baizik.

68. Katxak edo marrükak zertarik horra dira? Nola idokitzen?

Ez dakiat nontik biltzen dütügün. Nik banitia(n) eta piko eznearekilan galerazi nitia(n). Gero zonbait basa-xixtema eli bat batüe bederazka gatz edo ez dakiat bihi batez fretatzen ditie eta gatz hori bide batetan ützen; zonbaitek mozten dütüe, bena ez dük hon, üdüri dik besterik sorrarazten dela hola. Zonbait deuse gabe galtzen dütüük. Besteek ere erreazten ditie beltzarazten erosten düen tzotz batekin.

69. Hoinetan jiten diren larrü kanika horier nola erraiten da? Zer egiten?

Zerak larrüa loditzen delarik eta kanikatzen hura, **baba** dük. Ez dakiat zerk emaiten düan bena üsüan oskien, eskalanpua, hots hoinetakoen ezarten moztü, pikatü behar dütüük, gero arra jiten dütüük; orai farmazietan erremedioak baditie.

Gero badütük hoin-erien artean jiten diren **txitxa begiak**, hurak alkolarekilan igaraiten dütüük.

(**Eta mandoak zer dira?**) A horik..badakik hoinzoletan larrüa lodiago dela, bena artetarik erietan edo aztalean erdiratzen ahal zaik eta hura dük **mando**. Ez diat orit zer egiten zen horientako.

Gero, oraikein amerikein hoinetako horiekin, tenis eta butigekin eriaratean larrüa gorberatzen ziek eta gorri gorria jarten, kautxu eta plastiko horietan ez beita ez aiderik, ez izerdirik kurritzen, hoiñak egosarazten ditie hola, lehen espartiekin ez ginia(n) holako minik, bena orai ez dük moda eta habil hi erraitera, basa-oski horiekin dütiela hoiñak gorberatzen.

70. Ekimosi bati nola erraiten zaio? Zer egin?

Ekimosa bati, **odoluri** erraiten diagü - odolguri ere entzün diat erraiten - bena nontik nahi den norbaitek edo zerbaitek eman kuzka batetik horra zaik. Txistazale piküra egile horiek ere beren orratzekin egiten deitze. Zahartzearekilan tanta (izeba) Maider-ri, e'hiza orit nola odolzainak lehertzen zeitzen eta odoluria jiten zaiñen higadüras. Bürüan agitzen zelarik odoluria beti lodiago zia(n) ezürraren gaiñen, ordüan hari, **adarra** erraiten dioagü.

Odoluri ala adar hur bero konpresekin igaranarazten ahal dük. Orai ez dakiat jenteek arnika ezarten düe gaiñen. Gero emeki emeki berak igaraiten dütük hollitzen (horitzen) eta galtzen.

71. Begi eta lepo hankürentako zer egin?

Gaixoa ez dütük berak. Begientako kamomillaz (idibegiz) xahatzen dük edo hur herakitüz.

Lepoaren - bardin ez bada lepoaxerria, golua, - ile bat ezarten dük lepo üngürüan. Gero lehenago zombait aldiz **gohenezürriak** lepoala jiten zütian eta ezürriak diren beste lekütan besapean azpiondoan agertzen zütia(n) holako hankürak. Erremedioak bazitien lehen, ez dakiat zoin? Belarrak ene uestez.

72. Nola erraiten da herpes? Zertarik jiten da?

Ez dakiat zertarik jiten den, eüskaraz **bukea** izan behar dik, bena ez dea frantsesez "le bouton de fièvre"? (Bai, bai) Ordüan, deus ez dük egitekorik ene jakitateala, bena deus ez dük eñhe bateki(n) agertzen dük hura eta pausatzen joaiten, ezpaitetan holako mixika bat egiten dik ez? (Bai hori düzú bai)

73. Zoin dira ezagützen dütüzün larrü-minak? Nola igaranarazten?

Zer nahi larrümin süberte badük inardüra kazkordin, hatz-teri, tiña, ekzema, ütsülarrü, erheraki, itzemin, txingola, erradüra, kiskili.

Lehen, orai beno haboro bazia(n), larrüan barnen sartürük **hazterria**, küka txipiñi bat zian eta harek hazka emaiten. Hori ikusi diat, Andozen eta sofreakin eta espuntxeta batekin karrakatzen.

Gero tiña edo ezkabia bazia(n) eta hura ez dakiat zer zen bena biloaren barnen bizitzen zia(n) eta bilo herroala heltzean, biloa errorarazten. (Bai, 1941, Larraiñe H.ko eskola lagün bati ikusi niozün) Bai, ordüko eskolatik jelkirik nündia(n), bena badakiat zombait hola bürü soiltzen zirela, biloak ez beitziren arra sortzen. Ene orimentxala alkolez eta xabuz xahatzen zitien bürüak.

Orai eta lehen emazteen esküen etsaia **ekzema** edo legena diagü; orai baditiagü sükaltean eta latsatzeko (xuritzeko) eskü mantsoak (eskularruak). Ordüan deus ez zian bena ez zian orai bezalako droga horietarik esküen xehekatzeko.

Txingola beste gaiza zia(n) bazütia(n) sendozale zombait, Larrainen eta Ligin eta badük Undürainen bat, Arjel zenak nola egiten zian baratzean aitzinetik ikusi diagü. (Anaia sendotü zizün Elixagaraiko etxekandere zaharrak 1940.an, ezko piztü igaraitez begitartearen aitzinean, hori ikusi nizün)

(Beste minak hürrüntxago ikusiko ditizügü).

74. Bürüsoiltzea zertarik jiten da? Zer egin biloen ez galtzeko? (Buruko illeen ez galtzeko?)

A hori, heltübada (agian) odolean lükek. So'ik hire aita zena - ene osaba Joanes zena - osaba Allande gurea ber bürüko larrü kalitateko zütian eta biloa ontsatto galdü zia(n) eta hik ere hala-hala. Gero bürüko zahiak ez dik honik egin behar biloari eta lehen erran gabea, edo aitzinetik errana tiña osoki galerazten. Emazteak ikusi ditiatzat hala lehenago, eta beti bürüko batekin, bürütik beherako bateki(n) ikus-

ten hüntian, orai pelükak balitikie, merkerik. Nik ez diat ez erremediorik ezagützen biloen ez galtzeko...

75. Eta biloen arra jinarazteko?

Ez dakiat ez. Lehen trüfatzeko, arrailarian, oilo kaka behar zela ezarri bürüko larrüan erraiten zikiean. Trüfatzez bena ez dakiat fontsean erakutsi beitu pixak ere hon egiten züala larrü biloer, ez züenez lehenago egiten.

76. Biloen karakoilaraztea?

Ez dakiat deuse hortzaz.

77. Hoinetako izerdiaren galarazteko? Ala ez da galarazi behar? Urrina nola estal?

Ez likek galeraziegi behar, salbü eta ürrina (usaina) handiegi badü. Ene uestez zanko-ur bero gazi bat gaü oroz egitea aski dük eta galtzak (galtzerdiak) egün oroz kanbiatzea. Hoinetako tinkegi, pezüegi (astunegi) - plastiketan eta botetan - holakorik agitzen, oski mehe larrüzkoetan ez dük hola agitzen, bena, erran gabea, ofizio orotan e'hiz oski ederrekin ebilten ahal.

78. Konkorra. Zer erraiten da konkoretzaz? Nola jiten? Zer egin?

Lehen orai beno haboro bazia(n), haur esparantxan amek hümea gaizki hazirik, berek gaizki jaten eta, gero haurrak ez aski jarraikirik eta lan torpeetan gazteegi erauntsirik, nahiz hanitx sortzez (jaiotzez) hala ziren. Hori zia(n) gibebez aitzinala okertürük izatea, orai, oro esküinetik ezkerriala bizkar oker gütük, bizkarra auto ta horiek deseginik.

Ez diat orit zer erraiten zen konkoretzaz.

79. Erredüren, kiskilien galerazteko zer?

Ez dütük berak kiskilia tresna baten fretatzeak emaiten deik eta erradüra sü gar, ilinti, edo murra batek (inkatz gorri batek).

Bigarrenaren, urinaz kanpo ez zia(n) erremediorik erradüra ontsa xahatü ondoan. Lehenaren orratz bat hartzen hüan sügarretan igaraiten eta kiskillia zilatzten (zulatzten) eta bi zilo eginik horietarik alde alde hüsten, larrüa hala hala üzten gero tzimaltzera.

80. Zoin dira haur-denborako eritarzünak? Nola sendoarazten?

Lehen **pikota beltza** bazia(n) (bantzanga), harek haurrak eramaiten ahal zitian, haren lotsa zütia(n) jenteak orai eta lehen ere pikotatzten zütia(n) jenteak, aitzinala. Artean ez balin bazen hiltzen zilo ederrik ere üzten begitartearen.

Gero bazütia(n) **beharronddoelak**, barailetan (matrailetan) jiten zirenak eta bürüa hantzen. Ordüan jatearekilan min beitzüen min haren ezitzeko konpresa beroak egiten gintiea(n), beroan etxekitzen, ontsa troxatzten eta kanbera batetan zerratzten, ez beitzüen beste haurrik etxen edo eskolan kozatü behar, eta hori fiebra igaranartino (Parotiditis).

Gero **tzürrünpiak** (elgorriak) bazütia(n). Haurra, ohean estalgiz ontsa tapatzen; hor ere fiebra igaranartino kanbera batetan, bera egon behar dik. Eritarzün hori, aitzinekoa beno lüzago dük, bena üzten dük haurra bera sendotzen.

Barizela züan zalenik igaraiten zena, eta fiebra gütieki(n), lehenik gorridürak agertzen zütian, gero mixikak eta horietan materia inkaübat (guti bat), bixikak idortzen zütia(n), zakarrak egiten eta erorten. Zonbait aldiz, xilo txipi zonbait üzten ziean larrüan.

Holako eritarzünak hobe dütük hurrean ükenik, handitü ondoan, gaixtoago beitirade eta behin üken ondoan ez beita berritzen.

81. Zer dira haurren urteminak?

Ninier büruko larrüan krozalda bat egiten ziek, eta ezneak dik hori emaiten. Alkolez fretatzez marddorazten ziean, lehen, krozalda (arrosen, sarna) idortü hori. Lehen urtean beitzen agitzen, hala zia(n) izena. Ez dakiat ikusten denez oral?

82. Erreinetako mina zertarik horra da? Nola igaraiten da?

Bagenaki. Ez bageneza behar ez den jessorik egin, bageneki nola behar den igitü, nola lanean ari bortxatü gabe, ez ginikek holakorik.

Gero artzainen gisa zurrezko atze batetan gaiñen lo egin bageneza ez ginikek holakorik ez, mardoan lo egiteak, lüza-zegi jarririk egoiteak ere ez dik beti honik egiten.

Erremedio gisa, pausatzea hon dük, masaje zonbait ere ez dük gaizki, maiñü bero bat edo beste.

83. Ezürria ta hoin ithoia delarik zer egin behar da?

Lehena, errumatisma sübertea dük, eta beroak sendo lirok, eta zonbaitek zioie hotzak ere; bustia ja partida dik. Horietan ere **artrosa** badük hola müttür xorrotx eli bat egiten ditie ezürrek zahartzearekin eta heek min egiten; ez dakie orano xorrotx heen lanpüsten (kamusten).

Gero gazteetan ere **artrita** ta holakoen entzütea badiat eta horiek bihotzari ogen egiten düe. Ez dütük errumatismak oro ezür jüntüretan, aragian, **giharrean** ere jiten dütük, soiñean (sorbalidan), besoetan eta hor ez dakiat sendotzen direnez, nik uste ez.

Hoin ithoia entzüñ diat lehen, orai **guta** erraiten diagü, hori gaixoa azidürrik emaiten dik, eta jatekoak alkoholak ere ez dik eztitzen. Gaitzaldika jiten dük, ikusi ditiatzat jenteak ezin eabiliz, eta ez zütian oro gizen ez jale handi.

84. Haur ophatü bat zer da? Zer egin behar da?

Haur opatü (herbain) frantzimantek "rachitique" deitzen dütien flakü horik dütük. Hiritan agitzenago dük bena heben gainti (hemengo alde) bardin. Holako haurrak aitetama alkoliketarik sortürrik dütük zonbait aldiz, edo gazterikegi lanean erauntsirik eta püntü batez gaizki jan düenek.

Gero gerla denboretan haur hanitxer agitzen ziek eta horren beldürrez aitzinala marlüz olio karats hura emaiten ziea(n) edatera. Zer ez da egin behar handitzeko?

85. Gangrena zer da? Nola erremedia? (Pasmao, disipula)

Gaixoa! erremedio gabeko mina dük hori, zauri zikin batearik abiatzen dena. Menbretan delarik moztea baizik ez dük egitekorik. **Gangrena** üdüri bena ez hain lanjerosa ama züenak **irisapela** üken züan, eta zankoa moztü nahi ziean, hautse züalarik (Bai, bai Lafitte - famatü barek bai otsez gangrena züala amak ez züan ützi egitera ta zankoa salbatü).

Lehenago irisapela üdüriko eritarzün bat emazte **erdi-berritan** jiten zia(n), hanitx hiltzen zütian barnea pozoatürrik, fiebra azkar batekin. Orai bekan agitzen dük, emaztearen ondokoak biltzen eta osorik direnez so egiten beitüe, bena puxka bat baratzen balin bada barnen, kasü!

86. Zoin dira begietako minak? Nola sendotzen dirade?

Pausatzez igaraiten direnak badütük, eñherikegi (neka-tuegi) hizanean, errautsez begiak beterik, aseka baten ondolik, **begiak gorri** direlarik. Hur herakitüz xahatzen ahal dütük begiak. Gero **betarroa** zelarik kamomilarekilan. Gero erraiten ziean, begia alargüntsa baten erraztünaz fretatü behar zela betarroaren sendotzeko.

87. Zikinkeria bat begitik kentzeko zer egin?

Ordüan, nigar egiteak ez badü idokitzen, oihal busti edo uata kanttu (punta) batekin eta begi ezpala ejerki altxatzez elkitzen ahal dük.

88. Nola deitzen da begia xüxen ez düana? Zertarik horra da? Zer egin behar da?

A hori begi-okerra dük. Zonbaitek zioie haur batek loakartzen badü argia aitzinean piztürrik edo ohea leihoaren argi aitzinean ezarririk eta holako. Nik uste diat nokü hori odolean dela eta sortzez. Lehen ez zia(n) erremediorik, gero lünetak (betaurrekoak) ezarrerazten zitean, badakiat orai operatzen dütiela eta bixtak xüxentzen.

89. Ez ikusteak zertarik jiten dirade? Nola düe izena?

Hori **ütsütarzüna** dük; bazütian lehen bena ez hanitx, zonbait aldiz sortzez, best'ordüz, meskabüz eta ezustean, gero zahartzearekilan, aittitta gureari bezala (gure aitonari bezala). Ez züan erremediorik lehenentako, gero zahartzean **begiko ülündüra** (katarakta) operatzen ziean, eta zonbait aldiz **begixuria** ere, besteak ütsü baratzen (geratzen).

90. Zoin dira beharrietako minak? Zer egiten da?

Gaixoa, gortarzüna badük, eta zonbait aldiz beharriak zakarrez beterik beitirade, gorrieria hori karrakatzez joaiten dük, bena egiazko gorak badütük eta lehen ez züan orain bezalako trastü hori "sonotona".

Haurretan **otita** edo beharri süharra bazüan olio ezarten zikiea(n) beharri ziloetan, eta uataz tapatzen. Kasü egin behar züan beharri-tela zila ez zedin.

Gero **beharritako minak** bazütian. Ez ditiatzat ezagützen, salbü eta beharriak hüstüz ari direlarik lehereginik (oso nekatua) hizala seiñale dela.

91. Zer da lepo-xerria? Zer egin behar da?

Lepo-xerria, gaixoa! lepoa hantzen dük emeki emeki, barnen dügün tiroida hori ebiltenegei beita edo ebil eskaz beita. Ontsa ezagützen diat, ebiltenegei beitzeitan. Batian ioda mentzak (faltak) bestean ioda sobera biltzeak, lepoa hantarazten deik. Soberak mehe eta txar etxekitzen haü - orit hiza nola nintzan gazte denboran - txardina erraiten zitadean, gero zaiñak aidean etxekitzen nindüan eritarzünak, aldiz, hortxe, A.ko küzüñari ez zioan aski ebilten eta lodi ta zainhil züan.

Zernahi butiga hartü nüan eta uste diat, azkenean haur ükeiteki(n) emeki igaran zeitadala, eta glanda hori bere heñean jarri.

92. Haginetako minak? Haurrenak eta handienak bardin?

Haginak txusto (ustel) direlarik dük senditzen; lehen baratxuri janerazten zikiean minaren eztiltzeko, eta horren egiteko orai, zonbaitek aigardenta besteek aspirina ezarten haginean. Hoberena haginaren xaharaztea, taparaztea edo idokitzea dük.

Haurrek ere hagnetako minak baditie, lehen hortzak agertzen direlarik; hatsarrean, nigarraz kanpo ez düe beste erremediorik, nun ez den arragaliza zain bat mastakarazteko.

93. Nork hortzak idokitzen zütian? Nola?

Haur ginelarik etxekoek, etxekoek hari bateki(n) tiratzez edo hari bati estek'eta (lotu eta) bürüa üngüratzez.

Jente gehitüentako dentistaren gana güti ebiltzen güntia(n). Ligin ta Larrainen bagintian hagin-idokizale laborariak eta Ozazen lüzaz baziean Portal.

Nola egiten züen? Espreseko trükesa (kurrika) lüzeak bazituean, iguiñak lüze eta mütürrean kako txipia, harekin tiratzen ziean, anestesiarik gabe.

94. Nola lagüntzen da haurren hagin egitea?

Haginen egiten lagüntzeko jentziba tzotz bateki(n) fretatzen hion edo erregaliza zaiñ bat emaiten mastakatzer a handiago bazen.

95. Haurrek ohean pixegin ez dezaen?

Eni ez zitadak haurreki(n) agitü, bena badakiat ohealat joan gabe ez zaiela edatera eman behar, gaüean, ahalaz, behar direla jeikirazi, gero adinarekin igaraiten ziek; zonbait aldiz arrenküra direlarik (urduritasunean) pixegiten düe, ohean, gaüaz.

96. Elorri, iratzotz txistekin zer egin behar da?

Usü bagenian holako, lehen,; barnen zerbait baratzen balin bazen, ixkilima doble baten püntareki(n) idokitzen genia(n) eta odola elkiarazteko xahatzeko.

97. Zertarik jiten da mütü, gor, edo motel izatea?

Norbait motel zelarik, zainetako min batetik, mementoko lotseria (izua) handitik. Haurra mütü ta gor sortzen zelarik, ez ziea(n) deuse erraiten ez etxekoez, ez haurraz, nahigabe bat zela, besterik deusere ez.

98. Zaurietan odola galtzen delarik, nola eküraraz?

Kolpatürük delarik, odola galtzen delarik handizki odolzain handi bat hunkirik, tinkatü behar dik, esteki behar dik minaren eta bihotzaren artean; ez balin bada ixurtzenegi eta txapastaz, ordüan zauria zapatzen dük eta gero hersatzen.

99. Txakür usukiekin zer egin? Sugeekin? Erle, ülli ta eltxo txistekin zer?

Tzakür usukiak behar dik ontsa xahatü; lehen, hur gaziarekilan egiten züan, gero "eau de javel"ez (hipokloritaz) eta ez zelarik minagrez edo aigardentez. Horrekin aski züan, ez diat sekülan entzün errabia (amorrúa) izan dela kartielean.

Süge usukien erraiten ziea(n) kürütxe behar zela pikatü (moztu) süge ozke hura eta hantik odola ixurarazi, xaha ledin. Püntü batez etxe zonbaitetan belarretara joaiten zirelarik serum-a eramaiten ziea(n) berekilan, orai ez dütük hanbat

ageri, mekanika berri horiek hürrüntzen ditie eta - ez aski zalez - ehaiten (hiltzen) ezkapatzeko denborarik ez beitüe..geroago ta gütiago ageri dütük, süge gorri eta süge piperak.

Erle eltxo, lozer (listor), espere (idieuli) ta mandoülli horien txistak lanjeros izaten ahal dütük, jente zonbait minberago beitirade, alergía beitüe besteek bihotza flakü. Horientako eta ororen gainetik bürüan hunkirik badira hiltzea arrikkatzen düe.

Erle ta lozerrekin so'egin behar dik lehenik esperua (ezte-na) ez denez txistaren barna baratü eta ejerki idoki behar dik, azüzkülekü(n) edo espintxeteki(n), minagrez xahatüz (ozpinez garbitü), ber denboran deshantzen lagüntzen beitü horrek.

100. Eta belaüneko ixurtea nola agitzen da? Zer egin?

"Sportif" (kiroltzaleri) agitzen ziek. Etzanik egon behar düe, belhaüña ekürüian.

101. Ezür hautseren xüxentzea?

Ezür hautsea ageri zia(n) lehenik menbretan ez beitzüan kolpatüak igitzen ahal, izigarriko mina beitzüan edo menbrea okertüerik. Gero bizkarezür a hautserik, gure basa bazterretan hiltzen zütian, ez züan helikopterarik ordüan. Korpitz adar horietarik bat hautserik zelarik jentea besoan artean jaisten ziea(n), bideala artino, hor arkützetan ahal bezala kargatzen; bena, mankatü (zauritü) zen lekü hartan berean eta abiatü gabe ezpalak edo zotzak ezarten zitzen menbrea estekirik (loturik) igi ez zedin; gero hobeki egonarazteko zankoak alkartara jüntatzen edo besoa bularrean zinglatzen.

Maulera jaisten güntian han beitzen danatua, geroxago Olorueko klinikala joaiten, eta pakatzen ahal ez zelarik, emeki emeki sendotzen süharra ta gangrena jarten ez balin bazen. Gero arra ebilteko hebenko maiastürü (zurgin) oroek txanka eta kana egiten bazakiean edo gorosti makila honak. Ama züenarentako Frantses Eiheraltek Ligin txankak egin zitüan, 1940.an.

102. Zaiñhauzi, hoin bühürtze, anbüratze?

Hoina bühürtzen düalarik, ez dük min handirik eta txainkü-txainkü (erren) ibili ondoan, ebiltez berotzen zaik aztalbharri üngürü hori eta igaraiten.

Zainhauzian aldiz, zankoa ez dük lürrean pausatzen ahal, aztal beharria (txonkatila) hantzen hasten zaik eta zonbait aldiz odoluria ere agertzen. Ez bazen danatua hurrünegi harek berala igaranarazten, bestelan pausatzen hintzan, zanko ur bero gazian mainatzen, eta tink-tinka herskailü bat (benda bat) ezarten.

Ezür amüratü edo anbüratü baten lana besterik zia(n) hor bortxatürükago beitzen eta bere giltzetik, bere jüntüratik jauzirik. Danatuak baizik ez zia(n) bere lekü hartan berriz ezarten ahal, eta orai "kinesi" ta kiropaktor horiek egiten düe. Amüratü hura berala ikusten hüan, menbreak osoki okertürük beitziren.

103. Larrü karruntatü (izoztü) baten gainen zer ezar?

Bekan dük agitzen. Behin edo beste ihizlari edo artzain bat bortüan elürrek hatzamanik, eta milgorraz kanpo ez dakiat zer bazen. Agitzen ziea(n) hotzez hiltzea: hortxe Erroimendi eta Utürzeheta arte hortan elürrean galdü español

armadako nafartar zombait hil zütian karruntatürik, frantses eta español bürüzagien astokeriaz, alegia ez zirela Frantzian sartzen ahal armatürik, elür tenpestala gibel igorri zitiea(n). (Bai, orano badütüzü kürütxe zombait bide bazterrean).

104. Hurean ito den batentako zer egin behar da?

Ordü deno ta erdi-itorik baizik ez balin bada ahotik ahoa-la hatsa arra partiarazi behar zioke..eta nik ez dakiat bena ahozbehera ezari behar dik sabela üriskitzez hura sabeletik jelki dakion..

105. Eta ürkatü batekin zer egin?

Ürkatü hura etxeki, korda moztü eta ordü bada hatsa arrapartiarazi. Ez zitadak agitü ez, eta hebengainti ez dük izigarrri moda, gizonek beren bürüak tiroz ehaitenago ditie edo pozoatzen, eta emazteek beren bürüak hurean itotzen, üsüenik.

106. Norbait bizirik ala hilik denez jakiteko zer señaile bada?

Beharria ezartzen deiok bihotzaren eretzean ebiltzen denez jakiteko, poltsia hartzen, begietara so'egiten eta betezpalak erabilkatzen, larrüa minbera denez zimikatzen, bena bedeziak ikusi behar dik nahiz, hatsik, odolik ez bada kurritzen ez denez egürikantxa hanitx üken behar.

107. Ustegabeko herioaz zer erraiten da?

Jenteek erraiten düe, norbait hori higatürik zela, bihotza tanpaz eküratü zaiola.

108. Pozoatü bati zer emaiten da? ala zer ez emaiten?

Ahal bada, oroz lehen, eta ordü bada pozoa goiti arrandarazi, goiti urtukitzeak hanitx egiten beitu. Zombait aldiz ezne behar dela zioie, bena ez dakiat beti hon denez.

109. lñhaziaren axolbean (tximistaren babesean) nola jar, eta hunkirik denari zer egin?

Hatzamanik ez izateko ez dik dünda (trumoi) karraskaz ari delarik, ez bizikletaz, ez motozikletaz ebili behar auto baten barnean, aldiz, axolbean hiz.

Ez dik zühain (zuhaitz) baten aterbean jarri behar zombait nahi ebi (euri) eginik ere..harrri zilo edo harpe batetan etzekoz eta ez bizkar batetan ere; gero badütük güneak, sorik Olalarrü aldepeko maxela hori, herrokan ageri dütüük zühainak erorerik eta hor züan, Tornari-ko etxekandere gaztea, inhaziak eho (hil) eta besotik etxekitzen züan ahizpa lürrila urtuki. Gero ez nakikek zer egin behar den, hila hilik eta bes-tea heltübada erraküra zombaiteki(n).

110. Ekikolpeen erremediorik badea?

Gaixoa, erremediotara heltü gabe, hobe dik jenteak ahal badü itzalean egoitea, txapel tzar baten ezarte eta zombait beren bürüak urinstatzen ditie, frijitzeko arraina bezala.

Ekikolpeak koloreak gorriarazten ditik eta fiebra emaiten, lanjeros dük, bena beltzatzeko moda bat izan beita, larrü erre hanitx izan dük bazterretan orai ez ümen moda, gazteek zur-pail izan behar düe..

Ekikolpearentako borontean hur hotz igaran, etzan zankoak goraxka, hur edan bena ez itoteka.

111. Itsuski kolpatü batek zer señaile dü? Zer egin behar zaio.

Ene ustez, hatsa izigarri nekez hartzen dik, poltsia flakü eta zale dik, xuri-xuria, ezpainak tinkatürik, ez elestatzen, nahiz ez den engoxatürik (kordegabetua). Lehen, bekan, salbatzen zütian, eta orai helikopterak biltzen ditik; ez ziek artean edatera eman behar galtatzeko (eskatzeko) indarra balin badüe ere.

112. Galantarzüna osagarri señaile dea?

Ez, ez arnegatek bizia lüzeago düe, besteer ogen egiteko (kalte egiteko) hartarako pürü bizirik egoiten beitarade eta orozgain gizatarrak bere bürüa maite beitu.

113. Mehatzeko zer sendagailü erabilten da? Zer jaten, eta zer edaten zer egiten?

Eginahalak eginik ere jente temperamentü badük gizenzale eta besterik mehe egoile, gero artean badütük, mehatzen ahal direnak, prefosta.

Lehen ez ziea(n) holako beharrik, sailiala joaiteko patar (aldapa) horietan hoinez ebilteak erdia galerazen ziea(n), gero gütiago jaten, apürrago edaten ziean, eta esküz gero beren lan handixenak egiten.

Zerk gizentarazten düan, orai, lehenik biera (garagardo) edateak, gero arduak. Hur edateak aldiz meherazten dik, bena hebengainti orai jenteak oro auto-etan eta traktürretan, mekaniketan gainen beitarade bai, zoin zorro handiago ari dütüük egiten, eta gero ontsa eri direlarik eginahalak egiten mehatzeko, gizon horiek. Neskatila ta emazteak ez dütüük hobeki, bena kasü haboro egiten diagü, nahiz eta zombaitek arrenküren itotzeko jatenezi eta edatenezi düen. Auto baten motürrek sobera edaten badü egiten düan lanaren gatik, saltzen dük eta jenteek aldiz ez dakie ez düela indarka handirik egiten, lehen beno gütiago eta aldiz lehen beno haboro jaten. Ez dük hoberik, ez dük deus'ez egitekorik.

114. Horietarik, orotarik, erran zaharrik badüzüeia?

Urtatsez lehen erraiten ziean

urtean xerri bat

igantean oillo bat

eta egün oroz ogi

aski zela irus izateko. Gero beti zinkurinka

ari zenari, doloreak hau eta hura:

Bai, kakeria edo ezineria

Pikota ala tzürrünpia

Beti badüzü zer bait.

Eta ürsainez ari zenari arrapua "Ehün urtez" eta holako.

115. Ibilten zindena daunatua ta basa bedezien gana?

Bai daunatuen gana, bai; Joanes gureari besoa hautse züalarik xüxen ezari zioan, Maulen zen batez.

116. Etxen ikasia aski zena destrenpü eta eritarzünen igaranarazteko? Eta noiz bortxatü zinden bedezien gana joaitera?

Hihauk ezagütü dük Dordorrigan nola zen bideberritik goiti mando bidea ez züan Artelligara heltzen, gero xendaz jiten güntian etxera eta holaxe lehenago, bedezia bizikletaz

bideberriren gora horra zian, gero mando batekin txerka joaiten gintzoa(n) eta hori urte hanitzez. Andoze maxela hontan ezpeikünien bide honik merexi; gero gühaurk bideak largatü gintiea(n) eta traktürrek izan direlarik, traktürrean jaisten eriak. Halaxe ama gurea bihotzetik eri zelarik, traktürrean Errekalte - artino eramaiten ginia(n) eta behera autoz.

Bena lehenago kolpatü bat, eraitxi behar zünielarik menditik, edo bazter etxe horietarik nola egiten zünien?

A gaxoa! ordüan hagetan.

Nola egiten ziren hagak?

Behar zenean azken püntüan, bizpalaur gizon eta motikoen artean; batak sargak, edo adarrak mozten, abantxü bi metra lüzeakoak, eta haga hurak (haiek), soka batekin trezatez, alkarriloz eta artean besteak ibiltzen iratze, ostu, belar edo lasto biltzera, gaintetik ezarteko. Jentea hortan gainen pausatzen züean eta hamaka batetan bezala etzanik lau gizonen soinean eta arteka bide berri edo bide hon batetara jaisten. Laster egirik zian hura, eta kolpatüa, ezintüa emeki eta oraiako "brancard"etan beno hobeki erabiltzen zian.

117. Zerentako ez ziren lehen ospitalean sartü nahi eri zirelarik eta orozgain gizonak?

Aita züena pürü hala zian: eritarzuna, bihotzekoa gorde zian ospitaleala ez joaiteko. Gük ere zer nahi ikusia diagü gure ama eta hire tanta zenarekilan, bena haleikere azkenean emazteak aisago joaiten zütian ospitaleatara orozgain arrajinen zirela uste züelarik. Gero lehen ere ez ziea(n) nahi etxeari kosta zezan.

118. Zerentako, orai ere, popülüan ez da hanbat Ospitalean sartzea gogoko, orozgain jente zaharren artean, zahartetxeetan?

Gaixoa lehen ez zia(n) zahar etxerik, eta haurrik edo askazirik ez züen eremüts (txiro) bakant eli bat zütia(n) ospitaleatara erretiratzen. Orai, ere hanitx kosi baten edo osaba baten etxondoala erretiratzen dütük. Eta lehen jenteak ahalke zütükia(n) etxeko bat edo askazi bat ospitalean sartü balitz..orai badakik hiritako moda ari dük sartzen, haurrek ere ez ditie aitama xaharrak etxen zaintü nahi. Ni ja, ahal nizano etxen egonen nük eta arauz - seme gehiena aüzoan beütüt, ahal bezain lüzaz begiratüko nüe.

Gehigarri edo eranskin gisa.

119. Emazteen helgaitz eta astegaitzak.

Zer nahi dük lehen ez ginia(n) horier kasürük egin behar, min züanak - etxen bazen, zerbait bero - karreü bat ber gaüza ezarten züan sabelaren gaiñen.

120. Emazteen lili xuriak.

Ontsa xahatürük ere agitzen dük, zonbaitek gisala lili-xuri baten tisana edaten zian. Bekan agitzen dük..eta berhala eküratzen.

121. Emazteen odol pausü.

Hori eztük batere goxo zeren ordüan emazteek zaharaldi hon bat hartzen beütügü; lehenago, adin hartarik landa emaztea ez züan lanealako baizik hon eta bedeziek allegia "naturel" zela ez zian erremediorik emaiten lehenago. Badakik

"normal" dük emazte batek sofri dezan, bena gizonak gure doloreak balütie?

122. Pottikoen ixurteak gaüz?

Mihiseen zikintzeaz kanpo, eztük deus erraiteko hori bai "naturel" dük, potikoa sano dela marka.

Eta apezek?

Jeloskeria zerbait balinbazen sobera mastürbatzen zirela potikoak zonbaitek apezaz sarerazten ziea(n) hortan, bai otsez bizio bat zela.

123. Nola haurra sortzen züen emazteek lehenago?

Ez orai bezain goxoki, prefosta. Hoberenean etxen eta üsü lanean. So'ik hire tanta zenak Aña Bentaberrikoak jorran ari zelarik haurra jelki zioan dabantian, oihalean hartü eta etxera joan züan, pikosterxe haren motzaraztea, pausatüxe eta ondolik laneala ützüli. Püntü batez eri eli baten gisa ospitaleetan etzanik etxekitzen ziteia(n), orai, beharere jeikitzen dütük berhala.

Lehenago badakiat emazteak sütondoan hola jarririk erditzen zirela, eta ez dik aspaldi, orano, oillo salda bat baizik ez züela edaten lehen egünean - gero gordaxka izan behar dik jaten züen - bena hori ez züan handiena, ama erdiberri hanitx hiltzen züan, orano, gure amamen denboran, üsü - bedezia jiten zelarik ere - haurra salbatzen beitzen eta emaztearen bizia arriskütan ezarten.

124. Haurrak galerazten zütiena emazte zonbaitek?

Bai, ais'ere. Zonbaitek basa - emagintsak ezagützen zitien, bena hanitxek berek egiten orratzekin xilatzez, gero izan behar dik hümoia ere ürretzen züen. Gero jakiten zelarik basaemagintsa hiltzera kondenatürük züan, bena kartiel hontan - Larrainen jakin zelarik - "kantoreak" egin eta ama alabak joan zütian.

125. Emagintsarik bazena?

Atarratzen baizik ez zian. Ama gurearen denboran Madame Curutchague zian, bearnesa bat, gero hori gerla aitizinean zian; ene denborako Madame Copen Montoriko eüs-kaldüntsa zian - orano Atarratzen bizi dük...xahatürük - emazte horrek baditik Jinko Honak daki zonbat haur sortarazirik, Basabürü hortan; etxe orotan ibiltzen zian. Nik sei haurretarik bost etxen üken ditiatzat emazte horrekin, seigerrena Mauleko "maternité" (amategi) hartan, han ere emazte batek, eüs-kaldüntsa batek Madame Larre-Boucher-ekin. Zonbait aldiz bedeziaren beharra beitzen. Privat zaharra (medikua) ekarrarazten zian, ber zoñü, haur ükeite gaitzetan. Orai emazte oroek haurra ükeiten die eta kliniketan erditzen dütük, bedeziekin (medikuekin).

Gero lehen ere hanitxek aizo (auzo) bat deitzen zian emagintzaren egitera, bena ez zütian beti xahüki (garbiki) ari, eta haurrak sortü berrian hiltzen ahal zütian, eta emazteak eritzen.

3. ELIANA HEGUIAPHAL "Kalostraenea", Maule

Non sortüa zira?.

Ziberoan, Maulen sortürük nüzü.

Zer adin düzü?

Hogeitasei urte.

Zoiñ etxetakoa zira?

Etxenkoen etxaltea gain batetan dūzū, eta etxerik Maulepea, Arrokiaga, eta Gotaiñe ageri dūtūzū. Gure etxearen izena "Kalostraenea" dūzū.

Beti Maulen bizitū zirea?

Ez. Herriz kanpo bost urte igaran.

Ordūan heben berean eskolatū zira?

Bai, Baccalauréat-lartino Maulen egon nūzū. Gero joan nūzū Tarbes-era Brevet de Technicien Supérieur, delako, baten egitera, bi urteez, hanko I.U.T. (Institut Universitaire de Technologie) batera. Hanko diplomak ez beitzeitan aski lan indar emaiten Bordelera joan nūndūzūn, eta hiru urteez lizentzia bat abiatū nizūn...eta Maulera ūtzūli niz, eta dakizūn bezala Eūskal filologia ikasten ari niz Baionan, bena hūrrūntik Atarratzeko kolejoan lana hatzeman beitūt ikasle begirazale bezala.

Zer ikasi dūzū fakūltate horietan?

Kontabilitate eta ekonomia,; eta holako

Eta erremediatze, sendatze eta holakorik ez?

Ez horik, etxen eta lagūnen artean eta entzūtez. Ez dit sekūlan "kūrūtxe gorriarekin" secourisme" delakorik egin.

Eritarzūn handirik ūkhen dūzūa haur denboran?

Ez, handirik, ez. Haurren zer horik gorriña, barizela eta beste horik.

Lanean eraunsi dūzūa zure diplomekin Eūskal Herrian?

Bai heben gainti, hilabete batentako edo hola, bena beti gūti.

Ezkontūrik zira? Haurrak badūzūa?

Ez dit haurrik eta ez nūzū ezkontūrik.

Zer mintzaje badakizū?

Eūskararik kanpo, frantsesa ta anglesa ikasi ditit eta española badakit.

Badakizūa eūskararen irakurtzen?

Bai eta idazten, bena eskola horietan hanitx galdū dit eta A.E.K.rekin eseiatzten nūzū trebatzen, eta Ziberoako Botza-ri behatzen, entzūten, bena hebenko gazte hanitx ez dūtūzū eūskaldūn eta kanpotar haurrak dūtūzū, ordūan etxetik kanpo ez dit eūskara hanitx entzūten. (Bost urteren buruan lizeoko irakasle euskal titulazioa ardietsi du)



"Kalostra" "Eliana Heguiapal, andrenoaren etxondoa, Maulen



Eliana HEGUIAPHAL
"Kalostra"

Hizketaren giroa.

1990.ko Apirilaren 4a. Arratsaldeko bietarako automobileraz etorri zait Mauletik Santa Grazira, Maulen sortu ta Maulen bizi den neskatila hau. Izenak erakusten duen bezala euskaltzale familiakoa da, leinuan XIX eta XX. mendean pastoral erakusleak "errejentak" izan baitira.

Santa Graziko, gure etxean atosten dugu, eta sukaldean egur sua, behereko sua pizturik dagoela hitzegiten hasten, kanpoan sekulako euria egiten duelarik, aspaldiko partez. Sukaldeko mahain zaharraren inguruan jarriak eta artean kazeta grabagailua pizturik galderak ordu bete t'erdiz egingo dizkiot.

Hasieran dio ez dakiala ezer, nahiz nekazari etxalde batean jaio, kanpoan egon baita, baina bere hitzegiteko moduan motza bada askotan, beharrezkoak esaten badaki, nahiz bere hizkuntza trebetasuna dudatan jarririk ez den beti euskararen lekuan erdal hitzaren erabiltzera ausartzen.

Galdeketa denbora gehienez, gure gatua altzoan egon zaio eta nahikoa lasai ibili gara; halere ez bainuen azterketa girorik sortu nahi, une labur baten buruan erantzunik ez balin bazuen aurkitzen, beste galdera batera gindoan, hor behar bada bere jakituri sakonena bere kompetentzia osoa ez diot bildu, baina garrantzitsuena irudi zitzaidan zela auzoan eta etxean entzun eta ikusiak aipatzea.

Mauleko berriemaileaz irazkin eta laburpenak.

Orokorki hartuz, konturatuko zarete belaunaldi berriarekin, alde batetik jakituri asko eta gaitz askoren izenak galdu direla ezen

1. Gaitzak galdu direlako.
2. Euskara murriztu delako.

Bestaldetik etxe-sendakuntzaren errezeta mordo ona gorde da.

Hirugarren oharra lizateke, azken hogeit urteetan aintziña eman zen sendakuntzaren heziketa ez dutela oraingo gazte gehienek izan (hori bagenekien guhaur higie ta biologia erakasle izanik, nolako zentzugabeko programak eskaintzen zizkiguten, nik aplikatzen ez nituelarik). Beraz askotan alabek amek baino guttiago dakite higie, erremedio eta gaitzez.

Laurgarren, antipsikiatriaren unibertsitari jakituria nola sartu den gazteetan, hor dakusagu argi, gizartea delarik gaitz iturri:

1. Bildurrak jendea mututzen, zorabiatzen, ohean txisa.
2. Sendagailuek zainetatik eta burutik gaixo direnei kalte egiten dietela...
3. Seksu frustrazioa motikoetan..

4. Errez esatea lana dela gaitz iturri, (ez ditu lan ixtripuak gogoan) eta ez alkola.

Bostgarren, osasunaren aurrerapen asko agertzen dira ez bakarrik gaitz zenbaiten izenak galtzen direlako baina berriemaileak baitio, ez dituela ez ikusi, ez entzun aipatzen, beraz sendakuntzaren beste kondaira batera goazela irudi luke.

Gaitz ezagunenak, neskatila gazte honekin, berriemaile zaharragoekin erkatuz oso bestelako dira: minbizia, atsoztea, tristezia, bihotzeko mina nagusi.(1)

Nahiko zehatza da **kutsua** (kozüa)aipatzen duenean, gorputzaren barrengo egitura txarra, jateko eta fisika arrazoina (hotzberoa), lana, zaharren higatzea familiatik (odoletik) etorri ahuleziak eta gaitzen aldeko minberatasun desberdinak aipatuz. (4. erantzuna).

Ametsak eta ametsen iturria zer diren ondo aztertzen du, eguneroko bizitza, janariak, edariak buruaren ezin gelditzea,baita ametsen desoreka, ta nahasi itxura (5.)

Ursainaz (estornudoaz) gauza jakingarria besteek eman ez dutena gibela purgatzen duela (6.)

Gauazko aireaz diona ere bitxia da ezen beste berriemaileek ez baitigute - beste gaitetan entzun dugun - gauaren bildurra aipatu eta neskatila gazte horrek bai. (7.)

Etxean aireztatzeaz berriemaile honek du hobekienik azaldu nola - ikusten den bezala kanpotarren harriduraz - leiho zurrak udan itxitzen edo juntatzen diren, beroa sar ez dadin (8.)

Dietetikaren axolarik ez dagoela etxean dio nekazari etxean bizi baita dio, baina hori European egindako azterketa guztietan agertzen da, askotan, gaizkienik jaten dutenak gaurko nekazariak direla, bere kasuan eta bere familian gizenzale ez diren ezker horrek ez du axolik.(15.) halere aurretik aitortu du gizenak, gantzak, abereen koipeak kalte egin dezakela (11.)

Galdu diren eta bere etxean praktikatu ez diren sendabi-deak hauek dira, sangratzea (odolkentzea, 17.) zizainen ipintzea, ur eta bainuetan ibiltzea, (19.) bentosak (20.) purgak (22.) errakitismoa ez da argi ikusten (24.)

Gangrena zer den ondo badaki eta nekazari giroan gerta ditek gaitza baita (25.26.)

Begiokerrari, gerlo dio (Pettarreko azpieuskalkian) zibe-rotar gehienek **begioker** diote (30.)

Hagin kentzaile moduan barberoa aipatzen du, baina berak entzunik ez ikusirik (37.)

Haurren haginez eta **ohean txisegiteaz** erantzun ohi-tua ematen du, eta zuzena (39.40.)

Egurizpi ta eskarden kentzeko bi modu eskaintzen ditu, bata azalean dagoenean orratz batekin, bestea kanporazteko apotearen maskuri larru zatia (41.)

Mutu ta gor bilakatzearen arrazoinak aski ugari ditu Eliana-k bildurra, jaiotzazkoa, zahartzea, zarata. (42.)

Sorginkeriaz etor daitezke gaitzak, eta sorginak (beste batek) senda, gero hartatik babesteko, baratxuria arropetan eduki behar. (50.)

Sendatzeko deboziotatik, Zuberoako Santa Grazi ta Biarnoko Sarrantze galdu dira, bakarrik geratu da Bigorrako Lurdes ezaguna.(54.) Bestelan azti sendaketaren beste entzuterik ez dauka, ez sasiotoitz, ez gauza lurperatze, ez

igurzketak, ez zerbaiten azpitik edo ginetik igarotzeak (56-60. erantzunak). Bakarrik aipatzen farmazia batzutan saltzen diren kobre-eskuturrak (61.)

Sukarraz egin galderei zuzen eta zehatzki erantzuten du (64.66.67.68.) baina aintziñako erremediorik ez du ematen

Eztul ta zinturreko minarentzat errezeta ugari ikasi ditu amarengandik, auzoan entzunik eta abar:

- sasiosto irakitura
- esne bero ta gantz gatz gabea.
- ron hutsa edo ron ta ura bero (69.)

Bronkopneumoniaz (marranta sühartüaz) sendagailu jakingarria ematen digu, kataplasma modukoa, egunkari orrialdeak milgorraz beteak bularrean oihal batez estuturik (71.)

Coqueluche (txakureztul) hortaz erremedio bitxiak eta jakingarriak ematen dizkigu hala nola:

- barakuilu egosi ura
- arraultz bati kuskua malguarazi, ozpinarekin ginetik ron ipiñi eta dena iretsi (72).

Tuberkulosia. Neskatila horrek, ia ez daki zer den, aintziñako gauza bezala balitz eta ez daki - Frantzia behintzat - alkolismoa eta gaizki jatea dela, emallea. Bitxi da nola **probeniste** izen zaharra galdu den baita orain **potrinako** min, **potrinaide** gaskonismo delakoak ere. Egia da, aintziña hola-ko bildurra ematen zuen gaitza, orain kalean, hirietan aurkitzen dela (73.74.).

Anemia edo odol ahuleziak. Huts bat egiten du alegia gaixoa itsasaldera eroan behar dela. Galdeketa guztian bi huts baizik ez ditu egiten hola (77.).

Odolaren garbitzeko, jakingarria da, Donibane egunaz bildutako intxaur ostoen erabilera (78.).

Esteetako zizareez diona oso jakingarria da eta ematen dituen errezetak ere

- **Xixari belarra**
- baratxuriak lepo inguruan, sama inguruan.
- ur asukratu, gehi, ron, gehi, olio.
- kedarra urean.
- kuia azia egosirik (83.).

Saihetseko puntaz, dio bi mota daudela bata korrika ibiliz, azkarregi ibiliz etor litekena bigarrena (kolita?) beste aldetik jan ondoren.

Buru eta nerbio gaitzak. Oraingo edo jadanik atzoko azalpenez gehienbat mixerari eta gizarteari lotzen ditu eta haien sendatzea nekeza dela, sendagailu guztiak kaltegarri direlarik (91.92.93.94.)

Hotzaren kalteak larruan, ez ditu ezagun, alde batetik ez baita mendian bizi eta besteetik aintziña gaizki jatetik etortzen zirelako (95.96.).

Marrukak (verruka). Horien sendatzeko, besteek eman ez duten sendagailu ematen du Eliana-k, piko berde esnea (99.).

Herpes, a ondo ezagutzen du, baina sendagailu zaharrak ez dio ezagutzen (102).

Konkorraz hitzegiten duenean, lan gehiegi egitearekin lotzen du: nahiz gaur nekazariak ez duten indarlan askorik egiten, edo ez aintziña bezainbat eta haina, lana gaitz-iturri agertzen da nekazari sendietan.

Itzemin (panarizo) delakoarentzat errezeta jakingarriena "ogi bihotza esnez bustia" da.

Utsülarrü (furonculus). Bi errezeta, besteek ez emanak, malba ostoa olioan, eta esnegaiña (nata) ogi mamiarekin (109).

Azaleko zaurientzat, gaurko sendagailuez kanpo, bi errezeta "inflamatio", **süharra** denean

- Sühar ostoa
- urdaia (110).

Gorriña (zarrampion) Pettarreko hitza darabila Basabürüan **zürrümpi** esaten zaio.

"Errein" zubereroaz, frantsesez bezala eta agian horren kutsuz, gauza bi izan ditezke

1. **Bizkarra**, eta "erreinetako mina" lombuetako mina. Bizkarretik minez ere esaten da, baina goiko aldean min delarik.
2. **Giltzurriak**, zubereroaz ere "giltzurri" esan daiteke baina animaliez ihardutean nahiago da erabili.

Gure neskatilak biak ondo bereizten ditu eta oso ezaguna den "gerezi kirten" tisana sendagailua ematen digu (114.).

Zaintiratua (zainhauzia) eta lukkazioa (anbüratüa) ondo bereizten ditu berriemalleak, nahiz hiztegia, euskarazkoa, hor ez ondo menderatu (116.).

Urkatu eta itoekin zer egin badaki Elianak (118.119.).

Bizi señaileak, arruntenak ezagutzen ditu baina ospitale-takoak ez (120.).

Pozoatua. Jende askok egiten duten hutsa esne ematea (122.).

Tximistaz. Zer ez den egin behar eta zer gertatzen ondo badaki, baserrian jaioa delako (123.).

Sendagile ta **sasi sendagileekin** harremanak. Amama ibili zela txingolaren gatik Mintikileko petrikilloaren gana, bes-telan ez. Entzutea baduela ezur zuzentzaileek jarraitzen dutela eta medikuraren gana joan baino lehen, beren buruak artatzen saiatzen zirela...orain ezongi txikientzat ez dira iñora joaiten...baina zaharrak ezongi haundietan ere ez dira joanzale (130.131.132.)

Emakumeen odol galtzeaz, lili xuriez, eta odol gelditzez ezagupen arrunta dauka, baina errezetarik ez du ematen. Odol pausü (menopausa) ez du ondo ezagutzen - ez da oraindik bere kezka - loditzea, ta gizentzea zaio nabarmena.

Haur jaiotzeaz, emakumeen erditzeaz. Badaki ondo garai batean auzoko andere batek lagundurik, etxean, ohean etzanik egiten zela, eta aintziñago belauniko (139.).

Haur galerazteaz (abortoaz). Lehen eta orain berdin zela badaki, bakoitzak bere buruari, senarrak, auzoak eta egiten zutela...baina badirudi aintziñan, haur jaio berrien hiltzeak ere ematen zirela (140.).

Gizonezkoen eta motikoen gaitz eta seksu arazo larrienez zerbait badaki, gaurko, edo behintzat 70. urteetako azalpenekin ematen bait ditu, baina kontutan hartu behar da, egun batean, geroko belaunaldiekin gure antzeka azterketak egingo direnean, holako ideiak herrian sartu direla, hala nola aintziña, morfopsikologiakoak (137.138.).

1. Zoin dira gaitz edo eritarzün ezagüenenak zuretako?

Aipatzenenik dena minbizia düzü, Sida Ziberoan ez hanitx, bena bazter horietan bai. Bihotzeko mina, bai, üsü gizonetan. Zaharrentako eta ospitaletan direnentako erraiten dizüebürüa galtzen düela. Tristezia ere badüzü nahiz gazte-etan nahiz zaharretan eta zonbaitek beren бүрүak hiltzen ditzüe. Tuberculose eta bakzinatzen (txertatzen, indizio egiten) gütüen eritarzün horik, üdüri dizü galdürük direla.

2. Eritarzüna edo osagarriaren txipitzea biloetarik ezagützen ahal dea?

Biloak argi: ontsa zira, eta gero latz direlarik akitze edo gaixki jate, holako zerbait badüzü.

3. Begietarik ageri dea? Ezagützen ahal dea eria?

Begia, amiñi bat hollia, bai begiko xuria hollixka (horiska). Ez zakit nola erran eüskaraz, zerak gibeledoko minak emanik, larrüa ere hollü düzü. (**Min hollia düzü**). Begia gorri izaten ahal düzü, akitürük (nekatua) baldin bazira, gero errautsak egin lirozü, ekiak (eguzkiak) ere bai.

4. Eta bepürüetarik

Ez dakit.

5. Berez edo kozüz jiten diren eritarzünak, berhexten direia?

A bai, barnean zerbait gaixki eginik balin badüzü sortzez eritarzün bat emaiten ahal deizü (**zaharrek nokü deitzen zizüen**). Gero bigerren süberte bat jatekotik jiten eritarzüna düzü. Gero hirugerrena hotzberotik, ekitik. Gero higadüra badüzü zaharretan. Lanak beste süberte bat Herediteak, odolak emaiten ditzü familia zonbaitetan bihotzaren, gibela-ren, minbiziaren alteko flakezia.

6. Zoin dira jenteen temperamentüak? Hotz eta beroak zainhilak eta "nerveux"ak.

7. Zoin dira bizi molde eritarzünak: lanak, janariak eta edariak emanik...zikinkerian bizitzeak ere.

8. Zertarik horra dira ametsak?

Nola erraiten da..hüna..bürhüna (burmuina) beti ari düzü lanean, zonbait aldiz egünaren kurtsuko gaüzak arra jiten, ützüiltzen dütüzü beste gisaz...eta desordrean. Sobera jaten delarik eta edaten amets itsusiak egiten ahal dira.

9. Zer erraiten da ürsainetzaz? Zer pentsatzen da?

Errautsetarik horra düzü ...hon egiten dü. Ürsain hanitx egiten delarik ziozüe hon dela gibelarentako...gibela pürgatzen.

10. Gaüzako aideaz zer dio jenteak? Hobeago dela tzarrago dela?

Kanpañetan jenteentako tzarrago düzü, beti beita holako lotsa bat..gaüarentako. Gero zerena lanjerus (arriskutsua) düzü, marranta, katarroa emaiten beitü. Gero hiritan ez düzü ber gaüza, egünaz aidea "pollué" beita, fabrikek eta automobilek pozoatürük, han ordüan heltübada aidea sanoago düzü, gaüz.

11. Jenteek zer egiten dūe kanberetako aidearen berritzeko eta noiz? (Behar dea leihoa zabalik ūtzi gaūaz?)

Salbūeta ūdan leihoa zabal zabalik ūtzen ditizūgu bitre (kristal) eta kontrebentak (leiho-zurrak). Gero ūdan leiho zurrak jūntatzen ditizūgu barnen freskūra amiñi baten begiratzeko.

12. Oihalik, eritarzūn edo min emaiten ahal dūenik badea?

Bai, nilona, larrūn gaiñen..

13. Zertarik horra dira eritarzūnak ?

Mikrobek emaiten ditizūe.

14. Badea min edo dolore osagarri marka direnak?

Haurretan bai, haginak jelkitzen direlarik, ordūan bai gero handitzen direlarik..fiebra (sūkar) ūsū, eritarzūn bat.

15. Janari ta edarietan zoin dira ogenegile handienak?

Urina..agian sūkrea (asukrea)..bena kari nūzū edarietan alkohol sobera.

16. Barneak zer freskatzen eta zerk berotzen dū?

Freskatzeko, eztakit..entsalada..(h)jura..frūta gero berotzeko, kafea...edari beroak..alkohola bere heinean..bena azkarregi berotzenegi dizū.. Gero aragiak.

17. Eritarzūn bat gertatzen zelarik edo delarik nori galtatzen dūzūe aholkū bat, abisū bat?

Ez dizūgu bedezia (sendagilea) berehala deitzen gūhauk ikusten dizūgu grabe denez ala ez, bena ez kūtūzū aūzoan ebiltzen galtatzera.

18. Jentea sendotzen ari dela zertarik ezagūtzen da?

Alagerago beita..ontsa, hobeki jaten dizū eta gogo honez. Begietan ageri da, larrūaren kolorean begitartean orozgain.

19. Eritarzūnen hūrrūntzeko zerbait egiten ahal dea?

Usūan deuse ez..gero bakzinatzeak (bakunatzeak). Etxen laborari etxe batetan gūtūzū eta ez dizūgu kasūrik egiten..ez holakorik (Aata ez zira gizen?). Ez gūtūzū gizenzale familiar. Gero, agian, soberak sobera jate eta sobera edateak ogen egiten ahal dizū. Etxen ez gūtūzū sobera arrenkūratzen horietzaz. Prefosta kasū egin behar dizū ez gūtūzū...asetzen, bena uste dit normalki bizi girela.

20. Azkartzeko edo sendotzeko zer etxekitzen dūzūe etxeetan?

Ba..jatekoaz kanpo ..anpolak farmazian erosirik irandja jaten, ardo bero edaten...

21. Eri delarik jentea señatzea, odol hartzea egiten dela entzūn dūzūa?

Ez ..kabalentako beharritarik egiten zela entzūn dit, bena orai jente sanoer dizūe odola hartzen kolpatier emaiteko.

Eta zizaiñen ezartea entzūn dūzūa?

Badakit zankoetan lotzen direla hur zonbaitetan bena ez nakizūn erremedio bat zela.

22. Hur edaten eta maiñuen entzūtea badūzūa. Egiten zena egiten dea? Non? Noiz?

Ez dit entzūn gure etxen norbait ez Ahūzkin, egonik hur edaten ez Gameren, Garaibin edo Akizen maiñatzen, bena badakit egiten zela, eta egiten dela.

23. Larrūn gaiñen godalet (bentosa) ezarten ikusi dūzūa?

Ez, hori, ez.

24. Goitikaren lagūngarri zer erabilten da? Noiz egiten da? Noiz bortxatzen goiti errandatzera?

Eriak ahoan sartzez...

25. Pūrgatzen ziradeia etxen?

Ez, ez...

26. Hoin-itoia, gotarentako zer egiten? Zertarik horra den?

Jentea txainkū dūzū..hoin behatzetarik minez..eta eskūtik ere. Aragi sobera eta alkol edatez ez dea jiten.

27. Sinesten dea eritarzūn bat begigaistotik jiten dela. Zer egin behar da ordūan? Nola agitzen da?

Ez zizūn nor nahik egiten, belagileek egiten zizūen eta beste belagile bat (sorgin bat) ikusi behar zūnian sendotzeko, eta ez agitzeko soñean baratxuria ūken.

28. Nola erraiten da "contagion"?

Planeta. Ez hori "épidémie"a dūzū. Ene ustez "contagion" kozū (kutsu).

Zerk emaiten dū kozūa?

Aideak, hurak, jatekoek...

Bai bena zertarik jiten da?

Mikrobek emaiten dizūe, arauz...

29. Entzūn dūzūa sendotzeko, debozione bat edo batzū hitzemaiten ahal direla?

Bai, Lurdes.

Ez dūzū entzun Sarrantze ta Santa Grazi aipatzen, hortarako?

Ez, ez...

30. Etxeetan minaren edo eritarzūnaren galerazteko basatoitzik ezagūtzen zūena? Keiñūrik egiten?

Ez, ez.

31. Kabale ta jenteer gaizkirik nahi gabe, entzūn dūzūa, bena desiratzenegiz eritarzūn bat emaiten ahal dela? edo eraiten (hiltzen)?

Ez dit entzūn holakorik, sekūlan.

32. Galerazten ahal dea min bat zerbait lūrpean sartūz edo...

Ez dit entzūn.

33. Fretatzeak (igurzketak) ez dū min bat galerazten?

Deuse ere gabe, ez.

34. Zerbaiten gainetik edo petik igaraitez senda ditela entzün ote düzü?

Ez.

35. Zerbait hürrün urtikitzez, idortzera, tzükatzera ütüz?

Ez.

36. Eri den günea mesüratüz sendotzea?

Ezetare.

37. Zerbait ezarten ahal dea arropetan, minen ezitze-ko?

Arropetan ez dit entzün, bena kobrezko ukaraia bai.. farmazietan salgei düzü.

Mina mesüratüz, izariz, galerazten ahal ote da?

Ez dakit.

38. Zoin da egünik hoberena erremedioen hartzeko?

Ez dakit.

39. Zertako eta nola izertarazten?

Sükarraren igaranazteko egiten düzü eta hortako ohean ontsa tapatürrik, ohestalgi hanitxekin, ardo bero edanerazten ahal düzü, eta tisana..

40. Etxeetan gantzügailü batekin fretatüz minbat? Lehen, orai? Galerazten ahal da?

Bai, bena gühauk ez dizügü egiten ..erosten baizik.

41. Sükarra zertarik heltzen da? Zer sendagailü bada eta bazen?

Eta kozütik..edo kozü gabe.

Sükar süberteak ezagützen dutüzü?

Ez.

Zer erremedio, zer etxe erremedio düzüe?

Ez dizügü..Aspirina har eta ... Amañi zenak bazakizün.

42. Eztül eta züntzürreko minentako zer erremedio bazen? eta bada?

Ezne beroa eztiarekin züntzürrentako hon düzü; gero kapar ostoa, nahar ostoa (sasiostoa) herakitürrik tü gizenaren librarazteko.

Erremedio xaharragoak izan behar dizü, aüzoan entzün düdana beti ezne beroarekilar, bena hartan botitürrik (nahasirik) urin (gantz) gatz gabea. Gero hanitxek erroma (ron) edo erroma ta (h)ur beroa edaten dizüe, ez dakit haiñ hon denez.

Marranta sühartüa badakizü zer den?

Bai, bronko-pneumonia.

Eta zer egin behar da ordüan?

Hori entzün nüzü, besterik ezpada eta bedezia jin artean, milgorra hurtüerazi eta egünkari baten paper ostoa hartarik ontsa fretatü, ontsa urinstatü gero bularrean pausatü (ipiñi) oihal batekin tinkatü eta gaüa osorik soiñean begiratü (eduki).

43. Eta nola erraiten da "coqueluche" eüskaraz?

Ez dakit nola erraiten den bena zonbaitek karakollak bildü, egosarazi eta haren hura gaintitü, iretsi. (Gaztelaniaz **tosferina**, euskaraz **txakür eztül**).

Beste zonbaitek ziozüe binagre baso erdi batetan arraultze bat osorik behar dela ezari, küsküa gal artino eta gero kuilerata bat errom (ron) alkolarekin ontsa nahasi eta gaintiarazi, iretsarazi.

44. Nola erraiten da, nola erran zenezake "tuberculose"?

Eüskaraz ez dakit nola den. Hitz horren erabilpenik ez dizügü (**Bularreko mina? Potrinako mina?**) Lehena marranta sühartüa lükezü, bigerrena ez dit batere entzün...ez düzü agitzen lehen bezala.

45. Nola hatzaman liteke holako min bat?

Lehenago gisala, marranta ez zenean soenatürrik (artatua). Pipazalei...agian agitzen ziezü...bena hotzean bizitzez agi litezü.

46. Südürreko odol galtzeak beste izen bat badü?

Ez.

Zer egin behar?

Lepo gibelean garondoa, izotz edo zerbait hotz ezari, eta bürua ez behera, ez gibelegi; azken hortan odola gaintitzen beita: ene ustez bürua xüxen.

47. Zer emaiten da odol ahülezietan?

Bitamina hanitx..eta süberte hanitx. Eta ez dakit "globule rouge" güttlegi delarik ez dea itsasoala (sic) joaiten? (Ez, ez mendira segürrago).

48. Odolaren xahatzeko zer egin behar da?

Entzün dit Jondane Johane egünean, intzaurtze ostoak bildü eta tisana bat egin. Bena etxen ez dizügü sekülan egin.

49. Zerk nahasten dü estomaka? Eta zer egiten da?

Jateko tzarrak edo soberak..edariak.

Zer egin behar da?

Etzan siesta bat egin.. zonbait aldiz etzatearekin goitika-ko mina jiten den. Tisana tillul bat hartzen ahal düzü.

50. Nola deitzen da eüskaraz "diarrhea"? Zer egiten zaio?

Kakeria..beheitikoa..

51. Xixariak zer ogen egiten düe? Zer ogen egiten?

Haurra xixariekin delarik, alde batetik akitürrik (nekatua) eta besteetik "enervatürrik" edo zaiñak aidean. Jatekoan hartzamaiten dizü, jateko zikinarekin ..eskü zikinekin.

Nola galerazten dira xixariak?

Espreseko pürgak badira, bena lehen **Xixari belarra** ezagützen eta enplegatzen zizüen gero erraiten zizüen xixariak tzüntzürrialat (zintzurrera) heltzen zirelarik lepo üngürüan baratxuri ixter korda bat igaranik esteki behar zela.

Zonbaitek gisala edaten zizüen, (h)ur sükratü, errom (ron) küilata bat (kutxarada bat), olio küilata batekin botitürrik (nahasirik).

Besteek kerradea (kedarra) (h)urean hirakiarazirik.

Azkenek küia azia (h)urean egosirik edaten.

Ez dakit erremedio honak zirenez bena haurrek eskü zikinekin üsü xixariak biltzen zitizüen lehen, orai eskoletan ez düzü, laborari etxeetan bezain aisa.

52. Sabela gogortürük delarik zer egin behar da?

Irandja (liraina) jan, tisana egin.. Ez dakit ontsa.. gero bai, bai, porrü herakitüa, entsalada gogorrak.

53. Goitikatik landa zer eman behar zaio, arren norbaiti barne eztiagarri?

Ez dakit.

54. Zertarik jiten da gibelesko mina?

Jatekoak..sobera.. Virus batekin..kozü batetik jiten düzü; gero gibelesko edo gibelaren minbizia badüzü.

55. Nontik jiten da min horia?

Zer da? (Iktera) .. Ez dakit.

56. Hotzarekin: ik. marranta.

57. Saihetseko pünta nontik jiten?

Lasterka ebiltetik horra düzü, agitü (gertatu) zait.

Eta zer egin behar da?

Eküratü (gelditu) ta pausatü (atseden hartu)...etzan. Nik badit zorbait aldiz esküineko gaintian pünta bat bena ez düzü bera.

58. Bürüko mina zertarik horra da? Zerk igaranarazten?

Kearekilan...marrantarekin..akidüra..eta griparekilan,

59. Bürüngürüa, "vertige" zertarik jiten da?

Sükarrak ...alkolak..goratarzün batetan izateak.

60. Zainetako ta bürüko gaitzentako, (neurosis ta psikosientzat) erremediorik ote da?

Ez dit uste ez..ez dizüe ihur sendotzen..jenteak flakatzten.....

Zer da depresioea zain eta bürütako mina?

Lo egitera bortxatzen ditüzue eta aste batez pürü, bena gero ez dütüzü sendotzen.

61. Bürütik nahasia zer da, nola erraiten zaio?

Ertzoa.

Ea zertarik jiten da erokeria? Zer egiten da?

Bizitze gaixto batetik landa ..edo zainetako eritarzün baten ondotik ...kolpü tzarren gatik.

Zerk sordeisten dü eritarzün hori?

Erremedioek..eta heltübada berak üdürükoekin egoiteak.

62. Nola erraiten da eüskaraz Danse de Saint Guy?

Ez dakit.

63. Eia nola sendotzen da mozkorkeriatik?

"Desintoxication" eginarazten dizüe..bena ez dakit beti kausitzen düenez..borontatea haundi delarik bai. Ahal düzü..

64. Hotzarekin haurrer jiten zietzü "engelures" edo hazkordiñak, badakizüe zer den? Zer egin behar da?

Ez dit üken..ez ikusi, entzütea badit, bena ez dakit nola sendotzen den.

Eta iñhardüra?

Zer da? (Ezpainetan hotzarekin jiten dena)

Ez dit ezagützen.

65. Badakizüa zer den epilepsia eta nola erraiten den eüskaraz?

Ez dit sekülan ikusi eta etxen ez dit entzün aipatzen. (Erorteko mina), bena badakit erorten delarik kasü egin behar dela manka ez dadin, arropak laxatü, mihia elkarazi.

66. Zertarik huna dira haurren sükarrak?

Badütüzü, üsü, hola direnak handitü artino.

67. Zer dira larrü txoriak?

Ez dakit.

68. Eta marrükak?

Odol zainetarik horra direla uste dit, ez dütüzü handi bena üsü (ugari) dütüzü.

Nola galerazten dira? Marrükak?

Marrankoa ez da moztü behar, bena gaiñen piko berde eznea ezarri behar zaio; gero malba ostoa gisala hon düzü hortarako eta farmazietan erosten den zer beltza...

69. Zer dira babak? Mandoak?

Ez dakit.

(Frantsesez "cor" düzü)

A bai, hoinetan agertzen diren gogordürak.

Zer egin behar zaie?

Ene ustez motzarazi, elkarazi.

70. Nola erraiten da "l'ecchymose"?

Zaude! entzün dit, odoluria.

Zer egin behar zaio odoluriari?

Deuse ez..ez dea bera igaraiten?

71. Begi eta lepo hankürentako zer egin?

Ez zakit.

72. Nola erraiten da eüskaraz "herpes"? Zertarik jiten da?

Badakit zer den bena ez dakit ziberotarrez erraiten. Zertarik jiten den? Virus bat düzü..beti arra jiten, beti agertzen düzü ber leküan.. Nik badit bat jiten dena marrantatürük nizalarik..hortxe ezpainenetan. Gero akidüra eta kontrariamentü bat elkerazten deizü. Jente oroek badizüe gisala. **Zer erremedio erabilten düdan?** Hatsarretik hartzen bada "cuterpes" farmaziako pomada hori hon düzü.

73. Zoin dira ezagützen dütüzün larrü min motak? Nola igaranarazten dütüzü?

Ekzema eta horik badirela badakit, bena ez dakit deuse...

Badakizüe zer diren itzemin ta erherakiak eta zer egin behar zaieen

Entzütea ..(itzemina, erherakia "panaris" düzü frantsesez). A bai, entzün dit hur bero gazitüan eria (atza) sartü behar zela eta barnen baldin bazen elorri edo zikinkeria zerbait hura elki..gero zorbait "erhi-mina-rentako" ogi bihotza eznean trenpatzen dizüe eta harekin mina hersatzen.

Utxülarrü bat zer da?

Ez dea "furoncle" frantsesez?. Lehenik gorridura bat dütü, gero materia bat agertzen dütü, xuri, erditan eta hon-tzen dütü eta lehertzen, hūsten; lehen bi erremedio baziti-zūen:

- malba ostoak olioan trenpatūrik
- ezne gaina ogi bihotzarekin.

Piko eta piko sūhartūak, hots axaleko zauriak nola artatzen ziren eta egiten dira orai?

Lehenago, behar zen Sūhar ostoia, olio amiñi batekin minean ezarri, hersatū beno lehen, zombaiten ustez; besteek hala nola aūzoan, txinkor xuria (urdaia) minaren gaiñen, bena gero etxeko gatū gūziak beti ondolik zilitūn.

Orai, prefosta, "merkurokroma" eta "ioda" eta dakin eta holako droga horik ezarten ditizūgū minetan eta ez dūgūlarik hur beroz eta "eau de Javel" (lejja) horrekin minak xahatzen (garbitzen).

74. Būrüsoiltzea zertarik jiten da? Zer egin biloen ez galtzeko, haien begiratzeko? Eta berriz sorarazteko?

Aitak ūken zizūn tifoidearekin. Zer egin behar den? ez galtzeko? Ez dakit ez eta

75. Berriz sorarazteko.

Erreklamen erabera mirakūillū egiten dizūe..eta biloak ere arra lantatzen.

76. Eta biloa nola karakoilatzen da? Zertarako?

Zombaiter ebiak egiten diezū, bena eni ez..bestelan per-manentez kanpo, būrdūin bero batekin.. Eztūzū eritarzūn sei-ñale.

77. Hoinetako izerdiaren galerazteko? Ala ez da gale-razi behar? Urrina nola estal?

Ebilteko, inkatza ezar..eta gero ūsūago talka. Gero far-mazietan ūrrinaren (usainaren) galerazteko drogak saltzen ditizūe.

78. Zer erraiten da bizkar konkordūnetzaz? Nola jiten da? Zer egin?

Deuse.. Heben gaindi bekan dütü..Zertarik jiten den? Sortzez edo lan sobera eginik. Zer egiten den? Deus ez dütü egitekorik.

79. Erredūren, kiskillien galerazteko zer egiten da?

Erradūra ezpada barna, hala hala ūtzi, merkurokroma amiñibat igaran eta..kiskilliak hur balin badū..hari bat eta orratz batekin xilatū..eta hura elki..

80. Zoin dira haur-denborako eritarzūnak? Gertatzean zer egin behar litake?

Gorriña...gero barizela, rubeola, eskarlatina. Zer egin behar den? Etxen etxeki, eskolalat igorri gabe..amost egū-nez pūrū ..beropean. Bedeziari erakutsi beti ondoaje tzar bat ūkeiten ahal beitūe.

81. Zer da urtemina edo zer dira haurminak?

Ez zakit ez (Būrüko larrūan jiten dena). Ez ez dakit ez dit ikusi, ez entzūn aipatzen.

82. Zer da erreñetako mina? Zertarik horra da? Nola igaraiten da?

Biga badütüzū, bata bizkarrekoa lan torpe hanitx eginik, bestea barneko erreñetakoa..ez dizūe aisa pixegiten ..gere-zi būztan tisana hartzen dizūe.

83. Ezūrreria eta hoin-itoia? edo beste errematisma mota batekin agi bazinte zer egin ziniro?

"Régime" egiten. Ez zer nahi jaten..Erremedio hartzen. "Massage" zombait ere uste dit.

84. Haur opatū bat zer da? Zer egin behar zaio?

Ez dakit zer den ("rachitique"). Ez dea sortzez?. Frantsesez ere ez dakit ontsa zer den.

85. Zer da gangrena?

Sūhar sūberte bat, piko bat barna egiten badütü kozū bat hara heltzen ahal dütü, bai ezūrretan ere ta odola ez dütü haboro kurritzen. Menbretan dütü, ūsūenik agitzen.

Eta zer egin behar da? Zer, gangrena delarik?

Menbrea moztū gangrenaren alde gainetik..hori entzūn dit.

86. Begietako minak zoin dira?

Begi gorria aide kolpū batetarik jin litezū.

Begiko xuria?

Ez dakit zer den.

87. Errautsa begitik idokitzeke?

Goiti būrūz so egin..betezpala tiratzen. Oihal xahū bate-kin zikinkeria hura elkitzen (kentzen) dütü.

88. Begia xūxen ez dūanari nola erraiten diozū?

Nik ..gerlo..bena ez dea erraiten begi oker ere.

Zertarik horra da begi okerreria?

Nik ez dit deuse entzūn...heltūbada familletan odolean dütü..ez dakit.

89. Utsūtzea zertarik jiten da?

Katarraktatik...zaharretan.. Eritarzūn bat izaten ahal dütü..edo begiak zilatūrik...edo sortzez.

90. Beharritako minik ezagūtzen dütü?

Bai, otita haurretan.

Zer egiten da igaranazteko, sendatzeko?

Ez dit ikusi egiten. Bedeziaren gana joaiten..

91. Zer da lepoko xerria? Zer egin behar galerazteko?

Ez dakit. (lepoa hantūrik denean). A bai, "le goitre". Operatū behar dizū harek, ez dizū beste erremediorik...

92. Zertarik jiten da hagineta mina haurretan? Handietan?

Zombait aldiz hortzak xilo txipia badizū..edo haginak pusatzen direlarik. Prefosta handietan ez dizūe hortzak han-bat pusatzen (hazitzen).

93. Nork idokitzen zūtian haginak lehen?

Lehenago, bena aspaldi badizū, barberak.

Entzūn ote dütü dentista bat ez zen batek hagina idokirik?

Ez. Maulen, aspaldian badütützü dentista eta jenteak hara joaiten ...edo ez zütüzün (ziren) batere joaiten. Haurrek eriekin (atzekin) tiratzen zitizüen, eta gero entzün dit hari bat alde batetik haginean lotürrik eta besteetik borta zabal bati, borta (atea) zerratüz idokitzen zütiela. Eni ez zitazüt agitü, ja.

94. Nola lagüntzen ahal da haurren hagin egitea?

Txipi direno zerbait gogor usukitzera (ozkatzera) mina igaraiten ziezü..bai kullera edo zerbait gogor emaitzez, haginak larrüa hobeki zilatzen dizü.

95. Haurrek pixegin ez dezeen zer egin behar da?

Ez dakit. Ez zitazüt agitü. Bürüko, zainetako zerbait düzü hori..heltübada lotsa (bildur) batetarik landa.

96. Iratzotz eta elorri bat sartzen bazaizü larrüan zer egin behar da?

Ixkillima bat errerazten düzü eta harek txistatüz elorria (arantza) idokitzen. Zonbaitek - ez bada aisa elkitzen (ateratzen) urde - kotxoaren (apotearen) pixastürü (maskuri) larrü puxka bat gainen ezarten dizüe.

97. Zertarik jiten da, mütü gor eta motel izatea?

Lotsa (beldur) izigarriak mütützen dizü edo sortzez ere, ez dakit. Gero gor herots (hots) azkarregi, ozenegi sobera entzünik..gero adinarekin zahartzez. Gero motel ez dakit..

98. Zaurietan, pikoetan odola galtzen delarik nola ekürüaraz lite (nola geldierazi)?

99. Txakür usikiekin zer egin? Sügeekin, erle, ülli ta eltxo txisteeekin zer?

Ez zakit. Odola elkarrazi, xahatü (garbitu) txakurrana balin bada, edo sügearekin..gero seruma horrentako.

Erle lozer eta eltxoen txistekin. Minagrea (ozpina) gainen. Esperua barnen balinbada behar da elki, idoki.

100. Belaüneko ixurteak? Nola agitzen? Zer egiten, lehen ta orai?

Zer da ("épanchement de synovie"). Bai, zonbait aldiz errematismetarik (erreumietarik) horra düütüzü, bena üsü gazteetan jokü bortitz batetan kolpatzen direlarik...belaünean.

Ez dakit zer egin behar den belaüneko hur hura elki (atera) agian.

101. Ezür hautseren xüxentzea? Nork? Non? Zer egiten züen? Kario zena?

Daunatuak egiten zizün gisala..orai bat ümen düzü. Jatsün ..bena hebenko "kineek" (fisioterapeuteek) badakizüe. Ezürra bere leküan ezarten ..eta ez züzün izigarri kario (garesti).

102. Badakizüia zainhauzi, hoin bühürtze, anbüratze nola ezagüt? Zer egin?

Zainhauzian ez dira "tendon"ak bortxatürrik. Bena anbüratzea zer da? (luxation). Hura ez dea ezürra bere lekütik jauzirik. Zer egin? Oihal batez tinkatü..ez ebili - zankotan bada - ..etzanik egon.

103. Larrü karruntatü baten gainen?

Heben ez dizü holako hotzik egiten..bena urina ezarri...

104. Norbait itorik delarik zer egiten diozü?

Ber gaüza, bena mihia elkarazi..eta (h)ur baldin badü barnen..sabelaren gañen ezari..gero ez dakit.

105. Urkatü bat hatzamaiten badüzü, txilintxau?

Etxekitzen dit eta ber denboran korda mozten.. gero ahoa zabaltzen eta ahoala hats egiten (arnas egiten).

106. Norbait bizirik ala hilik den zer señale bada?

Begi ninia..bai foltsüa hartzen hor..hunkitzen. Bihotza hunkitzen..entzüten eta bitre, mirail bat südürpean ..aho aitzinean ezarten; aski düzü üsüenian: erraiten dizüe jente bizirik ehortzirik izan dela. Ospitaletan jelos direlarik beste xixtemarik badizüe. Ikusi dit bedezia ene aitarentako, aita zena-rentako ez dizü aspaldi, begia ikusi diozü eta hori "le pouls".

107. Berezko hiltze bat delarik zer erraiten düe jentteek?

Bihotza..bihotza eküratü (gelditu) dela.

108. Zer eman zinirozü, zer eman zenezakezu pozoatu bati?

Eznea ez? ..bena ez düe horren edateak goiti arrandakazten (goitikatzen). Gatüak ja hola egiten dizü. Jatekoa..onddoak goitikatzen ahal düütüzü erhiak ahoan sartüz.

109. Eta tximistak hartürrik ez izateko zer?

Axolbean jarteko behar dizü güne zabal batetan egon, ez zühain baten pean (zuhaitz azpian).

Jenteari tximista gaina erorten bazaio, zer agitzen zaio?

"Electrocuté" düzü eta süia hartürrik eta errerik düzü.

110. Ekikolpeen (eguzki kolpeen) erremedioa zer da?

(H)ur edan..itzalean jarria...espreseko larrü esnea. Oihal bustia ez?

111. Itsuski kolpatü baten "shock" nola ezagüt?

Ez dakit, poltsüa baratx..gero ez dakit.

112. Galant izatea osagarri marka bat dea? Eta lodi izatea?

Bai, üzkütxüt izateak ez dizü osagarriari hon egiten. (üzkütxüt: beti umore txarrean).

Lodi izatea marka hon dea?

Ez. jentea aisa akitzen düzü..

113. Mehateko zer sendagailü erabil zenezake?

Ez erremediorik..gütiago eta hobeki jan.. "régime"a bat egin.

114. Horietarik erran zaharrik badakizüa?

Ez. Salbü beti eri dena "oilo xuria" dela.

115. Ibilten zindena basa-bedeziaren gana?

Amañi zena txingolarentako Mintikilen ebili züzün.

116. Destrenpü txipi batentako bedeziaren gana joiten zindena? ala etxen ikasia aski zen?

Ez..ez lehen ez orai..etxen ikasia aski dizügü..piko baten-tako..marranta batentako.

Noiz bortxatü zirade edo noiz erabakitzen düzüe bedeziaren gana joaita?

Sükarra delarik.

117. Zerentako ez ziren zaharrak ospitaletan egoiteko gogorik?

Orai ere ez dütüzü ez zaharetxe ez ospitaletera nahi. Eta zaharrak ez dütüzü bedeziarengana joan nahi ere, ezpeitüe egia jakin nahi arauz..

118. Eta zahartetxetan erretiratzea?

Orai, familia badelarik eta eztelarik, eriegi denean zaharra, üsü, zahartetxe batetara igorten dizüe..horiek ere lanean ari behar beitüe.

119. Emazteen astegaitzak, eta odol galtzeak badakizü zer diren, zer egiten züen lehen?

Lehen ez dit entzün, orai, min düelarik zer bait hartzen. Eta zonbaitek bedezia ikusten odol sobera galtzen düenean.

Gero haur esperantzarik gabe odolak eküratzen ere bai..

120. Zer dira emazteen lili xuriak? Zertarik horra dira?

Onddo txipi bat beita barnen.. Ez dit uste xahütarzünak deuse ikusteko düanik.

121. Emazteen odol pausü zer adinetan agitzen da?

Orai, berrogeitahamar urteetan...heltübada haurrak lehen beno berantago egiten beitira.

Eta odol pausü hortan zer agitzen da?

Begitaratean berotartzünak baditizüe, odola eküratzen zonbait ere amiñi bat loditzen hormonak gütiago dütüzü.

Eta bizar amiñi bat ere jiten?

Ez dakit.

122. Pottikoen ixurteak zer dira?

Normal düzü..üsüegi delarik früstrazionea ez?

Eta gizon zaharrek zer quinta düe?

Prostata eri..pixastrüa jenatzen (oztopotzen) dizü.. gizonak ez dizü pixegiten ahal..batere.

123. Nola haurra sortzen züen emazteek lehen?

Etxen..etzanik amaren denboran eta aüzo batek lagüntürik. Lehenago ene ustez belaüriko.

124. Lehen emazteek haurrak galerazten zütiena?

Bai...berek galerazten edo lagün batek...edo haurra sortü ondoan eraiten (hiltzen)...mixeriak eginarazten zizün hori...bena jentteek gordatzen presontegia arrixkatzen düzü, bes-telan..

125. Eta emagintsak?

Zer ("sage-femme")ak). Entzütea badit, lehen emazteek eta orai gizonek ditizüe sortzen lagüntzen., "ginekoek".

4. AÑEZ ELGOYHEN "Arrako"rekin: Hutsegite baten uztak.

Añez Elgoihen "Arrako" Santa Grazikoarekin izan nuen elkarhizketak ahoa bete aginekin utzi ninduen, izan ere euskaraz ederto ta frantsesez gaizki egiten zuelako haukeratu

bainuen. Nahiz baduen hamabost urte ezagutzen dudala, 1989.ko iraila hartan porrot egin nuen, nire xedeak ez baitzitu-
tuen ulertu nahi izan, etxen nola sendatzen ziren, galderak egin nizkionean, gehienetan "ez dakit" edo "nik beno hobeki badakizü" "zük erran!" baitzion. Halaz ere, uztatxoa eman zidan hona zertan.

1. **Gaitz bildurgarrienen** artean eta denen gaitetik **kolika** hilgarria eman zidan, "miserere kolika" moduan ezagutzen dena eta haurren kolika berdetatik bereizi duena. Beste berriemaileek ez didate aipatu.

2. **Odolaren geldiarazteko**, errezeta harrigarri baina ballagarri hau eman zidan, zauriaren gainean armiarmen "amainak" pilatuta ipintzea, ta aurretik etxeetan beti edukitzen zituztela etxekanderek esan zidan. Gure iduriz, odolaren gatzatzeko bi elementu zeuden hor "telaraña"ren izpiak eta agian barruan zeuden errautsak. Gaineratu zidan etxe barruko amain trinkoak behar zirela, hots pareta ezkinetan hama-
ka moduan agertzen diren Etxe armiarma (**Tegenaria domestica**, edo **Tegenaria parietina**) delakoaren, amarau-na.

3. **Sendogarria, azkargarria**, Lan torpe ta indartsu bat egin behar zenean, bereiziki udan, langilei lan ardo bat ematen zitzaien: nafar ardo, gehi kanela, gehi lemoez egina; beste gisaz ardo "azkarra" nafarra, eta arraultze gorringo gordina nahasian. Azken hau gaixoei ematen zen.

4. **Zaharrei entzünik**. Dio, aintziña andere asko haur erditzearekin hiltzen zirela eta haur frango lehenbiziko urtean.

GAI BEREZITAKO BERRI EMAILEAK



"Dordorraga" Joanes CARRICABURUren etxea Ligin.

1. Joanes CARRICABURU "Dordorraga" (Biografia)

Hire izen ta izen txipiak?

Joanes CARRICABURU.

Nola deitzen da hire sortetxea?

"Dordorraga".

Non, noiz sortürik?

Ligin, 1928.an.

Eritartzün handirik üken düka haur denboran?

Ez, ez diat orhit.